



# ttipi-ttapa

Herrietako bestak



EGITARAUAK



Bixente APEZTEGIA PIKABEA | Soraunenen bizi den lesakarra

## «EZ ZAIT BATERE GUSTATZEN NITAZ ERRUKI IZATEA»


Duela lau urte parkinsona diagnostikatu zioten baina gaixotasuna ez da oztopo izan hainbertze gustatzen zaizkion ekintzetan parte hartzerakoan. Are gehiago, han eta hemen ibiltzeak «fisikoki eta psikoki kaltetzen nauen gaixotasunaren kontra egiten lagundu eta mesede egiten» diola adierazi dio TTIPI-TTAPARI. / 8

NOTICIAS DE NAVARRA

### SINADURAK



**Familia-langileen eta etxeko langileen egoera eta lana hizpide** / 10



ONDIKOL

**Behi-azienda pirinaikoaren lehiaketa irailaren 22an eta 23an** / 36



**15 urte lehen mailan egin ondotik, futbola utziko duela iragarri du Ane Bergarak** / 46



ZOKKETA / 60

alala eta jostaria  
alegre y divertido

freskoa eta naturala  
fresco y natural

bixia eta osatua  
estimulante y completo

ikas eta ari / aprende euskera

klasikoa eta berritzailea  
clásico e innovador

ika  
euskararen errazago egiten

ika  
euskararen errazago egiten

ika  
euskararen errazago egiten

**eus  
kara  
ren  
kilika**

**BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA**  
Lesaka - Matxinbeltzenea  
Tel. 948 637 796  
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

**MALERREKAKO EUSKALTEGIA**  
Doneztebe - Rosa Seminario, 6  
Tel. 948 451 555  
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

**LEITZA, IMOTZ-BASABURUA eta  
ARAITZ-BETELUKO EUSKALTEGIA**  
Leitza - Euskal Herria Plaza, 1  
Tel. 948 610 776  
leitza@ikaeuskaltegiak.eus

**DEBALDE!!**

**DIRU-LAGUNTZAK  
DAUDE**

ika  
euskararen errazago egiten

[www.ikaeuskaltegiak.eus](http://www.ikaeuskaltegiak.eus)

**MATRIKULA ZAITEZ  
irailaren 28a baino lehen**

bertso jaialdia  
**BERA**  
Irailak 15  
Kultur etxean, 19:30ean

Sarrera 3€

Alazne Untxalo . Amets Arzallus . Iker Zubeldia . Alaia Martin  
Gai jarzailea: Ainhoa Larretxea

Lanku  
kultur zerbitzuak

NAFARROAKO  
ANTZOKI  
SAREA

BORTZIRIETAKO  
EUSKARA  
MANKOMUNITATEA

berako kultur batzordea





NIRE TXANDA

MONIKA AGIRRE CASCALLANA

## From here

Komeni da ingeles erdi ahantziari herdoila kentzea noizean noiz, eta, horretarako, aski aproposak izaten dira bakazioak. Edonora joanda ere, ohikoa izaten da jakin-mina ase nahi duen baten batekin topo egitea; halakoetan, galdeketa zorrotz bati erantzuteko prest egon beharko gara: «How are you? What's your name? Where are you from?...». Eta, ene!

Zenbat buruhauste sortzen duen azken galdera horrek batzuetan!

«From Basque Country»

erantzunarekin bertzea

kontent gelditzen bada,

ederki, arazorik ez. Baina,

gure herriaren existentziaz ideiarik ere ez badu, orduan

hasten dira komeriak, azalpen korapilatsuak eta

galdetzailearen zalantzak: «Andorra? Catalonia?

Portugal?».

Aurten, estreinakoz, konponbide eroso eta alfer samarra erabili dut: mugikorrean, Europako herrien mapa erakutsi, eta behatz erakusleaz baliatu naiz: «From here». Azken finean, iduri batek hamaika solasek bertze balio du.

**«GURE HERRIAZ  
IDEIARIK EZ BADU  
ORDUAN HASTEN  
DIRA KOMERIAK»**



EZPALA

AITOR AROTZENA

## Bizitzako ala bizitzeko aukerak

Zure etxean ala nirean; elizaz ala zibilez; mendira ala hondartzara: bizitzako aukerak. 1936ko abuztuaren 3an 'Gipuzkoara, Frantziara ala fusilatzen' aukeratu behar izan zuten Berako plazan bildutako ehun familiek. Bizitzeko hautua egin zuten, noski, eta horietatik lau bakarrik bueltatu ziren sorterrira. 82 urte beranduago gogoratu dituzte.

## NABARMENTZEKOAK



FELIX  
IRIGOIEN  
ARTZAINA



ANA MARI  
BENGOTXEA  
GASNAGILEA

40 urtez Amaiurko Artzain Zakur Txapelketan parte hartzeagatik, herritarren aldetik omenaldia jaso du aurten Felix Irigoien artzainak. Abuztuaren 15ean egin zen 43. edizioan oroigarria hartu zuen.

Urdazubiko Etxelekua gasnategikoek izar bat lortu dute nazioartean hain ezaguna den *Great Taste* lehiaketan. Aurten 12.634 jaki aurkeztu dituzte sariketara, eta artean Etxelekuko gasna.

## ATZERA BEGIRA



2008-09-04 · TTIPI-TTAPA · 477 zk.

## Joaldunen Egunaren 25. urteurrena

Dagoeneko urte saila pasatu dira Iturengo joaldunak Euskal Herrian eta kanpoan barna joareak astintzen hasi zirenetik. Hain zuzen, ateraldi haietako batean sortu zitzairen Joaldunen Eguna egiteko ideia. Duela hamar urte, 25. aldiz antolatu zuten Joaldunen Eguna eta mende laurdena modu batean ospatze aldera, besta haundia prestatu zuten. Hori izan zuen hizpide duela hamar urte TTIPI-TTAPAK egindako erreportaje batek. Jabier Bereau Iturengo joaldunak «Zarautzera joanak ginen batean, joaldun zahar guztien omenez, joaldunen besta bat egin behar genuela gogotu» zitzaizela kontatu zion TTIPI-TTAPARI. Gisa berean, «Ituren, Aurtitz eta Zubietan joalduna izatea zerbait haundia» dela adierazi zuen, «gure kultura da».



erran.  
Mendialdeko Albiesteak



### Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31700 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

### Zuzendaria

Aitor Arotzena

### Erredakzioa

Gurutze Pikabea  
Nerea Bazterrika  
Eneritz Iraola

### Publizitatea

Amalia Odriozola  
Arantza Agirre  
Usua Vicente

### Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,  
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,  
Maider Petrirena, Markel Lizasoain,  
Fermin Etxekolonea, Fernando  
Etxeberria, Mattin Larralde, Juan  
Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga  
Erdozain, Maitane Maritorea,  
Aranxa Iturralde, Aranxa Gamio,  
Jaione Ariztegi, Jaione Zabaló,  
Nerea Mortalena, Virginia Oteiza,  
Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso  
Arizmendi, Xabier Maritorea,  
Maialen Iantzi, Jaione Mindegia,  
Olaz Mutuberria.

### Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

### Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

### Administrazioa

Amalia Goia

### Lege Gordailua

NA-1324/85

### ISSN

1578-4673

### Tirada

6.000 ale

### Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,  
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,  
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,  
Zugarramurdi Akelarre elkarte

### 2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	
eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€





## KOLABORAZIOAK

ALAITZ ESKUDERO BERGARA

## Ezkutuko lanetan oporrik ez

Ailegatu da iraila eta honekin batera bukatu dira gehientsuenon oporrak. Hilabete bateko oporrez gozatu ahal izan dute batzuek, eta aste bateko oporrak izan dituztenak marmarti mintzo dira bi hilabeteko oporrak dituztenei buruz. Bata zein bestearentzat, horixe dira oporrak: lanik egin behar izanik gabe, urte guziko lanaren ordainetan, sosak gastatzeko aitzakia bikaina.

Denek modu desberdinerara antolatzen dituzte aisialdiko egun hauek: batzuk hondartzara joan dira, besteak mendira. Atzerriko leku exotikoak bisitatzea maite dute askok. Urtero helmuga berbera aukeratzen dutenak ere badaude, eta baita herria zaintzeaz arduratzen direnak ere.

Opor ala ez opor, inork galdu nahi ez dituen egunak izaten dira herriko festak. Santuren baten izena aintzat hartu eta bost bat egun eta gaeuz ikuskizun, dantzaldi eta musikaz gozatzeko aukera izaten dugu. Ederra da etxean egitaraua jasotzen dugun eguna («ea zein egunetan jarri dituzten

### «EZKUTUKO LANGILEEK BETIKO OPORRAK HARTUTA FESTAK JA-JAI»

entzierroak», «ea ze bertsolari datozen aurtentzen?», «ze krixto, aurtentzen Mariatxirik ez?...»). Kekak aparte utzita, zeinen gustura jazten ditugun festei dagozkien koloredun arropak, aspaldi ikusi gabeko lagunekin elkartu, musikaz gozatu eta dantza

egin, herri-bazkarian ito arte jan ea edan...

Ederrak dira festak. Baina banago, egitan ez ote garen konturatzen batzuk egun hauez gozatzeko, gutxi batzuk zenbat lan egin behar izaten duten.

Hilabete batzuk lehenago, baten bat herritar guztien gustuko egitaraua osatzeko ideiak biltzen hasi izango zen. Norbaitek plazako musika taldeak prezio onean lortzeko bereak eta bi ikusi izango zituen. Zein arduratu ote zen txoznako txandak osatzeaz? Nork eskatu zituen gure kubatak hain hotz mantentzen dituen izotz koxkorak? Herri-bazkaria prestatu eta zerbitzatzeaz nor arduratu da?

Eta etxean? Zeinek garbitzen ditu bezperako alkohol eta tabako kirasdun arropak? Zeinek prestatu du familia bazkariko otordua? Zeinek atondu ditu gonbidatuentzako oheak?

Lan horien guztien atzean izen-abizenak daude. Denok ezagutzen ditugu, baina gutxi dakigu zer nolako festak genituzkeen ezkutuko langile nekaezin horientatik ez balitz. Benetan festetako parte izan nahi badugu, ez al genieke ezkutuko lan horiei ikusgarritasuna eman beharko? Bakoitzak gure partetik pixka bat emanez gero, ez al ginatke denak gusturago eta lasaiago ibiliko? Festetan ikusle soil edo parte-hartzaile izan nahi dugu?

Beldur naiz, lan banaketa eman ezean, berandu baino lehen ezkutuko langile hauek ez ote dituzten behin-betiko oporrak hartuko. Eta orduan bai, herriko festak ja-jai!



PILI BERGARA ALBERRO BIDAZI ELKARTEA

## Eskuekin gorputza osatzen

Denok daukagu sentsibilitate berezi bat gure eskuetan. Kolpe bat hartzen dugunean, segituan jartzen ditugu eskuak mina arintzeko, nahiz eta inkontzienteki egin. Sortzez dugu ahalmen hau. Eta ahalmen honetaz baliatzen da osteopatia.

Osteopatia eskuzko medikuntza da, non osteopatak bere eskuak bestearen gorputzean errespetuz eta sentsibilitatez pausatzen dituen. Bere ezagupen teoriko eta praktikoa erabiliz, ehunen mugimenduz ohartzen da eta mugimendua eteten den lekura joaten da. Gorputzaren egitura ezberdinen mugimendu galeraz gain, pertsonaren historia, bere ingurugiroa, familia, lana, gatazkak... kontuan hartzen dituen dugu.

Giza gorputzean atal guztiak erlazionatuak daude, multzo bateratu eta harmoniatsua osatuz. Honen ondorioz, edozein arazok, edozein mailatan, gorputz osoarengan eragingo du. Min edo sintoma konkretu batekin kontsultara goazenean, min hori azaleratzen den tokian aritzea esperoko dugu, baina

sintomaren jatorria, gorputzean beste nonbaiten egon daiteke. Gorputzeko atal bat disfuntzioan dagoenean, beste guztiak birmoldatzen baitira, behin eta berriz, sintoma azaleratu arte.

Osteopata, bere eskuen laguntza eta babesarekin,

### «GURE IZATEA GORPUTZAREN BITARTEZ GAUZATZEN DA»

gorputzeko ehunak sentitu eta 'aditzerakoan' oreka berriz ezartzen saiatuko da. Honek eragina edukiko du, gure osasun fisikoaz gain, gure egoera mental, nerbio eta emozionalean. Terapia lasaigarri eta orekatzailea baita. Gure gorputzaren ongizatean eragin positiboa dauka, ez bakarrik gaixotasuna agertu denean, baizik eta prebentiboa ere badugu.

Ez dezagun ahaztu, gure izatea, gorputzaren bitartez gauzatzen dela. Berari esker sentitzen dugu, elikatu, mugitu, komunikatu, hitz batean esanda, BIZI gara. Arreta jar diezaiogun, saiatu sentitzen bere beharrak, eta mimatu dezagun gure gorputza. Bizitza honetan dugun ibilgailua dugu eta oso inportantea da ahal den eta hoberen zaintzea, gure altxorrik preziatuena bezala, bizitzako bidaiatzeko gozatzeko.



## 11 GALDERA LABUR

ANA MARIEZKURRENA MURGIA ERATSUNGO EMAKUMEA

## «Nire semeek Eratsun ez ahaztea gustatuko litzaidake»

### Aurkeztu zure burua...

36 urteko neska, ezkondua, bi semeren ama, langilea, noiz-behinka nahiko burugogorra eta ingurukoak zaintzea gustuko duena.

### Zer zaletasun dituzu?

Motorraren mundua eta bidaiatzea gustatzen zait.

### Asteburua ailegatu orduko Sarrigurenetik sorterrira...

Herria herria da. Herrian ditut gurasoak, lagunak; lasaitasuna eta bakea...

### Bularreko minbiziaren ikerketarako paella-jatea antolatzen aritu zinen...

Mirianen (gaixorik dagoena) ahizparen laguna naiz eta banekien momentu txarrean zegoela..., Nolabait lagundu nahi nion. Elizondora etor-

tzekoa zenez, paella jatea antolatzea bururatu zitzaidan. Herriko Whatsapp taldearen bidez zabaldu nuen kasua eta jendeak laguntza eskaini zidan...

### Zenbat lagun bildu zineten?

Hasieran 20 lagun zeudela ikusita kezka sortu zitzaidan, baina bat-batean jendea izena ematen hasi zen. Zenbatzen hasi eta gutxi goiti-beheiti 100 herritar bildu ginen. Herri txiki bat izateko, eskertzekoa da! Hor ikusi nuen eratsundarren konpromisoa eta borondatea, 1.200 euro inguru lortu genituen.

### Laster herriko pestak dituzue... nola bizi dituzu?

Gogo handiz, bereziak dira niretzat. Herrian eta hirian



bizi garenak elkartzeko urteko asteburu bakarra da... Pilota partidak, bazkariak, afariak, haur jokoak, musika... giro ederra sortzen dugu.

### Zertan aldatu dira herriko pestak?

Gure artean lehiaketak sortu ditugu, paella eta tortilla lehiaketa, esaterako.

### Eta pestak bizitzeko modua?

Semeak izan ditudanetik etxera lehenago joan behar izaten dut.

### Eratsungo txokorik politena?

Mendietan paraje ederrak ditu baina niri herriko plaza gustatzen zait, herrian sartu eta plazan jendea ikusteak poz izugarria ematen dit.

### Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Ostiralak. Eratsunera joatean nire semeak hain pozik ikustea ederra da.

### Amets bat?

Nire semeak haunditzen direnean, Eratsunen lagun kua-drilla izatea eta Eratsun ez ahaztea.

## GOITI ETA BEHEITI



### Telefono dei bat egin faltan...

Etkez etxeko zerbitzua eduki arren, badirudi batzuk ez dutela sobera ongi ulertua, edo ez dutela ulertu nahi... Telefono dei bakar bat nahikoa da Mankomunitateko kideak trasteen bila etxera joateko. Ez ahaztu, norbere etxean traba egiten badu, karrikan ere traba egiten duela.



UTZITAKO ARGAZKIA



ONDIKOL

### Amaiurren indusketa lanetan



13. urtez, Aranzadi Zientzia Elkartekoak Amaiurko gazteluan indusketak egiten aritu dira abuztuan. Interpretazio gune bat egin nahi dute 2022rako.



## IRAKURLEAK MINTZO

### Eskerrik asko

CECILIA YOUNG

Leitzako, Goizuetako eta inguruko herrietako guraso maiteok, aitona-amona maiteok, hezitzaile maiteok eta gure komunitateko umeak osasuntsu eta zorionsu hazten ikustea den abentura zoragarri hau nirekin partekatu duzuen guztiok: Banoa, eta leku hau publikoki agurtu nahi nuke; izan ere, hemen egon naizen epe motz honetan, pediatra bezala egin dudan neure ibilbide luzean hoberenetako bat bihurtu da niretzat. Bikainak zarete! Zuen umeek osasuntsu eta zorionsu hazten jarrai dezatela opa dizuet, eta kontsultategitik kanpo elkar gaitezela. Eskerrik asko profesional zein pertsona bezala eman didazuen guztiagatik! Maite zaituztet!

### Txekiar Errepublikako sega txapelketaren porrota

AINARA MAIA URROZ

Goiza altxatzen da, eguzkia atera baino lehen.

Eguzkia goian zela abiatu ginen Donostiatik Bilbo aldera abuztuaren 15aren bezperan, bihotzeko hutsune honekin, bihotz-zati bat baitago Zilarrezko Itsasoan hondoratuta. Arratsaldeko 18:30ak inguru Czech Airlines konpainiako hegazkin batean hegaldatu nintzen beste hamabost euskaldun ez osatutako talde batekin, horietako hamaika, segan egiteko prest Txekian antolatutako txapelketa batean, Bohemia eskualdean. Itzulpen lanekin laguntzeko joan nintzen

beraiekin, eta Txekia ere ezagutzen dudalako, prefosta!

Bihotzeko hutsuneak ezin bete, eta aurrera segi behar, iragana atzean utziz, beti aitzina! Almitza elkarteko segalariak, lagunak, Lenka eta ni neu joan ginen Pragatik Prahatic hirira, eta hantxe jaso gintuen David Voborsky segalari txekiarrek eta txapelketaren antolatzaileak. Tipo xeblebre eta nahikoa hippya iruditu zitzaidan baina ez nion garrantzirik eman. Herri hartan jatetxe batean afaldu genuen, Volary herrira joan aurretik. Izan ere, Mlynarovice Volary herrian dago, eta Mlynarovicera joan ginen; hantxe elkartu ginen guztiok, euskaldun guztiok eta antolatzailea.

Gizon oro koldar hutsak ez ote dira? amaiera zorionsurik inoiz izan ez badut ere, eguneko eta gaueko 'presente' eta opari txikiekin goxa dezadan bihotza: goizeko eguzkia, gaueko izarrak, oheratu aitzineko garagarado inguruko solasaldiak euskaraz, txekieraz eta alemanez. Gizonak espezie berezi batzuk dira, emakumearekin zerikusirik ez dutena. Badira salbuespenak baina orokorrean guretik urrun dira hitzetan eta ekintzetan mugitzen dira. Burmuina behar ez den tokian dute eta horrela pentsatzen dute. Horixe litzateke David Voborskyren kasua, koldarra, tamalez, eta arduragabe hutsa.

Euskal segalariak mutil segailak eta lerdinak! Ligatzeko aukerarik ez, baina jende jatorra da. Almitza.eus elkartetik lauzpabost gizonak eta bi emakumeak parte hartuko dute Txekiako sega txapelketa honetan, baina lehenbizi gosari-legea egin dugu Mlynarovice herrixkako David antolatzailearen

etxean, hamaikak inguruan. Euskal segalariak soilik daude, oraindik ez baitira iritsi ez alemanak ez esloveniarrak, eta euskal segalariak zalantza dute ea txapelketa jokatu den ala ez, antolatzaileak esan duelako belarrik ez dagoela. Lehenbizi txapelketako zelaiak ikuskatu behar ziren, larunbatean, abuztuak 18, jokatu behar omen zuen txapelketa baino lehen. Hura zen hura adar jotzea antolatzaileen aldetik! Esan ez digu ba David Voborsky berak euririk egin ez duelako ez dagoela belarrik? Zelaien egoera ez zegoen prest oraindik txapelketa baterako, eta asko eztabaidatu ondoren, euskal segalariak haserre handik aldegitia erabakitzen dute.

*Libertatea hemen badugu  
galde egin gabe nehorik  
elgarri esku eman dezagun  
gosturik ere zernahi*

(Mendiaga)

Larunbateko txapelketa ustela bertan behera gelditu da: ez dago belarrik.

Aio txapelketa... baina primeran pasa dugu gure artean Txekiako lurraldetan! Eskerrik asko, Almitza!

### IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58



## HEMEROTEKA



«Mutil-dantzak eta alardeak duten dimentsioa diferentea delako, baina oinarri-oinarrian gatazka berbera da, eta emakumeen bazterketa normalizatzeko erabiltzen diren ustezko argudioak ere bai. (...) Nik gogoan dudana lehenbiziko kalapita 2008an-edo izan zen. (...) Hurbildu zen neskatico bat eta: «Maitane, sartuko gara mutil dantzetan?». Nik ezetz, beldurrez (...) Bi neskatico dantzara sartu ziren eta isildu zen plaza! Zernahi erranka jendea, xistuka (...) Argiteria publikoa itzali izan dute, txistularia isildu emaztekiak dantzara sartu direlarik, oihiak, bulkaldiak, irainak... (...) 2011tik goiti arras gogorra izan da: herriz herri joan behar, mutil dantza egin, eta aditu behar! Afera ez da, bakarrik, zu dantzan sartzen zarela, zer aditu behar duzun, agurra ukatzen dizu jendeak. Jende anitzek utzi du plaza, zu ez ikusteagatik. Boikota egitea da hori. Ez da goxo! Hala ere, gure ondorengoek disfrutatuko dute, guk sufritu duguna!»

**MAITANE MARITORENA ANIZ**  
BERRIA. 2018.08.26



«Urteetan euskal pilotaren negozioa usiatu den modua gaur egun zaharkitua gelditua dela erraten aspalditik ari naiz. Erremotea krisi handian dago (...) Gure inguruko herrietako frontoietara joaten bazara, adibidez, Sunbillako frontoira ilunabarrean haurren bila joaten naizenean, 80 bat haur ikusten ditut palan, laxoan... jokatzeko. Gure inguruan giro hori ikusten da, baina badira hiltzen ari gaituzten bertze gauza batzuk. Futbolak denak hiltzen gaitu. Futbola gustatzen zait, baina futbolaren giroa ez zait gustatzen, gorrotu dut (...) Erremontea uzteko asmoa komentatu nuenean, arnasa hartu nuen, baina prentsurrekoan erabakiaren berri adierazi nuenean, lasaitasuna hartu nuen. Orain jokatzera joan eta gozatu egiten dut (...) Laxoan aritzen naiz, bertze hiru lagunekin elkartu eta gazteagoen aurka aritzen gara. Berdin zaigu galdu ala irabazi, gozatu eta ongi pasatu nahi dugu.»

**KOTETO EZKURRA DONEZTEBE**  
ON. 2018.08.25

## BOTA BERTSOA



**JULENE ETXEBERRI PACHECO**  
SARAKO BERTSOLARIA

## Sarako bestak

Doinua: Oso polita zara izatez

*Joan den urtetik biziki fite  
urtea zaigu pasatu  
Eta orduan aurtegoan ere  
dena behar da prestatu  
Herriko zahar, gazte ta haurrei  
denei behar da pentsatu  
Baina ez da errex behar delako  
herriarentzat hautatu  
Helburu simple bat bada ere  
denek dezaten gozatu  
Ez ahantzi Saran ere behar dela  
bestan euskaraz mintzatu.*

*Gure herrian bestak hasteko  
larunbatez lasterketa  
Ta igandean goizean goizik  
tanborrada ta tronpeta  
Ahate jokoa ta desfilea  
plazan izaten da beteta  
Astelehenean pilotariak  
giro onean da Pleka  
Ta heldu zaigu mozorro gaua  
ta asteazkenean sariketa  
Hala ohartzen ga Sarako bestak  
ezin direla ordezkia.*

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

**Alberto RETEGI**  
abokatu

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

## BORTZIRI GARRAIO TXARTELA

Egun batez topo trenean eta La Burundesa autobusean erabiltzeko balio du



Joan-etorri TARIFA		
ABIAPUNTUA	HELMUGA	HELDUA
DONOSTIA-IRUN	BERA	5,18€
DONOSTIA-IRUN	LESAKA	6,08€
DONOSTIA-IRUN	ETXALAR	7,08€
DONOSTIA-IRUN	IGANTZI	7,68€



Informazio gehiago: [www.laburundesa.com](http://www.laburundesa.com) | [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) | 948 303 505

LA BURUNDESA

euskotren

## «Parkinsonak bizitza bertze modu batera ikusten lagundu dit»

**BIXENTE APEZTEGIA PIKABEA** SORAURENEN BIZI DEN LESAKARRA

Orain dela lau urte parkinsona diagnostikatu zioten baina gaixotasuna hori ez da oztopo izan Apeztegiarentzat hainbertze gustatzen zaizkion ekintzetan parte hartzerakoan. Kontent bizi da

**G. PIKABEA** LESAKA

Ez zen geldirik egoteko jaio. Ez zen hala jubilatu aitzinetik, eta ez da hala jubilatu ondotik ere. Parkinsonak ere ez dio hori galarazi Bixente Apeztegia Pikabeari (Lesaka, 1945). Alderantziz, hainbertze maite dituen ekintzetan parte hartzeak lagundu egiten dio, «fisikoki eta psikikoki kaltetzen nauen gaixotasunaren kontra egiten lagundu eta mesede egiten dit». Gehiago ere kontatu digu; parkinsona diagnostikatu ziotenean, «etsipena, errabia eta pena» sentitu bazituen ere, gaur egun, «kontent» bizi da.

Parkinsona gaixotasun neurologiko degeneratiboa da, oraingoz, sendabiderik ez duena. Baina badira bere garapena moteltzen edo kontrolatzen duten tratamenduak eta etengabe ikertzen ari dira. Horren aldekoa da Apeztegia, eta ikerketetan parte hartzeko izena emana du. Halere, argi utzi du parkinsona ez dela muga beretzat, ezta ezintasuna ere: «bertzeek egin badezakete, nik zergatik ez?».

**Dantza, kanta, antzerkia... Ez zara gelditzen...**

2005ean hartu nuen erretiroa eta geroztik ez naiz geldirik egon. Bizi naizen etxea berre-raiki dut, antigoaleko gauzak eta artelanak zaharberritzen ditut, hiru abesbatzetan eta bakarkakantatzen dut, baratzea badut, bideo musikalak egiten ditut eta batzuk Youtuben ar-



Apeztegia Soraunenen bizi da, baina astebururo Lesakara joaten da.

gitaratzen ditut. Bertzalde, osasun arrazoiengatik dantzan hasi nintzen eta orain dantza eta gorputz-espresioaren ikuskizun batean parte hartzen dut. *Derechos Humanos a Escena* irabazi asmorik gabeko proiektu bat da eta horren barne *El baile de los años* ikuskizunean ari naiz; jende taldeak, kasu honetan, adinekoak, ni bezalako pertsonak, bazterteak duen arriskuaz gizarte kontzientziatzea du helburu.

**Bidasoko hizkeraren inguruan bilketa lan bat egiten ere ari zara...**

Gaur egun erabiltzen ez diren solasak dira. Batzuk gogoan ditut eta bertzeak adinekoen artean bilatzen ditut. Erran zaharrak eta irri eginarazten diguten historia laburrak ere biltzen ari naiz, eta eskualdeko izengoitiak ere bai. Ondare kulturala direla iruditzen zait, desagertzen ari direla eta norbaitek bildu egin behar dituela. Horiekin liburuxka edo

eskuliburu bat egiten saiatuko naiz eta bertzela, sarean zintzilikatuko dut.

**Bere garaian, 'Rumbo a la gloria' lehiaketa irabazi zenuen. Nolako oroitzapenak dituzu?**

1968. urte aldera, La voz de Guipuzcoa irratiak kantari berrientzako *Rumbo a la gloria* lehiaketa antolatu zuen Donostian. Hura irabazi eta toki aunitzetan ibili nintzen kantari, baina diru eta gloria... gutti. Bere garaian dezepzioa hartu nuen, baina orain oroitzapen onak ditut.

**Ez zenituen horri lotutako ikasketak egin...**

Deustuko Unibertsitatean gaitasun-proba zehatza egin zigutenean, nirea arte plastikoaren eta eszenikoaren mundua zela ondorioztatu genuen. Baina ez nuen bide hori hartzeko aukera, formazio eta adorerik izan eta ogibidea segurtatu nahi izan nuen. Aitzinera egiteko garai hartan uste zena egin nuen. Nire lanbizitza esfortzu handia eskatzen zidan zuzendaritzako postu batean bukatu nuen.

**Noiz diagnostikatu zizuten parkinsona?**

Duela lau urte. Ordurako banekien edo banuen susmoa, bizpahiru urte lehenagotik sintomak sumatzen baintuen. Nire kezka familiako medikuari adierazi nion, baina berak ez zituen garrantzitsutzat jo. Hasiara hura gogorra izan zen, etsipena, errabia eta pena sentitu nituen. Gaur egun, oro har, gaindituak ditut...

**Nola eragin zizun egunerokoan?**

Hasieran min handia egin zidan, baina laster erabaki nuen ez zela horrela izanen. Hutsune neuronala arintzeko hainbat ekintzetan parte hartzen hasi nintzen: logopedia, yoga, dantza sendagarriak, gimnasia terapeutikoa, kanta, errehabilitazioa, gorputz-espresioa, antzerkia, zinema, aurkezle, irratiko esatari...

**Nolako bilakaera izan du zuregan?**

Bizitza bertze modu batera ikusten lagundu dit. Orain gauza sinpleak eta pertsonen



arteko harremanak gehiago baloratzen ditut. Pertsona sentibera eta umilez inguratu naiz, maitasun haundia jasotzen dut eurengandik eta ulertu egiten naute. Bertzei laguntzeak sortzen duen plazera ere deskubritu dut. Ahal dudan guztia ematen dut, baina gehiago jasotzen dut. Emaztea, alaba eta suhia nirekin daude, maite naute, eta aunitz laguntzen didate.

#### **Orain nola zaude?**

Ongi nago, hagitz ongi. Nire adina ikusita, teoriar osasuntsu dauden bertze aunitz baino hobeki nago. Inkongruentia eta paradaxikoa gerta liteke parkinsona duen batek zera erratea, baina parkinsona izorratzen ari bazait ere, gaitasunari esker bizitzako etapa honetan ohi baino hiperaktiboago, sentiberago, komunikatiboago eta sortzailago nago, eta bereziki kontent. Egoera arrunt batean, orain dela gutti, pentsaezinak izanen lirartekeen gauzak gertatzen ari zaizkit.

#### **Nolakoa da zure egunerokoa?**

Etxe barrenean eta kanpoan, egunero ekintzak izaten ditut, batzuk arazo neuronal arintzeko dira, bertzeak boluntario gisa egiten ditudanak eta bertze batzuk nire zaletasun hutsagatik egiten ditudanak. Ordenagailuarekin lanean ere denbora aunitz pasatzen dut, munduarekin kontaktuan mantentzen nau eta nire sormena garatzeko balio dit. Ikasten ere ari naiz.

**«ARTEA GUSTATU ARREN EZ NUEN BIDE HORI AUKERATU»**

**«EZ ZAIT BATERE GUSTATZEN NITAZ ERRUKI IZATEA, EZ DAGO MOTIBORIK»**

#### **Animikoki goiti-beheitiak izaten dituzu?**

Bai. Egun batzuetan gorputza mugitzea kostatzen zait, gogortua dago, alde guztietan mina sentitzen dut eta mantso pentsatu, hausnartu eta hitz egiten dut. Bertze batzuetan, aldiz, hiperaktibo egoten naiz. Baina ez dut etsitzen, nire burua derrigortu eta oraingo, lortzen dut.

#### **Zein aholku emanen zenioke parkinsona diagnostikatu berri dioten bati?**

Kasu bakoitza diferentea da eta zaila da aholku egokia ematea. Baina zerbaiten eredu izan badezaket, hiperaktibitateak eta bat-bateko eta nire buruari behartzen diodan positibotasunak balio didala erranen nuke. Garrantzitsuena jarrera da. Garuna tontoa da eta gorputzak jarrera bat hartzen duela ikusten badu, egoera horretara pasatzen da.

#### **Zure egoeraren berri eman ez ibiltzen zara. Gogorra egiten zaizu?**


Denbora batean ezin izaten nuen, ez nuen nahi izaten. Orain, ordea, konta dezaket eta nahi dut. Jendeak parkinsona gizakien bertze tara bat bezala ikus dezan, ahal dudan guztia egiten saiatzen naiz, maingu, besamotz edo diabetiko bat bezala, horrekin bizitzen ikasi behar dela adierazten. Hutsune neuronal hori dutenen inguruan sortu den mitoa desmuntatu nahi dut, dramatismoak eta alferrikakok aieneak desegin. Ez zait batere gustatzen nitaz erruki izatea, ez dago horretarako motiborik.

#### **ANAPAR Nafarroako Parkinson Elkarte kidea zara. Zertan lagundu dizu?**

Niretzat eta kaltetutako bertze edozeinentzat laguntza handia da. Kaltetuon bilgunea da. Gure mugak normaltasunaren barne hartzen ditugu eta paziente, profesional eta langileen artean, neurri aringarriak bilatzen saiatzen gara.

#### **Zer erakutsi dizu parkinsonak?**

Gaitasunaren ondorio psikiko eta fisikoak arindu ahal



Apeztegia *Derechos Humanos a Escena* ikuskizunean. UTZITAKO ARGAZKIA

## **Mandatu-mutila informatikako buru**

Lesakako apaizen eskolan egin zituen oinarrikiko ikasketak eta 14 urterekin «aitaren nahiaren kontra» etxetik alde egin zuen, «Hondarribiko hotel batean mandatu-mutil» gisa aritzeko. Sukaldari laguntzailea ere izan zen, baita diskotekako zerbitzaria ere, kantaria... 16 urterekin Lesakako Laminaciones lantegian hasi zen: «12 urtez egon nintzen han. Hasieran, aprendiz, eta gero lana antolatzeke teknikari izateko prestatu ninduten, eta ondotik, ordenagailuetako operadore izatera pasatu nintzen». Fabrikako zortzi orduen ondotik, «Donostiara joaten nintzen erdi-mailako arduradunen eskola batera eta sei ordu pasatzen nituen han». Nafarroko Gobernuak Ordenagailu-Operadore izateko oposizioen deialdia egin zuenean, harat aurkeztu zen, eta «plaza lortu nuen». Hainbat promozio gaindituz, Nafarroako Gobernuaren Informatika Zentroko Produkzio-bulegoko buru izatera ailegatu zen. «Aldi berean, nire zaletasun artistikoekin segitu nuen: kanta, antzerkia, pintura...».

izateko, nire organismoan erremintak bilatzen erakutsi dit. Pertsona hobea izaten ere lagundu dit, bertzeak ulertu eta bertzei laguntzen, aurreiritzi eta lotsarik gabeko bene-

tako maitasuna ematen, bizitzaz gozatzen eta momentua bizitzen. Iragana izan nuen, baina ez dakit etorkizunik izanen dudan. Ahal dudan hobekien bizi dut oraina.



Etxeko eta familia-langileak ezinbertzeak bihurtu dira gaur egungo gizartean.

## Isilpeko lanaren beharra

Ez zaie lanik falta, baina maiz ikusezina da egiten dutena. Familia-langileak eta etxeko langileak dira eta ezin duenari laguntzen aritzen dira. Guztien egoera, ordea, ez da berdina. Batzuk zerbitzu publikoan ari dira eta bertzeak euren aldetik. Denek ere badute zer kontatua

### G. PIKABEA

Zailtasunak dituenari laguntzea da euren egitekoa. Lan isila eta gogorra dute, ez zaie lanik falta baina zenbaitetan prekarioa da. Etxeko eta familia-langileak dira, egungo gizartean ezinbertzeak bihurtu direnak.

Gema Meneses Rodriguez etxeko langilea izana da eta «aunitz» maite duen ardura da, «batez ere adinekoak zaintzea». Sortzez Nikaraguakoa da eta zortzi urte daramazki Lesakan bizitzen. 17 urteko semearekin eta bortz urteko alabarekin bizi da. Aitortu digunez, «hasieran gogorra» egin zitzaion hemengo bizimodura egokitzea: «bakarrik etorri nintzen eta semea han izanda, gaizki pasatu nuen. Duela lau urte ekarri nuen eta geroztik denbora gelditzea nahi dut». Alaba, berri, hemen jaioa du.

Bere herrialdean zuzenbide ikasketak egiten hasi zen, «bi urte egin nituen, baina diru faltagatik ez nuen bukatu». Euskal Herrira etorri zenean, ikasketak baliozkotu nahi izan zituen: «Nikaraguan izan nintzen nota bila, baina bigarren urteko notak desagertu ziren. Iruñera ere joan nintzen, baina ez nuen erantzunik jaso». Geroztik egin dituen ikasketak zaintzarekin, garbiketarekin eta sukaldaritzarekin lotuak izan dira. «Oraingo lana bukatuta, geriatriakasi nahi dut».

Bizimodu hobe baten bila egin zuen sorterritik ihesi eta orain, zortzi urte beranduago, argi du ez litzatekeela itzuliko, «guttiago orain, egoera dagoen bezala ikusita». Hilabete gogorak izaten ari dira Nikaraguan: «nire familiaren zati bat han dago eta hainbertze hil-

dako ikustea eta familiari zer-bait gertatzen ahal zaiola pentsatze hutsarekin gaizki pasatzen ari naiz». Aitortu digunez, «nozbait han negozio bat irekitzea pentsatu izan dut, baina oporretan hilabete eta erdi pasatu nuenetik garbi dut ezetz. Nahiago dut hemen gelditu eta lanean segitu».

### Familia-langileak

Bertzelakoa da Juana Mari Saizar Telletxea (Areso) eta Ana Indaburu Irazokiren (Etxalar) egoera. Leitzaldeko eta Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateetako familia-langileak dira. Biak ere gaien ikasiak dira eta urte saila daramazkite lan horretan. Saizarrek «azaroan 26 urte» egingen ditu zaintza lanetan eta Indaburuk «20 urte baino gehiago» daramazki.

Aresoarrak kontatu digunez, «etxean dagoenari egunerokoan dituen zailtasunekin laguntzea eta egunerokoa erraztea» da euren lana. Etxalartarraren hitzetan, «beharraren arabera, gizarte-langileak erabakitzen du zenbat denbora pasatu behar dugun etxe bakoitzean». Biek diotenez, «normalean, etxe bakoitzean, ordu batekoa izaten da gure zerbitzua», baina aresoarrak gaineratu duenez, «gehiago edo gutxiago» izan daiteke. «Salbuespen kasuetan ordu eta erdi edo gehixeago egiten ahal dugu», aipatu digu etxalartarrak.

### Denetariko kasuak

Mankomunitateko langileei «batez ere adinekoekin» lan egitea tokatzen zaie, baina «umeekin, elbarriekin, eritasun mentalak dituztenekin, desgaturatutako familiekin...» ere lan egin izan dutela adierazi digu Indaburuk. Urteotan denetariko kasuak ezagutu ditu, tartean «aski gogorak» ere bai: «alkoholismo kasuak, tratu txarrak, gaixotasun mentaleko kasuak, gaixo terminalak... Nahiz eta gero eta prestatuagoak gauden, inoiz ezin da behar adina prestatu kasu larriekin lan egiteko».

### Gogorra baina polita

Zaintza lana «gogorra baina polita» dela diote hiru langileek. Aresoarrak argi du: «pertsonekin lan egitea oso aberasgarria da. Asko ikasten eta jasotzen da». Iritzi berekoak dira Indaburu eta Meneses. Halere, aresoarrak onartu digunez, «momentu arinak eta astunak izaten dira». Etxalartarrak «fisikoki nekagarria» dela aitortu digu, eta «batzuetan buruz ere» hala dela. «Baina denborarekin deskonektatzen ikasten da».

Hirurak bat datoz «nahi edota uzten ez duenari laguntzea gogorra» dela erraterakoan. «Laguntza behar izatea ez da txarra. Denak behartzen gara bertzeetaz. Laguntza behar



dugunean eskatzea eta laguntzeko norbait izatea gauza ederra da», dio etxalartarrak.

### Erasoak

Euren lanaren bertze alde iluna zenbaitetan jasaten dituzten erasoak direla adierazi digu Indaburuk: «eraso fisikoak, ahozkoak eta sexualak izaten dira». Bera ez dago horiek onartzeko prest: «muga batzuk badira eta mugak gaindituz gero, zerbitzua moztu egin behar da». Bere irudiko, etxe-ko zaintzan eta «bereziki interna moduan» ibiltzen direnek «dezente aguantatu» behar izaten dute: «errespetu faltak, gehiegikeriak...». Menesesek badu halakoen berri: «nik ez dut arazorik izan, baina badut tratatu txarrak jasan zituen ezagun bat. Hiru hilabetez aritu zen lanean eta ez zioten bakean utzi. Nik ez nuke onartuko».

### Lan baldintzak

Azken hilabeteotan, zaintza lanetan aritzen direnek maiz salatu izan dituzte euren baldintzak. Kexu agertu izan dira atsedean faltarekin eta soldaterekin. Dena dela, denak ez daude egoera berdinean.

Saizarrek eta Indaburuk aslehenetik ortziralera egiten

## «LAGUNTZA BEHAR DENEAN ESKATZEA GAUZA EDERRA DA»

ANA INDABURU, FAMILIA-LANGILEA

## «BALDINTZA DUINETAN LAN EGIN NAHI DUT»

GEMA MENESES, ETXEKO LANGILEA

## «EGUNEROKO ZAILTASUNEKIN LAGUNTZEN DUGU»

JUANA M. SAIZAR, FAMILIA-LANGILEA

dute lan, goizez, «zerbitzu publikoko langileak izanik, administrazioko bertze langileak bezala», dio aresoarrak. Indaburuk «gure mankomunitate aldetik ongi babestuak» daudela sentitzen du, «baina Nafarroako Gobernuko hitzarmena dugu eta aginduak Iruñetik ailegatzen zaizkigu».

Aresoarraren irudiko, «soldata eta lana orekatuak» dituzte. Etxalartarrak, ordea, «eskas ordainduak» direla uste du: «administrazioko sailkapenean, D mailan gaude. Maila baxuagoan ere egon gara, E mailan, baina egiten dugun lanarekin konparatuz, soldata ez da izugarria».

Euren lanaren inguruan, Saizarrek «gaur egun, oso ezagunak» direla dio; «urteekin, gure lana ezaguna bihurtzen ari da eta asko baloratzen dute. Esker onak askotan jasotzen ditugu». Indaburuk ere «lan egiten dugun etxeetakoek eta osasun zentroko profesionalak gure lana eskertzen eta baloratzen dutela» azpimarratu du. Gehiago ere kontatu digu: «Gizarte Zerbitzuetako erabilitzaileen artean kalitatea neurtzeko egindako inkestan, etxeko zerbitzua baloratuena eta eskertuena izan zen». Baina adierazi digunez, «hortik kanpo ez dakit. Batzuek gure lana zaharrei ipurdia garbitzea dela uste dute, eta hori baino gehiago egiten dugu».

### Etxeko langileekin elkarlanean

Etxez etxe ibiltzen direnean, bertze etxeko langileekin egiten dute topo sarritan aresoarrak eta etxalartarrak. «Batzuetan elkarrekin aritzen gara, eta bertzeetan gu atera ondotik sartzen dira, gure zerbitzua baino gehiago behar dutelako». Langile horien baldintzen inguruan, etxe batetik bertzera «asko» aldatzen direla dio Saizarrek, eta Indaburuk gogorazti du «badaudela etxeko langileek zenbat irabazi behar duten adierazten duten taulak. Batzuk errespetatzen dituzte eta bertzeek ez. Kontratitzen



Ana Indaburu Bortziritako Gizarte Zerbitzuetako familia-langilea da. TTIPI-TTAPA



Gema Meneses etxeko langile gisa ibilitakoa da. TTIPI-TTAPA



Juana Mari Saizar Leitzaldeko Gizarte Zerbitzuetako familia-langilea da. TTIPI-TTAPA

dutenean artean denetarik dago eta langileen artean ere bai».

Menesesek dio ez dela «inoiz esplotatua» sentitu, alderantziz, «gustura» aritu izan dela. Baina badu zer kontatua. «Etxe batean, hasieran, astez, asteburuetan eta jaiegunetan lan eginarazi zidaten eta hilabete bukaeran, nagusiak asteburu eta jaiegunetan egindako lana ordaintzeko asmorik ez zuela konturatu nintzen». Horrez gain, «egunero ordu bat lan

eginez hilabetea 50 euro ordaintzeko eskaintza» egin ziotela ere azaldu digu.

Bortziritan dagoenetik umeak eta adinekoak zaintzen eta mantentze-lanetan ibili da, kontratuarekin eta gabe, hiru urtez paperik gabe egon baitzen. Bereak pasatu ondotik, orain, argi du «ez dudala edozein lan eta edozein baldintzetan onartuko»; berak ere baldintza duinetan lan egin nahi duelako.



## Azpiegitura planeko bi proiektu esleitu ditu Udalak

Bizileku iraunkorretarako bide batzuk moldatzen hasi dira eta ur hornidurari dagokion obrekin irail hasieran hastekoak dira

### TTIPI-TTAPA

2017-2019 azpiegitura planeko lehendabiziko bi proiektuak esleitu ditu Udalak. Alde batetik, Usategietan ur depositua egin eta Ibardin eta Eltzaurdia auzoetako ur hornidura hobetzeko proiektuari dagokionez, Mariezkurrena enpresaren eskaintza izan da onena eta lanek 249.412,41 euroko (BEZik gabe) kostua dute; hasierako prezioa baino %7 merkeago. Lanen iraupena lau hilabetekoa izanen da eta irailaren hasieran hastekoak dira. 150 metro kubikoko depositua egingen dute Usategietan eta Eltzaurdia auzora heldu den hoditeria berrituko dute.



Agerra auzoko argiak.

### Bideak moldatzeko lanak

Bertzalde, bizileku iraunkor diren etxebizitzetara doazen bideak hobetzeko proiektua abiatuko du Udalak. Hala, Gorostigain eta Larratzenbordara doazen bideak eta Zalainen Alttunbordara doanaren zati bat moldatuko dituzte. Lan horiek Sasoi enpresak egingen ditu. Guztira 127.473,20

euroko kostua dute lanek, hasierako prezioa baino %7,1 guttiago. Lanak egiteko epea 40 lanegunekoa da eta abuztu bukaeran hastekoak ziren.

Azpiegitura planaren barrenean, aurten egingen duten hirugarren proiektu bat ere badute esku artean, Bidasoa karrikako eta Agerra auzoko argiteriari dagokiona, hain zuzen. Udaletik adierazi dutenez, lan horiek ere laster esleitzekoak dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Bordondantza gidatu du emakume batek

1936ko gerrako eta gerra ondoko 'ahantziek' bota zuten txupinazo hunkigarriaren ondotik, bortz eguneko besta bikainak joan ziren. Lehen aldiz, Bordondantzako aitzinesku emakume batek egin zuen Leire Barrutiak. 90 lagun atera ziren urtetik urtera indartzen ari den tanborradan.

## Berako eta Nafarroako istorioak liburuan

Hainbat urtez Berako mediku izan zen Antonio Valderrabano Quintanak *Historia de Bera y Navarra* izeneko liburua aurkeztu zuen joan den abuztuaren 9an Beralandetan. Jendez bete egin zen aretoa mediku izan zenaren azalpenak aditzera.



Valderrabano liburu aurkezpenean.

**MARITX**  
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA  
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailera jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**ikbilu**  
OSTATUA  
SAGARDOTEGIA  
Uralde karrika, 6  
BERA  
T. 948 110 913

**HARAGIA ETA ARRAINA BRASAN**  
Eguneko menua | Asteburuko menua



# Irailaren 15ean eta 16an bestak Illekuetan

Larunbatean auzoko bazkaria egingen dute eta igandean pintxo dastaketarekin borobilduko dituzte bestak

## TTIPI-TTAPA

Agerrako besteilekuko hartuz, Illekuetakoez auzoko bestak ospatuko dituzte irailaren 15ean eta 16an.

Irailaren 15ean, larunbata, 12:00etan Konpane zubitik botako duten altxaferoarekin hasiko dira bestak. Ondotik buruhaundiak, erraldoiak eta gaiteroak auzoan barna ibiliko dira. 13:00etan herri-kirol saioa egingen dute eta 14:30ean auzotarren bazkaria.

16:30ean Gure Txokoa Elkarteak antolatuta, txirindulari gazteen topaketa egingen dute Matzada futbol-zelaian. 18:00etan mus txapelketa antolatu dute eta 19:00etan Bera Kantariarekin karrikak kantaz alaituko dituzte.

20:30ean zezen-suzkoa aterako da eta 21:00etan dantzaldia izanen da Agerralde musikariarekin.

## Igandean gehiago

Igandean, hilak 16, 12:00etan meza izanen dute Irigotian eta ordu berean, Illekuetako karrikan, haurrentzako marrazki lehiaketa prestatu dute.



Bera Kantari izazko bestetan.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek margoak eraman beharko dituzte.

16:00etan haurrentzako jolasak izanen dira eta 19:00etan Gure Txokoa Dantza Taldeak ikuskizuna eskainiko du. 20:30ean egingen dute pintxo dastaketarekin borobilduko dituzte bestak. Antolatzailiek jakinarazi dutenez, pintxo dastaketarako pintxoak egin nahi dituenak 19:30 arte txoznan uzteko aukera izanen du.



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Eguraldi eta giro ona Agerrako bestetan

Bertze urte batez, ekitaldiz ongi hornitutako bestak ospatu dituzte aurten ere Agerran. Kirol aukera zabala, musikaz gozatzeko modua, otordu faltarik ez, gisa aunitzetako dantzak, haurrentzako jokoak... Haur, gazte eta helduek, denek, izan dute ongi pasatzeko tartea.

## Untxalo, Arzallus, Zubeldia eta Martinekin bertso jaialdia hilaren 15ean

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Antzoki Sareak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Berako Kultur Batzordeak elkarlanean, bertso jaialdia antolatu dute irailaren 15erako. Lau bertsolari gonbidatu dituzte: Alazne Untxalo iturendarra, Amets

Arzallus hendaiarra (Lapurdi), Iker Zubeldia zegamarra (Gipuzkoa) eta Alaia Martin oartzuarra (Gipuzkoa). Gai-jartzaille lanetan, berriz, Ainhoa Larretxea herritarra ariko da.

Jaialdia 19:30ean hasiko da Kultur Etxean eta sarrerak hiru eurotan salduko dituzte.

**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
Andueza e Iriarte, SL  
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA  
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

**Anterola**  
Tekniko Instalatzailea  
ITURGINTZA · GASA  
KALEFAKZIOA  
Zerbitzu aitzak &  
Gremioen koordinazioa  
629 449 602

Astelehenetik  
ortziralerara:  
07:15etik  
aitzinerara  
**LABE ZAR**  
Larunbata  
eta igandea:  
08:00etatik  
aitzinerara  
948 631 076 • BERA

**xuga**  
tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

**Jauzena**  
Denda. 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jaurenabera@gmail.com  
Elektrizitate lanak orokorrean  
Erreformak, etxe berriak  
Lantegietako mantenu lanak  
Etxetresnen salmenta, instalazioa  
eta etxez etxeko konponketa  
Antenak, satelite bidezko instalazioak

## Antzerkia eta musika ikasturte berriari ekiteko

Kataluniako Bakastei Teatrek 'Sube la música' eskainiko du igande honetan Harriondoan

### AITOR AROTZENA

Ikasturte berriari ekiteko kultur ekitaldiak izanen ditugu datozen bi asteburuetan Harriondoan. Irailaren 9an, 19:00etan, Kataluniako Bakastei Teatre taldeak *Sube la música* antzezlan eskainiko du. Sarrerak borts eurotan daude. *El Jueves* aldizkariko gidoigilea den Xavi Moratók idatzi eta zuzendutako komedia da eta antzezle lanean Javier Petrirena Roldan ariko da, 30 urtez Lesakan bizitua.

Irailaren 15ean, berriz, Olatz Zugastik kontzertua eskainiko



Kataluniarren antzezlaneko kartela.

du, 19:30ean, *Ur goiena, ur barrena...* diska aurkeztuz. Sarrerak 12 eurotan daude Kultura-Turismo Bulegoan, Telletxean eta Xagun. Egunean bertan ere salduko dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Elutxa txarangak zozketa

Elutxa txarangak 5. urteurrena ospatzeko antolatutako Zozketan 88. zenbakia ateri zen irabazlea; Ainhoa Telletxea lesakarrarena. 500 eurotan baloratutako saskia irabazi du. Bertzalde, bigarren sariko irabazlea 511. zenbakia izan da. Josebe Mitxelenak cava botila eta txapela eramanen ditu.

## Emakumeendako defentsa pertsonala ikastaroa

Emakumeendako defentsa pertsonalerako ikastaroa antolatu du Beti Gaztek. Lehen saioa irailaren 8an, larunbatean 09:00etatik 11:00etara izanen da. Hilean behin izanen da ikastaroa eta lehendabizikoa irekia izanen da. Informazio gehiago 615755176 telefonoan.

## Mendi bizikleta ibilaldia irailaren 16an

Beti Gazte elkarteak antolatuta, mendi bizikleta ibilaldia egingen da hilaren 16an. Bi ibilbide izanen dira aukeran, 42 eta 28 kilometrotakoak. 09:00etan hasiko da eta izena aitzinetik ([kirolprobak.com](http://kirolprobak.com)) edo egun berean eman daiteke (07:30- 08:45).



UTZITAKO ARGAZKIA

## Igoa eta Igartzabal Embrunman-en

Abuztuaren 15ean bere lehen Embrunman triatloia egin zuen Iñaki Igoa eta hamargarrena Bixente Igartzabalek. Beteranoa 46. izan zen sailkapenean, 11 ordu, 53 minutu eta 48 segundoko denborarekin. Igoa 152. postuan sailkatu zen, 13 ordu eta 59 segundoko denborarekin. Bikain biak.

## Soldata eguneratzea eskatzen dute Transbidasoan

Transbidasoako langileek ohar bidez jakinarazi dutenez, «egungo KPIari dagokion soldata eguneratzeko» eskatzen ari dira, «2009tik soldatak izoztuak baitaude». Gaineratu dutenez, «soldataren beharpenak enpresarekin adostu-tako epean berreskuratu ziren».

## Presoen aldeko gazte martxa larunbat honetan

Ernaik antolatuta, presoen aldeko gazte martxa egingen dute larunbatean, irailak 8, Bianditzera. 09:30ean Plaza Zaharretik abiatu eta Sastrinen argazkia aterako dute. Bianditzen ekitaldia egin ondotik, bazkari autogestionatua egingen dute. Izen-ematea Arranon.

DenakBat  
Hemen erabili  
**kattagorria**  
LESAKA  
948 627 514  
[www.kattagorria.com](http://www.kattagorria.com)

**IRU-BIDE**  
OSTATU • JATETXEA  
Arratzubi Kalea 3  
31770 LESAKA  
T. 948 63 71 27

**BEKO**  
LOREAK ETA LANDAREAK  
Frain Auzoa - LESAKA  
T. 948 637 826

744 484 361  
**ttipi-ttapa**



## Santakruzak ospatuko dituzte Urritzokietan

Irailaren 14ko eguerdian txupinazoa botako dute eta gauzez afaria egingen dute. Igandean, berriz, asaua egingen dute

### IRUNE ELIZAGOIEN

Santakruz bestak ospatzeko prest daude Urritzokieta auzoan.

Irailaren 14an, 11:00etan Sainduneko zubian txupinazoa bota eta txanpaina banatuko dute. 12:00etan meza izanen da ermitan eta ondotik ha-maiketakoa. 18:00etan txokolatada egingen dute hurbildutakoentzat eta 21:00etan zingar-jatea auzotarrentzat.

Irailaren 16an, 13:00etan kalejiran ibiliko dira auzoan barna. 14:00etan asaua egingen dute Sainduneko zubian eta

bazkaldu ondotik musean eta partxisean ariko dira. 17:30ean jokoak egingen dituzte.

18:30ean erromeria izanen da Elizagoien Ahizpen eskutik. eta jarraian patata dantza egingen dute. 21:00etan afaria egingen dute eta trikitilariak afalondoa alaituko dute.

Irailaren 17an, 09:00etan gosaldutik, karpa desmuntatu eta zubi ingurua txukunduko dute.

Hilaren 14ko afarira edo 16ko bazkarira joateko 948 635134 edo 948 635110ra deitu behar du irailaren 9a baino lehen.



FERNANDO OLAETXEA

## Otsagabiara bidaiak

Larraburua jubilatuen elkarteak antolatuta, Otsagabiara bidaiak egin zuten abuztuaren 25ean. Han duela 100 urte nola bizi ziren erakusten zuen Orhipean besta ikusteko aukera izan zuten. Bazkaldu ondotik, Muskildako amabirjinarren eliza bisitatu zuten.



**ORAIN GASOLINA ERE**

**T. 948 635 214 ETXALAR**

**USOA**  
Nekazari kooperatiba



MARTXEL LARRAZA, AIMAR IPARRAGIRRE, JAIONE IRIGOIEN ETA REBEKA ARANZADI

## Giro ederrean andremariak

Ekitaldi jendetsuekin eta oro har eguraldiak lagunduta besta bikainak izan dira. Esku pilota txapelketako finalak abuztuaren 17an jokatu zituzten. Haur eta gaztetxoek XXXII. txapelketa izan zen eta 28 pilotarik hartu zuten parte; VII. Aitor Danboriena Memorialean, berriz, hamar bikotek.

## Uso postuen enkante irekia larunbat honetan egingen du Udalak

### I. ELIZAGOIEN

Udalak enkante irekia egingen du aurtengo ehizaldirako Iarrendiko barrutian dauden 21 uso postuak errentan jartzeko. Enkantea Herriko Etxean egingen dute, larunbat honetan, irailak 8, 12:00etan, ahozko eskaintzaren bidez.

Esleitutako aprobetxamenduaren iraupena esleipenaren egunetik hasita 2018ko abenduaren 9ra bitarte izanen da. Egun horretatik aitzinera postuak desmuntatu ahal izanen dira. Baldintzak udal idazkaritzan eta udalaren web orrian daude ([www.etxalar.eus](http://www.etxalar.eus)).

# EDERKI tailerra



CITRÖEN  
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa  
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

**24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA**

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525





Joan den urtean liruilegiko Juana Marik bota zuen altxaferoa. MIKEL LARRETxea

## Larunbat honetan ospatuko dituzte Eguzkialdeko bestak

Herri-kirolak, auzotarren bazkariak, Beñat Mitxelenaren doinuek eta pintxo-jateak osatuko dute egitaraua

### NEREA ALZURI

Hitzorduari hutsik egin gabe, bestarako prest dira Eguzkialdeko auzotarrak. Larunbat honetan, irailak 8, ospatuko dituzte.

Egitarauari dagokionez, 12:00etan altxaferoa botako dute eta ondotik, herri-kirol saioa izanen da. Kirolarien

ikuskitunaren ondotik, 14:00etan, auzotarren bazkarian bilduko dira. Beñat Mitxelena herritar musikariak girotuko du arratsaldea eta kanta nahiz dantzarako aukera ederra izanen dute bildutakoek.

Ilunabarrean, pintxoak eskainiko dituzte.

Zure haurtxoaz arduratzen gara

**Josta Mendi Tikiak**

**Gipuzkoako eraskusketarik zabalena: sehaskak, konbertibleak, kotxeak, sillitak... Autoetarako aukietan adituak (probatu eta instalatzen ditugu)**

Letxunborro hirib. ,86 IRUN (bezeroentzako parking estalia)

[www.jostamendittikiak.com](http://www.jostamendittikiak.com)

maxibebé

## Hiru urteko zazpi ikasle hasiko dira ikasturte honetan

### N. ALZURI

Udako oporrak bukatuta, eskolako lagunek aste honetan hasi dute ikasturtea. Irakasleak aste hasieratik ari dira eta ikasleek ortzegun honetan, hilak 6, abiatuko dute ikasturtea.

Aurten zazpi ikasleek bukatu dute herriko eskolako ibilaldia

eta bertze zazpi neska-mutiko hasiko dira eskolan, hiru urtekoen gelan: Alain Esnal Teletxea, Aiert Baleztena Goñi, Ekaitz Mikelarena Taberna, Xuban Ugalde Pikabea, Maren Danboriena Errandonea, Ibai Ziluaga Iturria eta Beñat Ugarte Almandoz.



MIKEL LARRETxea, NEREA ALZURI, IGOR UGALDE

## Bestak eta Arantza Rock giro ederrean

Euskaraldiari keinu eginez, Monica, Isabel eta Daira euskara ikasleek botatuko altxaferoaren ondotik, era guztietako jarduerak izan ziren bestetan. Berriki erretiratutako Jose Ramon Amoros irakaslea ere omendu zuten. Arantza Rock-entzatek ere Gazte Asanbladatik eskerrak eman dituzte.





Eskolako ikasle-irakasleak Arberoa ikastolakoekin egindako bilkuran. OSKAR T.

## Ikasturte berria hasiko dute ortziralean eskolan

Berrogeita hamar ikasle hasiko dira eta plangintza estrategiko berria paratuko dute martxan

### TTIPI-TTAPA

Bi hilabete eta erdiko oporren ondotik, ortzirale honetan, irailaren 7an, hasiko da 2018-2019 ikasturtea herriko eskolan. Azken orduko aldaketarik ez bada, berrogeita hamar izanen dira lanean hasiko diren ikasleak. Mailaka horrelaxe egonen dira banatuak. Haur Hezkuntzako hiru eta lau urteko bederatzik ikasleak elkarrekin egonen dira; Haur Hezkuntzako bostz urteko zazpi ikasleak bertze talde batean egonen dira.

Lehen Hezkuntzako kasuan, lehenbiziko zikloko 13

ikasleak elkarrekin ariko dira; bigarren ziklokoak bertze talde batean egonen dira eta guztira, bederatzik ikasle izanen dira. Hirugarren zikloko 12 ikasleek osatuko dute azken taldea.

### Plangintza berria

Eskolatik adierazi digutenez, aurtengo ikasturtean plangintza estrategiko berria paratuko dute martxan: metodologia eta antolakuntza aldatuko dituzte. Eginen diren aldaketa guztiak eskola sozio-emozionala lortzera bideratuak daude.

## Herritar batek hartu du La Villa jatetxearen ardura

### TTIPI-TTAPA

Elizatean dagoen La Villa jatetxeak hilabeteak daramazki itxita. Inauterien ondoko egunetan utzi zuen Asier Iriartek, eta geroztik, noizbehinka bertzerik ez da ireki, Biltoki Elkartearen eskutik.

Bertan egin beharreko moldatze-lanak hasi bitartean denbora dezente joanen dela ikusita, urtebeterako atera zuen enkantean Herriko Etxeak, ordain sinbolikoaren truke. Epearen barrenean eskaintza bakarra aurkeztu da, Carlos Rius herritarrarena,



La Villa jatetxea. OSKAR TXOPERENA

eta, onartua izan denez, bera izanen da hurrengo urtebetean La Villa jatetxearen arduraduna. Beharra ikusiz gero, alokairua luzatzeko aukera izanen da.



OSKAR TXOPERENA

## Sarrolako fabrika bota dute

Uztail hondarraldera hasi zituzten lanak eta abuztuaren hasierarako lurrean zegoen eraikina. Halere, fabrikako aldagelen teilatua uralitazkoa denez, espreski lan horietan aritzen den enpresak erretiratu beharko du, amiantoaren erabilerak eskatzen dituen legezko baldintzak betez.



**Zure osasun zentroa Irun erdi-erdian**

centro médico  
osasun zentroa

**Bidasoa**

Lezo, 4 - 20301, IRUN  
Tel. : 943 63 39 74 - 943 63 40 38  
cmbidasoa@centromedicobidasoa.com  
[www.centromedicobidasoa.com](http://www.centromedicobidasoa.com)

**BERRIKUNTZA**  
Ginekologia, obstetrizia  
eta lagunduriko  
ugalketaren unitate  
berria Irunen.

**OSASUN-ZERBITZUAK**

- Kardiologia
- Familia eta Komunitateko Medikuntza
- Nutrizioa eta Dietetika
- Psikologia

**ZERBITZU KIRURGIKOAK**

- Kirurgia baskularra
- Kirurgia Orokorra eta Digestio-Kirurgia
- Obstetrizia-Ginekologia
- Otorrinolaringologia
- Traumatologia
- Urologia

**BESTE ZERBITZUAK**

- Podologia
- Erizaintza




**ZERBITZU NAGUSI, DIAGNOSTIKO ETA TERAPEUTIKOAK**



Antonio Alustiza txapela soinean bere txakurrekin. IÑAKI PORTO / NOTICIAS



Arburua -eskuinean- eta gazta erdia erosi zuen Leandro Gil. NEREA MAZKIARAN / NOTICIAS

## Nafarroako 18. txapela jantzi du Alustizak

Hirugarren postua ere beretzat izan da eta gazta lehiaketan Lekarozko Kortariko gasnak lehenbiziko saria lortu du

### TTIPI-TTAPA

Sei artzainek eta zortzi txakur- rrek parte hartu zuten abuztuaren 26an Uhartte Arakilen jokatu zen Artzain Txakur Txapelketan. Tartean zen Antonio Alustiza aresoarra, eta bertze urte batez, fin-fin moldatu zen. Jai txakurrarekin bere 18. txapela jantzi zuen Alustizak. Beretzat izan ziren txapela, trofeoa eta 230 euro.

Nafarroako txapelketa gehien irabazi dituen artzaina izaten segitzen du. Ez hori bakarrik, aresoarrak bertze txakur baten ere parte hartu zuen,

Askerekin, eta horrekin hirugarren postua eskuratu zuen.

Eskualdeko ordezkari gehiagok ere parte hartu zuten Uhartte Arakilgo saioan: Joxe Mari Istilart amaiurtarrak eta Jorge Oteiza oronoztarrak. Amaiurtarrak laugarren eta zazpigarren postuak lortu zituen, Bizkor eta Ttipi txakurrarekin. Oronoztarra, berriz, bosgarren gelditu zen, Arakil txakurrarekin. Gainerakoan, bigarren postua Aritz Ganboa (Arruazu) eta Sua bere txakurrarentzat izan zen, seigarren postua Antonio Uhartte (Uhar-

te Arakil) eta Argi txakurrarentzat eta zortzigarrena Jabier Fernandez (Otano) eta Kati txakurrarentzat.

### Gazta saritua

Artzain Egunaren barne, bertze hainbat lehiaketa egin zituzten. Tartean, gazta lehia-

**4.450 EURO  
ORDAINDU ZUTEN  
KORTARIKOEN  
GASNA SARITUA**

keta. Sari nagusia Lekarozko Kortariko gasnarentzat izan zen. Maddi Jimenez eta Julen Arburua ama-seekek hartu zuten saria: trofeoa, 800 euro, txapela eta kaikua. Gazta irabazlea enkantera ere atera zuten eta Hotel Muga de Belosokoek 4.550 eurotan hartu zuten. Urdazubiko bengotxeatarrak laugarren gelditu ziren gazta lehiaketan.

### Sarituak eta omenduak

Uhartte Arakilgo Artzain Egunetik sari gehiago ere etorri ziren eskualdera. Hala nola, Nafarroako ardi latxaren esne ekoizpenaren lehiaketan eta lehiaketa morfologikoan, bertzeak bertze, Urdazubiko bengotxeatarrak, Azpilkuetako Ramon Urrutia, Arizkungo Irigoien Remarte, Iturengo Isidro Bazterrika eta Donamariako Kontxi Bazterrika sarituak izan ziren.

Omenaldiaren tartean, inguruko hainbatek antolatzaileen oroigarria jaso zuten.



**PRIM, c.b.**  
Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

*gauko konfort-kuxina*



logurak  
www.logurak.com

Centro Prim    regina tolosaechepare




INDUSTRIA GARBITASUNERAKO  
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

**DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMEDUAK**

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

**facebook**

www.facebook.com/ttapi.eus





# BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta  
probextu aukerak!



**BIANDITZ**  
NEKAZARIEN ETXEA

**%5** DESKONTUA  
pentsu  
ekologikoetan

Zalain Ind. 5 | BERA  
T. 600 97 73 39

**bixkiak**  
KIROL ETA MODAKO  
GRUPU DENDAKO

**%5** DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA  
T. 948 63 81 10

**bortzirudi**

**DESKONTUA**  
**%15** Kamselatan  
**%10** gimnasia  
zuzentzen  
**%5** kopla, erkuozerazio eta  
plastifikaziotan 3€tik gora  
\*Auzokostutik kanpo

Eztegara, 26 esk. behea | BERA  
T. 948 63 15 21

**elika** Dietetika  
eta elikadura

**%5** DESKONTUA  
kontsultan

Itzea, 6 behea | BERA  
T. 948 63 12 83

**intzuri**  
OPTIKA

**%5** DESKONTUA  
produktu guztietan

Bittiria kalea, 28 | LESAKA  
T. 948 62 75 50

**Feri Sari**  
LAND

**%50** DESKONTUA  
sarreran  
**%10** DESKONTUA  
biolina eta  
pendulubetan

Irisarri, 1 | IGANTZI  
T. 948 92 89 22

**KATEA BIKE**

**%5** DESKONTUA  
konpanketan

Kanttonberri, 1 | BERA  
T. 948 63 12 18

**kattogorria**

**%10** DESKONTUA  
lentzerian

Behoko Plaza, 10 | LESAKA  
T. 948 62 75 14

**LIRAIN**  
ESTETIKA ETA ONGIZATE ZENTROA

**%5** DESKONTUA  
kosmetikan  
**DESKONTUA**  
oparietan 50€tik gora.  
Promozioetan ezik

Iparraldea, 1 | BERA  
T. 948 62 57 17

**LESAKAKO UDAL  
KIROLDEGIA**

**%40** DESKONTUA  
matrikulan

Komentu, 2 | LESAKA  
T. 948 63 74 00

**oreKa**  
nutrizioa eta dietetika

**%5** DESKONTUA  
kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA  
T. 948 63 73 73

**Ostargi optika**

**%5** DESKONTUA  
produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA  
T. 948 63 07 53

**HKpodologia**  
NORA MAIZA

**5€** DESKONTUA  
ibilkeraren  
azterketa digitalean

Legia, 42 | BERA  
T. 688 87 81 77

**Semper**  
arrazoaskola

**%10** DESKONTUA  
matrikulan

BERA | T. 948 63 02 98

**Semper**  
arrazoaskola

**%10** DESKONTUA  
matrikulan

LESAKA | 948 63 82 99

**ttipi-ttapa**

**%10** DESKONTUA  
eskeletan

Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA  
T. 948 63 54 58

**txinelka**

**%10** DESKONTUA  
erosketa  
guztietan

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA  
T. 948 63 75 94

**Urdu** Bera  
SERBIZIO ERREPESIBO 7 ANAKO DENDAKO

**%20** DESKONTUA  
urteko abonuaren  
matrikulan

Toki Ona Kiroldegia | BERA  
T. 948 63 02 15

**ze la**  
KIROLAK

**%5** DESKONTUA  
erosketa  
guztietan

Altzate, 6 | BERA  
T. 948 63 05 98

**ZU** lorendea  
dekorazioa  
osagarriak

**%5** DESKONTUA  
lore moztuan  
30€tik gorako  
erosketetan

Altzate, 33 | BERA  
T. 948 62 57 86



## Mendi bizikleta ibilaldia eginen dute igande honetan

Izen-ematea egunean berean egin beharko da eta kirolariek 30 eta 25 kilometroko bi ibilbide izanen dituzte aukeran

### MAIDER PETRIRENA

Herriko BTT taldeak antolatuta, mendi bizikleta ibilaldia eginen da igande honetan, irailak 9. Bi ibilbide prestatu dituzte: luzea, 30 kilometrokoa eta 1.200 metroko malda positiboa duena eta motza, 25 kilometrokoa eta 800 metroko malda positiboa duena. Lasterketa Ulibeltzak Elkartearen egoitzatik aterako da, 09:00etan.

### Izen-ematea

Izen-ematea egunean berean egin beharko da, 07:45etik 08:45era. Federatuek hamar

euro eta federatuak ez direnek hamabortz euro ordaindu beharko dituzte. Apuntatzen diren lehenbiziko 60 lagunek oparia hartuko dute.

### Oparien zozketak

Proba ez da lehiakorra izanen eta ibilbifean hornidura posu bat izanen da. Proba ondotik, dutxak eta mangerak paratuko dituzte parte-hartzailentzat eta gosaria ere eskainiko dute. Horrez gain, bizikleta bat eta bertze opariak zozketatuko dituzte parte-hartzaila guztien artean.



MAIDER PETRIRENA

## 33 kirolari Arretxekobordako igoeran

Besten atarian, VII. Arretxekobordako igoera egin zen eta bizikletan, Iker Irastortza eta Sara Sanzberro nagusitu ziren. Lasterka, berriz, Dani Iparragirre eta Leire Sanzberrok irabazi zuten. Jabier Jorajuria lehen herritarrek ere saria hartu zuen. Aurten, berrikuntza gisa, haurrentako igoera ere egin zuten.

	EGUNEKO MENUA SAGARDOTEGI MENUA KARTA OGITARTEKOAK PLATER KONBINATUAK ...
<b>ZUBIONDO</b> JATETXEA-SAGARDOTEGIA	T. 948 625 472 Alasta karrika · BERA zubiondojatetxea.com

## Giro ederra eta parte-hartze handia santiburtzioetan

Ramon Latasa Memorialean, 660 lagun bildu ziren, joan den urtean baino 220 ikusle gehiago

### M. PETRIRENA

Auzolan taldearen izenean, Luis Manterolak botatako altxaferoarekin hasi ziren ofizialki aurtengo santiburtzioak. Segidan bere taldekideek eta aurtengo kartel lehiaketa irabazi duten Kristina Elizondo eta Jon Ibarrak hartu zuten suzirien lekukoa.

Hala ere, txupinazoaren aitzinetik ekitaldiak izan ziren. Bertzeak bertze, frontenis txapelketako finalak goiz hartan jokatu ziren eta Xabier Lazkano eta Julen Juankorena izan ziren txapeldunak.

San Tiburtzio Egunean, eguerdian dantzariak saio polita eskaini zuten plazan eta arratsaldean, Ramon Latasaren omenez egin zen aizkora jaialdian, 660 lagun bildu ziren. Berrikuntza gisa, Beti Gazteko emakumeak lerro dantzetan

aritu ziren eta zezen-suzkoa karrikara atera zen.

### Aizkora jaialdi jendetsua

Abuztuaren 12an, jendetza hurbildu zen eskuz binakako pilota partidak ikustera. Jaialdiaren barne, Koteto Ezkurri omenaldia egin zion Ulibeltzak Elkarteak.

Biharamunean, lehian ibili ziren herritarrek. Toka txapelketan Eneko Ibarrak irabazi zuen, boneta jaurtiketan Xele Olaizolak eta zapatila jaurtiketan Unai Bereauk. Postre lehiaketan Maite Berasategi nagusitu zen eta patata tortillarrik onena Xole Gartziaarena izan zen. Gazteek ere ederki pasatu zuten peñaren egunean.

Hondarreko egunean, 27 lagunek parte hartu zuten txapelketan eta Maria Jesus eta Migel izan ziren irabazle.



Jende aunitzek parte hartu du bestetako ekitaldietan. M. PETRIRENA / J. APEZTEGIA





Larunbat goizeko ibilaldiaren ondotik, ostatzuz ostatu ibiliko dira.

## Motorzaleen besta eta besta ttikiak iraileko hitzorduak

Otorduak eta musikak ez dute hutsik egingen iraileko hirugarren eta laugarren asteburuan

### MARGA ERDOZAIN

Aitzineko urtetan bezala, aurtenean ere, iraileko hirugarren asteburuan motorren burrunbek alaituko dituzte karrikak. Larunbatean 10:00etan izena emateko aukera izanen da eta 11:00etan ibilbidea egingen dute. Ondotik, herriko ostuetan poteoan ibiliko dira eta bazkariarekin borobilduko dute goiza.

Arratsaldean, berriz, motorjokoak eta kontzertuak izanen dituzte. Mala Vela, New Straits eta Vane y su banda eta Dj Karmeloren musikak girotuko du herria.

Biharamunean, igandean, 10:00etan bilduko dira, ibilbideari ekiteko. Bueltatxoa eginganda, 11:30ean, indarrak berreskuratzeko, gosaria izanen dute. Asteburua opariaren zozketa egingez akituko dute.

### Besta ttikiak

Gazte Burrunbarean eskutik, hurrengo ortzirale eta larunbatean, irailaren 21ean eta 22an, besta ttikiak izanen dituzte herrian. Udari bukaera emateko aukerarik ez da faltako, beraz. Egitarau osoaren berri hurrengo ТТИПИ-ТТАПАН emanen da.

## Agorreta Musika Eskolak matrikulatzeko bigarren epea zabalik du

### MARGA ERDOZAIN

Urritik aitzinera, Agorreta Musika Eskolak ateak irekiko ditu. Akordeoi, gitarra, gitarra elektriko, perkusio, piano, trikiti-xa eta txistu saioak eskainiko dira. Hamabi urtetik goitikoek, gainerakoek ez bezala, musika-tresna ikasi ahal izateko ez

dute solfeoko klaserik jaso beharko. Izena eman nahi dutenek irailaren 14ra arte egin ahalko dute, matrikula egiteko bigarren epea zabalik izanen baitago. Interes dutenek inprimakiak eta argibideak [www.doneztebe.eus](http://www.doneztebe.eus) webgunean eskura ditzakete.

## IKA euskaltegiak matrikula irekita irailaren 28a arte

### MARGA ERDOZAIN

IKA euskaltegiak Mankomunitateak onartutako doakotasunaren programaren barrenean ekinen dio ikasturtari. 2018-19 ikasturteko matrikula epea zabalik dago irailaren 28a arte. Euskara ikasi, sakondu edo titulua eskuratu nahi

duenak bertan izena emateko aukera izanen du. Doneztebeko IKA euskaltegiak klase presentzialak eta online edo autoikaskuntzaren bidez eskaintzen ditu. Interesatuak 948 451555 edo [malerreka@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:malerreka@ikaeuskaltegiak.eus) helbidera idatziz eman dezakete izena.

## Automatizazio lanak egiteko, liburutegia itxita irailean

Gobernuak Avilako enpresa bati esleitu dizkio automatizazio-lanak egin ahal izateko irailean liburutegia itxiko dute. Bitartean, zerbitzuaren berri Herriko Etxeak emanen du. Informatizaziorako, Liburutegi Sareak 16.000 euro eta Udalak 5.000 eman dituzte.

## Ikasturtea martxan da, beharrezko obrak eginda

Irailaren 5ean hasiko dira Askin Haur Eskolako ikasleak; 6an San Migel eta Mendaur ikastetxeetakoak. Oporraldia baliatuz, Udalak, Gobernuaren laguntzaz, mantentze lanak egin ditu: ikasgelak egokitu, komunak zaharberritu, larrialdietarako atekak aldatu...



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Udako irudi 'izoztuak'

Udak argazki aunitz utzi ditu: ludotekan guztira 42 haur bildu dira eta Udako Kirol Eskolan ederki pasa dute. Bisitak ere izan dituzte, eta Turismo Bulegoko datuen arabera, balorazioa «ona» izan da: «1.400 bisitari inguru hurbildu dira informazio gunera».



Eskualdeko herritarrei herri-kirolak jokatzeko deia egin diete. UTZITAKO ARGAZKIA

## Herriko festen ondotik urriko ospakizunera begira

Gazteek eskualdeko herritarrei herri-kirol desafiaoa bota nahi izan diete

### FERMIN ETXEKOLONEA

Joareak eta musika, haur jokoak, herri-kirolaketa mahai-inguruko otorduak... izan dira abuztuko protagonistak herrian. Batzuk akituta besteei begira hasiak dira herritarrak. Urriaren 13an Euskararen Eguna izanen dute.

Gazteak antolatze-lanetan ari dira eta aurtengoan bezperan egin ohi duten ilunabarreko pintxo lehiaketaz gain, badute beste zerbait antolatzeko asmorik. Urriaren 12an, jaieguna izaki, egitaraua osatzeko aukerarik ez dute galdu nahi.

### Mikel Indakoetxea II. Mailako Aizkora Txapelketan ariko da

Arantzako pilotalekuan jokatu zen II. Mailako Aizkora Kanporaketan bosgarren izan zen Mikel Indakoetxea. 08:39:34 behar izan zituen bi kanaerdiko eta 60 ontzako bat ebakitzeke. Hala, hilaren 30ean Igantzin jokatu den finalerako txartela lortu du herritarrak.

### Aurkari bila

Egun handia, ordea, urriaren 13an, larunbatean, izanen da. Bileraz bilera dabilta gazteak, eta eskualdeko herritarrei erronkarako deia egin nahi izan diete, herri-kirol desafiaoa proposatuz: «ohiko herri-kirol probak egiteko (koxor biltzea, lasterka, txingak...) eskualdeko herritar talde bati desafiaoa bota nahi diegu. 14 lagun behar ditugu, emakumezko zein gizonetzko, gazteak edo helduak larunbat goiza giro ederrean pasatzeko prest daudenak. Harremanetarako: 616 181990 edo 609 228926».

### Yoga ikastaroa, urrian hasita asteazkenero

Ana Tovarren eskutik, urrian hasita, asteazkenero, yoga ikastaroa eskainiko da herrian. 18:30etik 20:00etara bitarte izanen dira saioak, eskolan. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko 679 210910 telefonora deitu behar-ko dute.



IZASKUN ZUBIALDE

## Festa parte-hartzaileak aurtengoak

Bezperako zortzikoak, Amabirjin Eguneko aizkora apustuak, Ortzadar taldearen emanaldiak, pilota partidek... jendetza erakarri zuen. Herri-bazkarian joan den urtean baino gehiago bildu dira eta herri-krosean, herri-kiroletan zein beste lehiaketetan gozatu aritu dira herritarrak.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Atxerreko Gazteluan izan dira

Festa aurreko asteburuan, azken urteetako ohiturari hutsik egin gabe, herritar mendizaleen hitzordua izan zuten. 16 lagun bildu eta Huescako Atxerreko Gaztelura (2.384 metro) joan ziren. Eguraldi ederra lagun, paraje ikusgarriez gozatzeko aukera izan zuten.





Goizean baserriz baserri ibiliko dira. IXIAR BAZTERRIKA

## Joareen bueltan urteroko hitzordua hilaren 22an

Bazkariko txartelak Herriko Ostatuan egonen dira salgai irailaren 10etik 18ra bitarte

### ARKAITZ MINDEGIA

Udan han eta hemen barna ibili ondotik, joaldunek herrian izanen dute hurrengo agerraldia.

Izan ere, urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, irailaren 22an, larunbatean, Joaldun Eguna ospatuko dute. Egun osoko egitaraua presta-

tu dute, herritar eta bisitarien gozamenarako.

### Egitaraua

10:00etan joare hotsek eta herriko trikitilarien doinuek ernaraziko dute herria eta baten eta bertzearen soinuak tartekatuz, baserriz baserri ibiliko dira.

13:30ean, herri-kirol zaleek, aizkora apustua izanen dute ikusgai. Segidan, Mendiluze eta Sarriegi bertsolariek hartuko dute lekukoa. 15:00etan bazkarian bilduko dira, herriko plazan.

Arratsaldez eta gauez Oihana eta Oihanak girotuko dute herria, nahi duenak dantzarako tartea izanen duelarik.

### Bazkarirako izen-ematea

Bazkariko txartelak Herriko Ostatuan izanen dira salgai heldu den astelehenetik, irailaren 10etik, hasita hilaren 18ra bitarte erosi ahal izanen dira, 35 eurotan. Epez kanpo izena ematen dutenek, berriz, 40 euro ordaindu beharko dute.

## Txikitixa eta pandereta ikastaroa eskainiko dute

Urtero bezala, aurten ere, trikitixa eta pandereta ikastaroa eskainiko dute herrian. Ikastaroan parte hartu nahi dutenek irailaren 7a, ortziralea, arte eman dezakete izena. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko 646 298568ra deitu beharko da.

## Maika Ariztegi Euskal Herriko txapeldun

Pasa den abuztuaren 8an Getarian jokatuako lehia Maika Ariztegi herritarrek laugarren aldiz irabazi zuen Euskal Herriko ingude-jasotze txapelketa. Minutu batez 93 aldiz jaso zuen 10 kiloko ingudea, Karmele Gisasolari altxaldi bateko alde ateraz. Elur Alberdi, Garazi Arruti eta Aiora Otazu izan ziren ondoren sailkatuak, hurrenez hurren. Lerro hauen bidez herritarrek eskainitako ikuskizunagatik zoriondu nahi izan dute. Joaldunen Egunean ingudea utzi eta aizkora hartuko du.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Udako merkealdia**

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toaillak  
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634





Eratsungo peña bakarra iazko festetan. UTZITAKO ARGAZKIA

## Lau eguneko pestak prest asteburu honetarako

Ostiralean aizkora apustua eta pilota partidak izanen dituzte eta larunbatean, mariatiak eta Nafarroako jotak

### TTIPI-TTAPA

Lau eguneko pestak prestatu dituzte aurten Eratsunen. Egun handian aizkora apustua eta pilota partidak izanen dituzte.

### IRAILAK 6, OSTEGUNA

20:30ean txupinazoa, pestei hasiera emateko. 21:00etan afaria (Eratsungo zopak), Oihana eta Oihana trikitilariekin.

### IRAILAK 7, OSTIRALA

10:00etan mus txapelketa. 12:00etan aizkora apustua: Palaxio eta Vicente/Saralegi eta Kañamares. 16:00etan mus txapelketako finala. 17:30ean pilota partidak. Lau eta erdian, Anso-Elizalde. Binaka: Patri Espinar eta Oihana Orbeagozo, Maite Ruiz de Larramendi eta Eneritz Arrietaren kontra. 19:00etan Elietxe ostatuan kantatu ekitaldia Kantez taldearekin. Arratsalde eta gauz

dantzaldia Gabenara taldearen eskutik.

### IRAILAK 8, LARUNBATA

11:00etan Meza Nagusia Lo-kariko Amabirjinaren ohorez. 12:00etan etxe etxe kalejora Ilunberriko txarangak alaitua. 14:30ean herri bazkaria. 17:30ean Cazahuates mariatiaren saioa. 20:00etan Nafarroako Jotak Voces Navarras taldearen eskutik.

### IRAILAK 9, IGANDEA

Goizez eta arratsaldez umeentzat puzgarriak. 12:00etan tortilla lehiaketa eta sagardo eta txistorra dastaketa. 12:00etan pilota partidak. Lau eta erdiaren barrenean, Roldan-Arribillaga. Binaka: Anso eta Olaizola III/Oroz eta Gaskue. 19:30etik 21:00etara dantzaldia Oihana eta Oihanarekin.



AMAIA ODRIOZOLA

## Donamariako bestak berrikuntza eta guzti

Ohiko ekitaldiez gain, gazteek egokitutako gazte gunean hainbat berrikuntza antolatu zituzten programa ofizialekin kanpo: *kabata* lehiaketa, aitzur, zapel eta kupel tiraketa, gazta hartzea, sokamuturra... Ekitaldi horiekin gustura gelditu zen jendea eta hori agerikoa izan zen jendearen erantzunean.



JAIONE ZABALO

## Ezkurrako pestak giro ederrean

Herriko txikiek botatako altxaferoarekin hasi ziren Ezkurrako pestak eta hortik aurrera pesta nagusitu zen. Funbox Factory Freestyle ikuskizuna, hurren jokoak, batukada, aizkora jaialdiak, mus txapelketa, herri bazkaria, mariatxi taldearen emanaldia... ekitaldi guztiek beraien xarma izan zuten.





Ekzerrean, bestetako herri-bazkaria eta eskuinean, orain dela urte batzuetako bestetako sokatirako saioa. UTZITAKOAK

## Asteburu honetarako besta dotoreak prestatu dituzte

Igande eguerdian aizkora apustua izanen da eta ondotik bertsolariekin eta Agerralderekin herri-bazkaria egingen dute

### TTIPI-TTAPA

Ortzirale arratsaldetik igande arratsa bitarte, irailaren 7tik 9ra, bestak ospatuko dituzte herrian, eta hiru egunetarako haur, gazte eta helduendako hainbat ekitaldi prestatu dituzte.

### IRAILAK 7, ORTZIRALEA

18:00etan haurrek hartuko dute besten lekukoa eta jokoak izanen dituzte. 20:00etan herriko trikitilariak herrian barnak kalejiran ibiliko dira beste hasiera emanez. Afaltzeko zopak izanen dira Herriko Ostatuan. 00:00etatik aitzine-

ra DJ Lander ariko da plazan musika paratzen.

### IRAILAK 8, LARUNBATA

11:00etan Meza Nagusia izanen da. Ondotik, luntxa eskainiko dute Herriko Ostatuan. 12:00etan mus txapelketa jokatuko dute. 16:00etan gazte-txoen laxoa txapelketako fi-

## EGUNERO HAURRENDAKO PUZGARRIAK PARATUKO DITUZTE

nala jokatuko da. 18:00etan gazteen laxoa txapelketako finala jokatuko da. Gero, sari banaketa egingen dute. Arratsalde eta gauetz dantzaldia izanen da Gabenara taldearekin.

### IRAILAK 9, IGANDEA

12:00etan aizkolariek apustua jokatuko dute plazan. 14:00etan bertsolariekin batera mahaiairen bueltan bilduko dira herritarrak, herri-bazkaria egingen baitute Jon Maia eta Amets Arzallus bertsolariekin eta Agerralde soinulariarekin. Ondotik, toka eta sokatira txapelketak jokatuko dituzte. Arratsalde eta gauetz Agerralde soinularia arduratuko da plaza ingurua alaitzeaz. 21:00etan patata tortilla lehia-keta izanen da eta segidan, berendu-afaria egingen dute. Gauerdian *Gaixoa Ni* kantatuz emanen diete beste bukaera.

Udaletik jakinarazi dutenez, bestetako hiru egunetan puzgarriak paratuko dituzte.

## Euskara ikasten ari diren helduendako diru-laguntzak

### TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitateak euskara ikasten ari diren helduendako diru-laguntza deialdi bat argitaratu du. Diru-laguntza horien bidez 2017ko urriaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra bitarte egindako ikastaro estentsibo, trinko, barnetegi edo on-linekoen matrikula-gastuak diruz lagunduko dira. Bertzeak bertze, ikasle, langabetu eta erretiro-pentsiodunek matrikula gastuaren %30a jasotzeko aukera izanen dute. Gainerakoek, egoera ekonomikoaren arabera, matrikularen %50a edo %80a kobratu ahal izanen dute. Eskerak aurkezteko epea irailaren 25ean akituko da

### Baldintzak

Laguntza Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako herritarrendako izanen da eta guttienez 16 urte izatea ezinbertzekoa izanen da. Laguntza jasotzeko ikastaroan asistentzia %85etik goitiko izatea ere beharrezko baldintzetako bat izanen da.

Informazio gehiago nahi duenak Malerrekako Euskara Zerbitzura deituz (948 451746) edo [euskarazerbitzua@malerreka.infolocal.org](mailto:euskarazerbitzua@malerreka.infolocal.org) helbidera idatziz eskuratu ahalko du.

**OITZEKO OSTATURA**

ongi pasa bestak!

Eguneko menuak, asteburuko menuak, menu bereziak (enkarguz), plater konbinatuak, bokatak eta errazioak.

**Irailaren 7an zopak. Erreserbak egin daitezke.**

Karrika bakarra, 43 · T. 948 11 05 66 · 31751 Oiz

**Oizko Udala · NAFARROA**

**Oizko Udalak besta zoriontsuak opa dizkie herritar eta bisitari guziei**

**ORBELA**  
SENDERISMOA ATERPETXEA

**BEINTZAKO OSTATURA**

Idoia · Mikel  
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN  
[info@orbela-beintza.com](mailto:info@orbela-beintza.com)  
[www.orbela-beintza.com](http://www.orbela-beintza.com)

**ttipi-ttapa**

T. 948 635 458  
[erran.eus](http://erran.eus) | [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

## Epaitegietan akitu zuten bertsoak

1916an Txirrita eta legasarrak bat akusatuen aulkira eraman zituzten Malerrekan eta Bertizaranan zabaldu ziren bertso batzuk tarteko. Horren inguruko ikerketa lan mardula egin du Mikel Taberna alkaiagarrak, eta Bertsolari aldizkariaren udako zenbakian argitaratu dute

### TTIPI-TTAPA

*Txirrita epaileen jomugan (Legasa 1913 - Iruñea 1916).* Izenburu horixe duen ikerketa egin du Mikel Taberna Irazoki alkaiagarrak, eta Bertsolari aldizkariaren uda honetako zenbakian argitaratu dute. Ehun urte baino gehiago dituzten kontuak dira, baina dudarik gabe bere garaian zalaparta haundia eragin zutenak, epategian akitzera.

Tabernak ustekabe egin zuen gaiarekin topo: «ez zen hau landu nahi genuena, bertzere zerbaite genuen burutan». 2015eko azaroa zen Diario de Navarra egunkariako hemerrotekan begira zebilenean: «amautxi Margaritaren anaia-aren gaineko datuak bilatzen ari nintzen» baina bere sorpresa arako «zerbait berezia» eta «harrigarria» aurkitu zuen 1916ko urriaren azken eguneko egunkariaren hirugarren orrialdean; Txirrita bertsolaria eta Tomas Alcaine legasarra akusatuen aulkian jarrarazi zituen auzia.

### Alkatearen kontrako bertsoak

Alcainek eskatuta, Txirritak 14 bertso idatzi zituen Legasako orduko alkatea zen Eusebio Babazeren kontra, eta bertso-paperak Donezteben saldu ziren, 1915eko bestetan. Egunkariako kazetariak [pezetaren] «hamar zentimotan» saldu zituztela eta jendeak «aski gustura» erosi zituela adierazi zuen. Tabernaren arabera, «bertsoen jomuga zen gizonak, sumindurik, auzitara eraman zituzten Txirrita eta Alcaine». Bakoitzari bi delitu egotzen



Mikel Taberna Bertsolari aldizkariaren azken zenbakia eskuetan. UTZITAKOIA

zizkion akusazioak: irainak eta kalumniak. Epaiketaren sententzia 1916ko azaroaren 6an atera zen eta horri buruzko berria handik guttira argitaratu zuen egunkari berak, azaroaren 10ean. «Kalumnia egitetik absolbitu zituzten, baina irainengatik kondena paratu zieten bi akusatuei, biei berdin: deserriratze pena, 250 pezetako isuna, eta prozesuko kostuaren erdia erdibana ordaindu beharra».

**14 BERTSO EGIN ZITUEN TXIRRITAK ALKATE ZENAREN AURKA**

Epaiarekin konforme ez, eta legasarrak Iruñeko Epaitegiko epaia Auzitegi Gorenean errekurritu zuen. Gorenak, ordea, Iruñeko epaia berretsi eta ez zion arrazoirik eman. Txirritak ez omen zuen helegiterik jarri baina Tabernak 1917ko agiritan aurkitu zuenez, «Txirritarekin ezin izan zuten gauzatu epaia, ez zutelako harra-patu». Gerora, 1918ko maiatzaren 21ean emandako autoan bi akusatuak kaudimengabeak

**GOGOTIK SAIATU ARREN, EZ DITUZTE JATORRIZKO BERTSOAK TOPATU**

zirela ebatzi zen eta ezin ziotela erantzun diru-ondasunen bidez epaiak eskatzen zienari. Horren partez, deserriratze pena handitu zieten.

### Legasarren arteko gatazka

Tabernaren ikerketan agerienez, 1913ko abuztuaren 3ko arratsean, Babaze alkatea etxean zela, kanpoan oihu batzuk adituta leihora atera zen. Tomas Alcaine eta Frantzisko Mendiola ikusi zituzten, eta Pedro Hualderen boza ere aditu omen zuen. Handik guttira, eztanda handi bat sumatu zuen etxe parean. Biharamunean, bezperan norbaitek dinamita edo gisako zerbaite leherrarazi ziela, eta Sunbilla-ko guardia zibilen kuartelean salaketa paratu zuen. Herriko hiru lagun salatu zituzten: Tomas Alcaine, Pedro Hualde eta Frantzisko Mendiola. Alkaiagarrak dioenez, «bazituen motiboak pentsatzeko haiek izaten ahal zirela gaiztakeria egin zutenak, aste pare bat lehenago isuna paratu zielako hirurei».

Auziak bere bidea egin zuela dio Tabernak Bertsolarin argitaratu duen erreportaje, baina epaileak kasua itxi egin zuen epaiketarik egin gabe, ez zelako jakiten ahal nor izan ziren dinamita paratu zutenak. Auzia zigorrik gabe gelditua-gatik, ez zen hor akitu tirabira, alkatearen kontra bertsoak eskatzeak are ondorio handiagoa ekarri baitzion Alcaineri.

### Jatorrizko bertsoak ez

Han eta hemen bila eta galdeka ibili bada ere, Tabernak ezin izan ditu jatorrizko euskarazko bertsoak aurkitu: «gogotik saiatu gara bilatzen, baina ezin izan diogu begirik eman inon. Sinetsiak gaude nonbait agertuko direla». Gaztelaniazko bertsoak eskura ditu, 1916ko azaroaren 6ko epai hartatik bilduak, eta horietatik abiatuta, Miren Ibarluzea bertsolari eta itzultzaileak euskarara ekarri ditu bertsoak. Ondoko orrialdean daude.



## Bertsoak

Mila bederatziehun eta hamalau garren urtean kasu bitxi bat gertatu zaigu legasatarren artean. Eta aurkitu garenerako muturraren muturrean, zer gaude ba pazientzia dosi handi baten beharrean!

Egun Legasan bada urroztar bat Eusebio du izena. Galoirik gabe dago gaixoa, lehen jefea izan zena. Ondo sufrituaren traza du, ez baita oso gizona. Hitz batez da gizon bat nirekin lehendik sapan dabilena.

Aldiz nik ez dut pausorik eman ez dena endredatzeko. Konfiantzazko etxea nuen baita gutunak leitzeko. Baina behin pezeta kendu zidan gizonak multa ordaintzeko, ta intentziorik ere ez du egin inori entregatzeko.

Hau ona! Arrazoa zanpatu eta nahigabetu ordez, gizona harrotuta jartzen da gurekin kopeta beltzez. Han agertzen da bizkitartean multak beretzako gordez. Beste askorekin egin bazuen, gurearekin nola ez!

Notario-fiskal ustekoa! Etsai laguntzat nuena! Multak kobratu beharrez presak hartuta ibiltzen zena indarka bota dugu udaletik eta itzuli du dena. Guk uste dugu horixe dela bukatzeko bide onena.

Ez nuen egundo pentsatuko hala gertatuko zenik. Baina hala jarduten hasita bada diferentziarik. Errugabeak zigortuz pozten zenak gu ere iraindu nahirik, anuntzio bat jarri ez zuen ba arrotz ginela esanik!

Berrogeita hamar urte luze da bizi garela Legasan, jakina denez aspaldidanik itzal egiteko trazan. Errezu Jaungoikoak zenbaiten migi gaiztotik gorde gaitzan! Hitz faltsuz kargatu baikaituzte Kristorekin egin gisan.

Dinamita jarri ziotela esan eta esan berak. Ta ondorioz frijitu gaitu ospe txar eta galerak. Baina fastidio handiena hari sortu dio aferak, ezen ordaindu behar izan ditu hondatutako platerak.

Guardia Zibilak deklaratzera deitu gintuen lehenbizi, ta gure ibilera denen berri jakiteko azaltzen hasi. Baina azkenerako norbaitek zuen han jakinarazi haren ustetan ez genuela guk kastigurik merezi.

Guardia Zibilek Sala del Vallen juen aurrera entregatu gintuztenean Echandi jaunak, hitza hartuta, aurkeztu zuen konpetentziaren faltan nahi zela desenkusatu, eta agera Iruñaldean behar zutela aztertu.

Iruñera bidali gintuen juezak dena ikusita, han erabaki zezaten auzi hau ulertu ta ikasita. Han dena izan genuen aldeko, beldurrak kanpo utzita. Gizona, nahastetan zertan sartu kalte guztiok bizita?

Estimatzen da adiskide batek karta batez esatean hari deitzeko geldiaraziz geri Iruñea partean. Bere influentzien indarrak erabilita tartean, libre jarriko gintuzkeela egun erdiko epean.

Berandutu zitzaigunez gero hura joana zen handik. Ezin egundo ondo ibili okerreko bidetatik! Hango juezak ezin esan edan zuela gure poltsatik, dena atera baitzen dagokigun gizonaren azaletik.

Espero gisa gure lanera itzuli gara sikira! Gizonak zenbat galdu ote duen jendearen ikusmira! Jarri gaitzen kasu honetan gertatuari begira: gure Tomas, Pedro eta Frantzisko orain deskantsatu dira.



Bertizko Natur Parkea. ARTXIBOKO ARGAZKIA

## Ate irekien eguna irailaren 16an Natur Parkean

Hurbiltzen direnek egun osoan Lorategi Historiko Artistikoa dohainik bisitatzeko aukera izanen dute

### TTIPI-TTAPA

Bertizko Natur Parkea ezagutu eta bertan gozatzeko aukera eskainiz, aurten ere ate irekien jardunaldia antolatu dute Nafarroako Gobernuak eta Bertizko Natur Parkeak irailaren 16rako.

Goizez eta arratsaldez ekitaldiak prestatu dituzte. 10:30ean landare exotikoek sortzen dituzten kalteen inguruko azalpenak emanen dituzte eta ondotik, landare horiekentzeko aukera izanen du nahi duenak. 11:00etatik 11:30era Markategi inguruan aurten zabaldu duten hegaztiak behatzeko etxolako (*Hide*) atea zabalduko dituzte. Horrez gain, 11:15ean lorategian antzeztutako bisita gidatua antolatu dute.

12:30ean Andoni Esparza Leibarrek solasaldia eskainiko du *Bertizko Jaurerriko Historia* izenburupean. Gisa berean, Bertizko Jaurerria liburuaren hirugarren argitalpena aurkeztu nahi dute.

17:00etatik 18:00etara animalia basatiekin egingen den ingurumen tailerren parte hartzeko aukera izanen da

Trikuharraren eskutik. 17:30ean lorategian antzeztutako bisita gidatua eskainiko dute.

### Argazki lehiaketako sari banaketa

*Bertiz Jaurerriko Natur Parkea* izeneko argazki lehiaketa ere antolatu dute aurten bigarren aldiz, eta sari banaketa 18:30ean egingen dute.

Bi sari banatuko dituzte. Alde batetik, epaimahaiak aukeratutako argazkiak 300 euro hartuko ditu eta bertzetik, bisitariak aukeratutakoak 200 euro. Lorategi Historiko Artistikoa sartzen diren bisitariak izanen dute botoa emateko aukera. Irailaren 8tik 15era bilduko dituzte botoak, baita ate irekien egunean ere, irailaren 16an, goizez.

Eguna borobiltzeko, lehiaketako sariak banatu ondotik, Doneztebeko Mendi abesbatzak kantaldia eskainiko du.

Jarduera horiek guztiak dohainik izanen direla adierazi dute antolatzaileek. Horrez gain, Lorategi Historiko Artistikoa dohainik bisitatzeko aukera ere eskainiko dute irailaren 16an.

# ARKUPEAK



Giro ederra izan zuten Urdazubiko mendi irteeran. FERNANDO ETXEBERRIA

## Hainbat ateraldi egin dituzte udan elkarteko bazkideek

Urdazubin izan ziren uztail hondarrean eta ibilaldiaren ondotik Dantxarinean bazkaldu zuten

### FERNANDO ETXEBERRIA

46 mendizalek, plazatik abiatuta, ibilaldi ederra egin zuten Urdazubin. Zikiroteiko bordan barrena, Elortzara joan ziren eta hortik, Otxondo Txikitik pasata, Otxondora ailegatu ziren. Bertan gosalduta, Goizamendirantz jo zuten. Justoin, Casilda eta Telleriko baserri

ondotik, herriko plazara itzuli ziren. Dantxarinean bazkaldu zuten eta Tomas eta Juan musikarien eskutik, dantzarako tartea izan zuten gero. Mendizaleek, lerro hauen bidez, Urdazubiko kideek bideak txukuntzen eginiko lana eskertu nahi izan dute.

## Mediterraneoko itsas-bidaia izan dute abuztuan

### FERNANDO ETXEBERRIA

Abuztuaren 7ko bilkuran azken xehetasunak lotuta, hilaren 17an itsasoratu ziren elkarteko 61 kideak.

Napoles, Civitavechia, Livorno, Niza, Sete... bisitatzeko aukera izan dute bidaiariek. Horretarako hainbat ateraldi antolatuak zituzten, bisita gidatuz hornituak.

Horietan parte hartu nahi ez zuenak bere kabuz ibiltzeko aukera ere bazuen. Itsasontzian arduradun bat izan dute bidaia osoan eta parte-hartzailekegonaldian zehar

(gehiago ordaindu gabe) bazkariak, edariak eta gisa guztietako instalazioak erabiltzeko aukera izan dute.

### Bidaia eta ateraldi gehiago

Abuztuko bidaia honen ondotik, azaroan Kanarietara joateko asmoa dute elkarteko hainbat kidek.

Oraindik zenbait kontu zehazteke dituztenez, hurrengo zenbakietan bilduko da bai bidaia horren nondik norakoen berri, bai eta Mendi irteera batzordeak antolaturiko ibilaldien berri ere.



FERNANDO ETXEBERRIA

## Aralarren izan dira elkarteko 228 kide

Elkarteko 228 kide Aralarren ospatu zen Aitatxi-Amatxien Egunean izan ziren. Eguerdiko meza aditu ondotik, Gorraizen bazkaldu zuten eta Joseanen musika lagun, giro ederra izan zuten bazkaldoan. 19:00etan hartu zuten bueltako autobusa.



FERNANDO ETXEBERRIA

## Petretxemara joan dira mendizaleak

28 mendizale Erdialdeko Piriniotan dagoen Petretxema mendian izan ziren. Eguraldia lagun, bertako parajeez gozatzeko aukera izan zuten. Ondotik, elkarrekin bazkaltzeko aprobetxatu zuen taldeak. Hala, 16:00 aldera egin zuten etxerako buelta.



# Txirrindularitza eskolak antolatuko dituzte

Baztan-Bidasoko herriarteko txirrindulari gazteen topaketak ere egingen dituzte, irailaren 9an eta 15ean

## TTIPI-TTAPA

Orain dela hilabete batzuk, txirrindularitza eskolak berreskuratzeko asmoz, Baztandarra, Erreka, Sunbilla, Beti Gazte eta Gure Txokoa txirrindulari elkarteetako lagun talde bat bildu zen.

Egungo egoeraz hausnartu ondotik, Baztan-Bidasoko herriarteko txirrindulari gazteen topaketa batzuk antolatzea erabaki zuten. Taldekideen arabera, «garai batean eskualdeko herri gehienetan haurren txirrindularitza lasterketak antolatzen ziren». Bertzeak bertze, Irurita, Elbete, Elizondo, Doneztebe, Lesaka eta Berakoa dituzte gogoan. Bizikleta zaleek «ez horren urrutiko garai horiek berreskuratzea» dute helburu. Eskaria ikusirik, hasieran mendi bizkiletarekin hasiko dira «eta lasterketetan parte hartzen duten neska-mutilak txirrindularitza eskolan izena ematera animatuko ditugu» diote.

## Irailen bi topaketa

Hasteko, irailerako bi topaketa antolatu dituzte. Hilaren 9an, Baztandarra taldearen eta Elizondoko Herriaren eskutik, igandean Elizondon dute hitzordua. 17:00etan abiatuko dira, Txokotoko zubitik. Irailaren 15ean, berriz, Beran elkartuko dira, 16:30ean, Matzada futbol-zelaitik.

Bi topaketetarako mailak eta distantziak honakoak dira: haurrek (2004/2005ean jaiok) 6 km; kimuek (2006/2007) 4 km; benjaminek (2008/2009) 2 km; eta aurrebenjaminek (2010etik aitzinera jaiotakoak) kilometro inguru.



Topaketen helburua kirola egitea da; beraz, sailkapenik ez da izanen. ARTXIBOKOA

DENA  
ERRAZAGOA  
DA HURBIL  
BAZAUDE

RURAL KUTXA



## Sagardo Txapelketa Herrikoia irailaren 15ean herrian

Afariko txartelak Amaia kafetegian eros daitezke irailaren 13a arte, 26 eurotan

### TTIPI-TTAPA

Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen eskutik, Euskal Herriko IV. Sagardo Txapelketa Herrikoia irailaren 15ean. Larunbatean, hilaren 8an, Beasainen abiatuko da txapelketa eta Goizuetako hitzorduaren ondotik, Oñatin eta Urnietan izanen du segida, irailaren 21ean eta 22an, hurrenez hurren. Finala irailaren 29an izanen dute, Usurbilen.

Finalaurrekoetan txapelketan parte hartzen duten sagardo guztiak dastatu ahalko dira. Finalaurrekoetan, kanporaketan ondotik sailkatutako 12 sagardo ez gozatzeko aukera izanen dute sagardozaileek.

Hilaren 15ean hitzorduan lekua hartu, sagardoak dastatu eta iritziak emateko izena



Finala irailaren 29an izanen da.

emateko, afariko txartelak Amaia kafetegian eskura daitezke. Irailaren 13a, osteguna, arte erosi ahal izanen dira eta kopurua mugatua da. Menuari dagokionez, hasteko, basatxerri urdaiazpikoa eta txorizoa zein entsalada izanen dute; ajoarrieroa eta solomo burua jarraitzeko; eta Idiazabal gazta sagar gozoarekin bukatzeko. Kafea eta kopa barne, 26 euro ordaindu beharko dituzte.



JEXUX MARI APEZETXEA

### Giro ederra Artikutzan

Urteroko hitzorduarekin bat eginez, jendetza bildu zen Artikutzan abuztuaren 28an. Herriarrek ere ez zuten egun-pasa eder bat egiteko aukera galdu eta bildutakoek artisau postuetan ibiltzeko, pilota partidak ikusteko eta erromerian dantzan ibiltzeko aukera izan zuten.



FELIX LOIARTE

### Umore ona festetan nagusi

Bost egunez musikaz eta ekitaldiz hornitutako festak izan dituzte Goizuetan abuztuaren. Jende dezente bertaratu da aurtun ere. Umore ona izan da aurtengoan nagusi, bai afari herrikoian, bai ostrialeko dantza emanaldian, baita kalejiretan ere.

### Gripearen eraginez, 1918an 30 lagun hil ziren herrian

#### TTIPI-TTAPA

Josu Arrietak bildutako datuen arabera, duela mende bat, tenore honetan herria gripeak jota zegoen. Urtebetean 30 lagun hil ziren herrian, haurrak eta gazteak gehienak: bost baino ez ziren hirurogei urtetik goiti zituztenak; 10 haurrak

eta 15 gazteak. Hilezkortasun tasa %23ra igo zen, aitzineko urtekoa bikoiztuz. Hildako gehienak irailean (14 egunez hil ezkilak entzun ziren) eta urrian izan ziren. Aranon ere lau hildako utzi zituzten (1-33 urte bitartekoak). Egundik horren oroimen eta arrastorik ez dago.

### Elkartasuna Elkartearen harira, bilkura hilaren 7an

Egun Udalak kudeatzen dituen Elkartasuna Elkarteko ondatsunak eskumen osoz kudeatzera pasatzeko, Elkartasuna disolbatu nahi dute. Bide hori nola egin nahi duten azaltzeko Udalak bilera informatiboa antolatu du. Hilaren 7an, 18:30ean, eskolako jangelan.

### Ikastaroak eskaini nahi dituztenentzat izen-ematea irekita

2018-2019 ikasturtean udal ikastaroetan ikastaroren bat eskaini nahi duten irakasleentzat izen-ematea zabalik da dagoeneko. Irailaren 7ra, ostiralera, bitarte aurkez daitezke proposamenak, udaletxean, nondik norakoak, ordu kopurua, prezioa... zehaztuz.



## Ulizar mendiko kobazuloan Burdin Aroko hiru pegar aurkitu dituzte udan

### TTIPI-TTAPA

Duela lau urte hasi ziren Leitzarango historia eta kultur ondarea balioan jarri eta zabaltzea helburu duen Burdina taldekoak herrian ezaguna den kobazuloan lanean, Aranzadi zientzia elkartearekin. Herritarren laguntza ere jaso

dute eta guztien artean egin-dako lanari esker kobazuloa ageriko egiteaz gainera, hainbat aurkikuntza egin dituzte. Aurtengo udan, duela 3.000 urteko pegarrak aurkitu dituzte. Oraingoz, ez dakite bigarren fase bati ekiterik izanen duten.



JAIONE OLAZABAL

## Bost egunez gozamina nagusi

Haur, gazte eta helduek herriko karririk bete dituzte. Haur jokoak, dantzaldiak, lasterketak, lehiaketak, pilota partidak, bertso saioa... gisa guztietako ekitaldiak izan dituzte. Ikusle andana bertaratu da eta guztien artean giro ederra sortu dute. Herri giroa bizi-bizi den seinale!

**BEROPEL**  
egurrezko pelleta  
ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654  
31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250  
info@echevestehermanos.com  
www.echevestehermanos.com

EN plus A1  
ES 025



OHIANA CALPARSORO

## Irriz eta kolorez jositako festak

Euskaldun berriek abiarazi zituzten festak. Berrikuntza izan den zirku tailerrak kolorez eta irriz bete zuen frontoia; pala partidek eta txokolatadak giro ederra eta goxoa sortu zuten; eta arkume jatean parte hartzaile gutxiago izanagatik, kalitatea nagusitu zen; Feria Eguna jendetsua izan zen!



OHIANA CALPARSORO

## Gozatzeko eta ikasteko aukera izan dute

Herritarrek ez dute geldi egoteko tarterik izan udan. Batetik, Urnietako mendietan barrena ibili ziren. Goiza bazkari eder batekin borobildu zuten. Eta bestetik, Joe Radice, Australian karate txapeldun izandakoaren eskutik, autodefentsarako zenbait gako ezagutzeko parada izan zuten.





Elkarretaratzeak egin dituzte Leitzan eta Goizuetan. UTZITAKO ARGAZKIA

## Oinarrizko pediatria zerbitzua eskatzen dute herritarrek

Zerbitzua bermatzeko eta hizkuntza errealitatea kontuan hartzeko eskatu diote Osasun Departamentuari

### JM BARRIOLA

Guraso eta aiton-amona talde batek deituta, oinarrizkoa den pediatria zerbitzuaren aldeko elkarretaratzea egin zuten abuztuaren 8an herriko plazan. Pediatria plazak pediatrekin betetzeko zailtasunak dauden momentu honetan ez dute zerbitzua familia medikuek ematea ukatzen, baina Osasun Departamentuari egoera denboran mugatua izan dadila eskatu dute. Leitza eta Goizuetako Osasun Etxean pediatria zerbitzua bermatzea da eskatzen dutena. Era berean, Leitzaldeko hizkuntza errealitatea eta haurren hizkuntz eskubideak aintzat hartzeko deia egin dute: «pediatrak euskaldunak izan daitezela».

### Egonkortasunik eza

Plazan irakurritako idatzian gogorarazi zuten, «pasa den ekainaren 19an, Leitza, Areso, Goizuetako eta Aranoko udal ordezkariak, Leitzako Denok Bat guraso elkarte kide bategi, Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak, Goizuetako kontsultorioko medikuak eta Leitzako Osasun Etxeko erizainak Nafarroako Gobernu-ko Lehen Mailako Arretako ordezkariari Leitzaldeko Osasun

Etxeetako pediatria zerbitzuari buruzko informazioa eman zien, Osasun Kontseiluan. Denok dakigun bezala, gure herrietan, aurreko pertsona jubilatuz zenetik ez da egonkortasunik lortu plaza honetan eta, hainbat pediatriako hainbat profesional ezagutu ditugu jada».

Gaur gaurkoz, Leitza eta Aresoko kasuan zerbitzua aurreko pediatriak ematen du boluntarioki. Leitzako Osasun Etxera etortzen da astean bitan, beretan-lekuan jarduna amaitu ondoren. Baina plazan adierazi zuten, «uste dugu, hain oinarrizkoa den eta unibertsala beharko lukeen zerbitzu bat, ezin dela borondatezko lanen menpe egon. Gainera Goizuetako eta Aranoko haurren kasuan, lehen ez bezala, Leitzaraino mugitu behar dira zerbitzua jasotzeko».

Gurasoek eta aiton-amonek plazan jakinarazitakoaren arabera, «nabaria da pediatrien

eskasia dagoela. Ez da Nafarroako arazo bakarrak. Estatu mailan ere egoera bera da. (...) Aspaldiko urtetatik arrastaka dago egoera». Honetan eragina izan dute estatu mailako neurriekin UPNren eta PSNren aurreko gobernuen erreforma eta murrizketek. Guzti honek eragina izan du lan baldintzetan, pediatria zerbitzuaren kalitatean, lehen mailako arretako medikuengan zein gainontzeko profesionalean».

### Egonkortasunik eza

Herritarren ustez, egoera hau aurreko legegintzaldietan hartutako erabaki eta neurri politiko okerren emaitza da. Horregatik, ez daude ados gai honekin alderdi batzuk egiten ari diren erabilpen politikoa-ekin. «Gure ustez egoera delikatu da. Ez daukagu pediatria finkorik herrian. Ez da gure asmoa herritarrak asaldatzea. Herriko umeek arreta jaso jasotzen dute. Pediatren faltan, famili medikuak dira arreta hau ematen ari direnak egunez, larrialdietan eta asteburuetan. Hala ere, gure apustua da, pediatriak izatea haurrak artatuko dituztenak», esanez bukatu zuten elkarretaratzea.

## Herriko garbigunea martxan laster jarriko dute

Mendialdea Mankomunitateak garbiguneen bidez hondakinak jasotzeko zerbitzua emateko asmoz eta 2017-2019ko Nafarroako Tokiko Inbertsioen Planari eta Hondakin Partzergoari finantzaketari esker, bi garbigune eraiki ditu. Garbiguneetako bat Leitzan eta bestea Goizuetan egin ditu.

Garbigunea eskala txikiko eta kudeaketa zaileko etxeko hondakin kudeaketarako tresna izango da. Besteak beste, aparatu elektrikoak, obra txikiak eraikitze eta eraiste hondakinak, altzari eta tamaina handiko hondakinak, garbiketako eta pintura produktu berezien, hondakinak, metalak, egurraren, pilen... kudeaketa hobetzeko helburuarekin eraikia. Etxeko eremutik kanpoko hondakinak ez dira bilduko; hau da, enpresa jardueren titularrek sortutako hondakin industrial edo arriskuetsuen bilketa ez du bere gain hartuko.

Garbigunea martxan jartzeko, Mankomunitateak ondorengo asteetan, garbiguneen kudeaketarako ordenantza onartuko du eta langile bat kontratatuko du, ordutegi zehatz batean garbigunera hondakinak eraman ahal izateko. Leitzako garbigunea Landa eta Inurrista artean eraiki dute Sakulu auzoko errepede bazterrean.



Leitzako garbigunea. JM BARRIOLA





Trenbidean barna ibiliko dira korrikalariak. UTZITAKO ARGAZKIA

## Plazaola Natur Bideko III. maratoia irailaren 16an

Korrikalariak 42 eta 26 kilometroko ibilbideak izanen dituzte aukeran

### TTIPI-TTAPA

Irailaren 16an, igandean, Plazaola Natur Bideko III. maratoia eta XII. maratoi erdia izanen da. Aurreko urteetako ibilbide bera egingen dute korrikalariak, 42 eta 26 kilometrotakoa, hurrenez hurren. Maratoia Lekunberritik abiatuko da; eta maratoi erdia, berriz, Leizatik, 09:00etan. Bata zein bestea Andoainen amaituko dira. Ibilbidea lineala eta behezko da; eta solido eta likidoen anoa-guneak izanen dira bost kilometroro. Larrialdi plana ere presatu dute.

Parte-hartzaileek asfaltora-ko zapatilak eramatea gomendatu dute (ez trail zapatilak) eta tunel luzeenak argizatuta egonagatik, kopeta-argia eraman behar dela jakinarazi dute.

### Izen-ematea

Joan den urtean 659 parte-hartzaile izan ziren probetan parte hartu zutenak eta aurten izen-emate kopuruak goiti egitea espero dute. Interesatuak [www.maratonviasverdes.com](http://www.maratonviasverdes.com) webgunean eman dezakete izena.

Maratoi eta maratoi erdiaren bueltan ekitaldi gehiago izanen dituzte.

Goiz osoan Irurtzongo abere azokaren VI. edizioaren harira, aziendak eta artisau ekoizleen produktu onenak ikusi eta erosteko aukera izanen da eta egun berean Talo Egunaren XIV. edizioak girotuko du Leitza.

### Bezperan azoka eta bisita gidatuak

Plazaolako Natur Bidea aitzakiatzat hartuta, bi zonaldeko artisau eta ekoizleak bilduko dira irailaren 15ean azokan. Aurten Andoainen izanen da eta datorren urtean Nafarroan (non erabakitzeke).

Egun berean, Aralar mendizerrara bisita gidatuak egingen dira: Larraun ibaiaren iturburuan (Iribasen) eta Saien balokioan (Irurtzunen).

'Lurraren bihotzetik izarretara' programaren 2. edizioa ere egun berean izanen da. Horren harira, ilunabarrean Mendukillo kobazulora edo Aralarko San Migel santutegira bisita gidatuak eskainiko dituzte.



Taloen aitzakiapean, egun osoan pesta giroan murgilduko dira. ARTXIBOKO ARGAZKIA

## XIV. Talo Eguna izanen dute irailaren 16an

### JM BARRIOLA

Hilaren 16an izanen dute Talo Eguna. 10:00etan irekiko da eguna, Saralegi eta Billabona talogile taldeen eskutik. Artisauak beraien lanak erakutsiko dituzte eta karrapean, tresna zaharren erakusketa izanen da. Herriko ostalariek taloekin prestatutako gutziak plaza-

ratuko dituzte. 13:00etan eskualdeko talo lehiaketa izanen da eta ondoren sariak banatuko dituzte. 16:30ean, berriz ere, talogile eta artisauak plazaratuko dira. Eguna irrintzi lehiaketarekin borobilduko dute, 18:00etan. Talo eta irrintzi lehiaketarako izen-ematea 11:00etan zabalduko da.



JULIAN ZABALETA

## Pestetan aspertzeko astirik gabe

Herritarrek hala erabakita, Gabriel Saralegik bota zuen pestei hasiera eman zien txupinazoa. Sei egunez ez zuten aspertzeko tarterik izan. Pesta ondoren, Udaleko Berdintasun Batzordeak egun horietan ikusitako eraso sexisten eta matxistak biltzeko deia egina zuen.





Musika, dantza eta herri-kirol artean joan dira aurtengo bestak. O. MUTUBERRIA

## Dantza irakaslea agurtu dute bestetako saioan

I. Enduro Indoor moto saioak parte-hartzaile eta ikusle aunitz bildu zituen

### OLATZ MUTUBERRIA

Eguraldi ederra lagun, giro bikaina izan dute Narbarteko bestetan. Herriko dantza taldeak saio polita eskaini zuen San Felipe egunean, baita hunkigarria ere. Izan ere, Kristobalek, irakasleak, dantzak irakasteari utziko dio aurten

eta ikasleek, esker gisa, oroi-garri bat oparitu zioten.

Bertzalde, aurten, berrikuntza bezala, I. Enduro Indoor moto saioa izan zuten abuztuaren 25ean. Parte-hartzaile aunitz izan ziren, baita ikusle aunitz ere. Arrakasta haundia izan zuen.



BIZIKLETEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA

GIMNASTIKA ETA  
FITNESS MAKINAK  
bizikleta estatikoak,  
lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA  
T. 948 631 218  
joxemi@kateabike.com  
[www.kateabike.com](http://www.kateabike.com)











## Bengotxea gasna nazioartean saritua izan da

'Great Taste' izeneko sarietan izar bat lortu dute Etxelekua gasnategikoek

### TTIPI-TTAPA

Lehen ere sariak lortu izan dituzte Etxelekua gasnategikoek, bai nazioartean eta bai Euskal Herrian ere, baina berriki lortu dutena ere ez da nolana hikoia. Elikagaien alorrean, Oskar sariak bezala izendatuak izan diren eta mun-

du mailako 10.000 jaki baino gehiago biltzen dituen *Great Taste* lehiaketa ospetsuan parte hartu dute. Ez hori bakarrik; izar bat lortu dute.

Aurtengo edizioan, guztira 12.634 jaki aurkeztu dituzte, eta 500 aditu baino gehiago ibili dira horiek baloratzen.



ONDIKOL

## Zubillaga zena gogoan

Eguzkipean eta giro ederrean iragan zen Burdinaren Eguna agorriaren 11n. Ohi bezala, burdin minerala idi-gurdietan garraiatzen zeneko ibilbidea antzeztu zuten eta horrez gain, olagizon ibilitako Jose Jabier Zubillaga zena gogoan, Santiago Villares alkateak oroigarria eman zion bere anaiari.

**MARMOLES  
SOULE**

[www.marmolesoule.com](http://www.marmolesoule.com)

LAPIDAK  
PANTEONAK  
KANPOSANTUAK  
HARRI LANAK  
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | [marmolesoule@gmail.com](mailto:marmolesoule@gmail.com)



# #emanlikeeuskarari

## Matrikula zaitez euskaltegian

2018/2019 IKASTURTEA

**DIRU-LAGUNTZAK MATRIKULATZEKO**

**948 012 012**

[www.euskaraikasi.nafarroa.eus](http://www.euskaraikasi.nafarroa.eus)

BIDEOA



### ANTOLATZAILEAK

Euskarabidea eta toki entitateak:

Aezkoa, Aoiz / Agoitz, Ansoáin / Antsoain, Aranguren, Auritz / Burguete, Barañain, Basaburua, Berriplano / Berriobeiti, Berriozar, Burlada / Burlata, Cendea de Olza / Oltza Zendea, Erro, Estella-Lizarrá, Esteribar, Etxauri, Galar, Huarte / Uharte, Imotz, Lizoain-Arriasoiti, Luzaide / Valcarlos, Mancomunidad de Irantzu / Irantzuko Mankomunitatea Mancomunidad de Valdizarbe / Izarbeibarko Mankomunitatea, Odieta, Orkoien, Pamplona / Iruña, Puente la Reina / Gares, Sakanako Mankomunitatea / Mancomunidad de Sakana, Salazar / Zaraitzu, Tafalla, Ultzama, Valle de Arce / Artzibar, Valle de Egüés / Eguesibar, Valle de Roncal / Erronkaribar, Villava / Atarrabia, Zizur Mayor / Zizur Nagusia.

Nafarroako  
Gobernua



Gobierno  
de Navarra

euskara**bidea**

### LAGUNTZAILEAK

Nafarroako euskaltegiak



ZUBIARTE  
Euskaltegi Publikoa

aek

NAFARROAKO HIZKUNTZA  
ESKOLA OFIZIALAK  
ESCUELAS OFICIALES DE  
IDIOMAS DE NAVARRA





XXXI. edizioa izanen da aurtengoa. UTZITAKOA

## Pirinioetako behi-aziendaren lehiaketa irailaren 22 eta 23an

Ortziralean, hilaren 21ean, abelburuak Merkatu plazan sartzeko aukera izanen da, 15:00etatik aitzinera

### TTIPI-TTAPA

Piriniotar behi azienaren lehiaketaren XXXI. edizioa izanen dute hilaren 22an eta 23an, larunbatean eta igandearen, Elizondon.

Irailaren 22an, 09:00etan, hasiko dira txanda kalifikatzaileak eta, ordubeteren buruan, Baztango artisauek eta nekazariak egindako eskulan eta elikagaiak plazaratuko dituzte. Azoka 14:00 bitarte eta 17:00etatik 20:00etara egonen da zabalik. Bien bitartean, 17:30etatik 20:00etara, behi-aziendaren erakustaldia eskainiko da. Hala, esatari baten

eskutik, azienaren deskribatuko da. Biharamunean, irailaren 23an, 09:00etan irekiko dituzte erakustaldiko ateak. Nekazari eta artisaunen produktu eta elikagaiak ere ez dute hutsik eginen 10:00etatik 14:00etara. Hamaiketako gisa, 11:30ean, Nafarroako aratxe haragia eta Autxitxia gazta dastatzeko aukera izanen da. 12:30eko behi-azienden enkantearen ondotik, 13:00etan bai behi-azienaren lehiaketako sariak eta garaikurrak, bai eta Piriniotar Behi Arraza I. Argazki Lehiaketako sariak banatuko dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Tanatorio berria ireki dute Elizondon

Baztan-Bidasoa Ehorzketa Zerbitzuak beilatoki berria ireki du Elizondon. Inaugurazio ekitaldia abuztuaren 10ean egin zuten. Beilatokiko arduradunek ekitaldira hurbildutakoak agurtu ondotik, aurrekoa dantzatu, zinta moztu eta instalazioak bisitatu zituzten.

### Mutil-dantzen bueltan hitzordua Elizondon

Heldu den igandean, irailaren 9an, Jo ala Jo taldearen eskutik, AEKko irakasleen eta Elizondoko Herriaren laguntzaz, 'Mutil-dantzak Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenean' hitzordua izanen dute Elizondoko Foru Plazan. 12:00etan hasiko da saioa, Eusko Ikaskuntzaren sorrera eta baztandar mutil-dantzariak Oñatin 1918an eskainitako emanaldi buruzko aitzin solasarekin. Ondotik mutil-dantzak, Baztango Jauziak, karrika eta gaita dantzak eta Baztango Kankailuak izanen dira.

### Lekarozko sagardotegira ateraldia

Hazitik Hozie elkarteak antolatuta, Baztango Agroekologia Eskola Herriarraren harira, Lekarozko Larralde sagardotegi ekologikoa bisitatu dute irailaren 15ean, larunbat goizean. 09:30ean bilduko dira, sagardotegian bertan. Ateraldi horren bidez, bisitariak bertzeak bertze, sagarrendoen patrioiak, barietateak, txertoak, inausketari buruzko zenbait kontu... ezagutuko dituzte eta sagardia eta sagardotegia ikusiko dituzte. Izen-ematea: [hazitikhozie1@gmail.com](mailto:hazitikhozie1@gmail.com) helbidean.

## BENITO MENNI OSPITALE ZENTROA (ELIZONDO)



Hermanas Hospitalarias  
BENITO MENNI OSPITAL ZENTROA

**Osasun mentaleko arreta eraginkorra, eskuragarria eta kalitatezkoa, adin guztietarako:**

- Antsietatea - Depresioa
- Loaren nahasmenduak
- Nortasunaren nahasmenduak
- Adikzioak - Dementziak

Mendinueta z/g  
31700 Elizondo  
[www.hospitalariasnavarra.org](http://www.hospitalariasnavarra.org)

Centro con plazas concertadas con  
Gobierno de Navarra

Zerbitzu berria  
**PSIKIATRIA  
ETA PSIKOLOGIAKO  
KONTSULTA ANBULATORIOAK**  
Tel. 948 452 162





BAZTAN  
BIDASOA

Ehorzketa Zerbitzuak



*Betika taldea zu laguntzeka*

### Betikoak betikoekin

Hogei urte baino gehiago daramatzagu sektore honetan lanean. Eskualdeko herritarrekin lan egin izan dugu. Berriki sortutako enpresa izanagatik, bai sektorean, baita eskualdean ere, **betikoak gara**.

### Punta-puntako zerbitzua

Instalazioak baldintza higieniko-sanitarioen arabera eta gure bezeroei **erosotasuna eta irisgarritasuna bermatzea** lehenetsiz eraiki ditugu. Diseinu eta dekorazio mimatuz hornitutako gela handi eta argitsuek, momentu zail eta gogorak arintzen laguntzen dute. Azken **agurra zuk nahi bezala** egin dezazun, **gela** bat egin dugu Elizondon. Instalazio horiek eta arlo honetan dugun **esperientzia eta profesionaltasuna** uztartuz, **punta-puntako zerbitzu pertsonalizatua** eskaintzea dugu helburu.

### Pausoz pauso zuengana

Laguntza eskatzen diguten **Baztango** eta **Xaretako** herritarrek beso zabalik hartuko ditugu, Guztiegandik **hurbil** egon gaitezen, **bertze beilatoki bat ireki dugu ELIZONDOn**.



24 ORDU  
365 EGUN

948 48 95 50  
info@funerariabaztanbidasoa.com





1968an inauguratu zuten Lekarozko kolegio berria. UTZITAKOA

## Lekarozko kolegio berriaren urteurren besta irailaren 15ean

50. urteurreneko ospakizunean, berriki hil den Jose Antonio Argaña, kolegioko irakasle izana, omenduko dute

### TTIPI-TTAPA

Lekarozko kolegio berriak 1968ko ekainaren 1ean ireki zituen ateak. Inaugurazio ekitaldi hartatik 50 urte bete diren honetan, heldu den larunbatean, hilaren 15ean, institutuan ospakizun ekitaldia antolatuko dute. Goiz osoko ospakizun ekitaldian, bertzeak bertze, ikasle ohiak biltzeko eta garaiko oroitzapenak berrartzeko tartea izanen dute.

Egun horretan bertan, ikasle ohiak berriki hil den Jose Antonio Argaña, 1975/1976 ikasturtean gorputz heziketako irakasle izana, omenduko dute. Areago, Argañak bere ikasleengan utzitako arrastoa ageriko eginen dute, prestatu duten ikus-entzunezko baten bidez. Izan ere, ikasleen arabera, berari esker, ikasle aunitzek maila goreneko atletak izatera ailegatzea lortu zuten.

### Egitaraua

11:00etan hasiko da ospakizun besta, eta bazkari eder batekin borobilduko dute eguna. 11:00etan Txokon bildurik, egiaztagiriak banatu eta gosalteko tartea izanen dute. 12:00etan, berriz, eskolan barrera, bisita gidatua izanen dute. 13:10ean dantzak izanen dira ikusgai. Segidan, ospakizun akademikoan murgilduko dira. Diplomak banatu eta Argaña omentzeko tartea izanen dute, ikus-entzunezkoa ageriko eginez. 13:30ean argazkia atera ondotik, 14:00etan bazkarian bilduko dira.

### Izen-ematea

50. urteurreneko ospakizun ekitaldian parte hartu nahi dutenek 626 415 215 telefonora deituz eman dezakete izena eta 50 euro ordaindu beharko dituzte.

## Udalak mendiko erreketak egiteko prebentzio taldea sortzea eskatu du

### TTIPI-TTAPA

Larreen erreketak kontrolpean eta segurtasunez egiteko, suhiltzaleen artean izan ohi duten baso suteen prebentziorako taldearen tankerako bat sortzeko eskaria egin dio Udalak Gobernuari.

Mozioan zehazten denez, 2002an baso suteen prebentziorako taldeak sortu zituen estatuak. Lehendabiziko eginaldirako lau laguneko brigada sortu eta Baztanerat eraman zuten. Geroztik Malerreka, Bortzirriak eta Leitzalderat zabaldu dute brigadaren lan-eremua; «baina hasierako lau laguneko kopurua mantenduz eta azarotik maiatzerat aritzen dira» gaineratu dute. Udalak adierazi duenez «beraien lanaldia astegunez da eta herri-tarrek erreketak asteburuan egin nahiago dituzte». Ber-

tzalde, «baso suteen prebentziorako brigadako kideak urtetik urtera aldatzen dituzte eta eskualdea ezagutu orduko lekutzen dira». Gisa bertsuan kontratazioak, estatu mailakoak izateak, «eskualdea ezagutzea aunitz zailtzen duela» uste dute. Udalaren arabera, «hori guztia aintzat harturik, erreketak kontrolpean egiteko sortutako zerbitzuak gero eta kexa gehiago ditu». Juan Kruz Iriarte zinegotziak erran bezala, Gobernuko arduradunekin «behin baino gehiagotan» bildu eta gaiak mintzatu dira: «baina ez da deus aitzinatu».

Hortaz, Gobernuari Nafarroa mailako baso suteen prebentziorako talde berezia sortzeko eta «behar bertze langilez eta baliabidez osatzeko» eskaria egin dio Udalak.



ITXASO ARIZMENDI

## Giro ederra Oronoz-Mugairiko bestetan

Bestek iraun zuten bartz egunetan, oronoztarrek ez zuten aspertzeko tarterik izan. Abuztuaren 14ko ilunabarrean botatako txupinazoarekin hasi ziren ofizialki bestak eta abuztuaren 18a arte musika, kirola eta dantza uztartuz, giro ederra izan zuten.

### CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatua



Dibortzioak, herentziak,  
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818  
Santiago, 59 2C ELIZONDO

### ELIZONDON

2 logelako pisua errentan  
hartu nahi dut. Mobeztatua  
edo gabe, lagun batentzat da.

620 454 664





# Elbeteko bestak irailaren 13tik 17ra ospatuko dituzte

Paella- eta zikero-jateko txartelak Elbeteko Posadan eros daitezke irailaren 9a arte

## TTIPI-TTAPA

Heldu den ortzegunean, 18:30eko txupinazoarekin abiatuko dira Elbeteko bestak. Aitzinetik, 16:30ean, mus eta partxis txapeketa jokatu da, Posadan. Bortz egunez, haur, gazte eta helduek hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izanen dute.

## IRAILAK 13, ORTZEGUNA

18:30eko txupinazo eta japoniar bonbek emanen diete hasmenta bestei (izen-ematea: 18:15ean). Ondotik, herriko gaztetxoek txopoa goitituko dute. 19:30etik 21:30era bitartean dantzarako tartea izanen dute, Hauspolariet taldearen eskutik. 21:00etan Zopak izanen dituzte eta 00:00etan txopoa goitituko dute. Bai Zopak, bai eta txopo goratze ondotik ere, Franziskoren musikak girotuko du herria.

## IRAILAK 14, ORTZIRALEA

09:30ean dianak. 11:30eko mezaren ondotik sabelak gozatzeko luntxa eskainiko da. 14:30ean paellada eta postre lehiaketa izanen dituzte. Se-

gidan Grand Prixean ariko dira, Tuku-Tuku Txarangarekin. 20:30ean Txamukos mariatxien emanaldiak girotuko du herria. Xingar jatearen ondotik, berriz, Kaiku's Nightek hartuko du lekukoa.

## IRAILAK 15, LARUNBATA

09:30ean dianak. 14:30ean Zikero jatea izanen dute; 21:30ean, berriz, xingar jatea. 22:00etako zozketaren ondotik, Fun&Goren musikak girotuko du herria. 02:30ean DJ Txingudiren txanda izanen da.

## IRAILAK 16, IGANDEA

09:30ean dianak. 14:00etan haurrendako herri-bazkaria izanen dute, Posadan. 16:00etatik 19:00etara puzgarriak izanen dituzte. 18:00etan txokolada dastatuko dute eta, indarrak hartuta, 19:00etatik 21:00etara bitartean dantzarako tartea izanen dute.

## IRAILAK 17, ASTELEHENA

Bestei akabaila emateko Karrikatxarreko bazkaria izanen dute. 14:00etan dute hitzordua.



Haur, gazte eta helduendako bortz eguneko bestak antolatu dituzte. UTZIITAKOAK

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T. 948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com

**HARRI LAN, S.L.**  
KARRIKATXARREKO BAZKARIA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

**ELBETEKO POSADA**

Ongi pasa bestak!

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Plater tikiak prezio berezian
- Asteburuetan karta
- Asteburuko menu berezia

**ELBETE** · Karrikaundi · T. 948 581 519  
info@posadaelbete.com www.posadaelbete.com





Larunbat eguerdian jokatuko dira laxoa partidak. UTZITAKOIA

# Lore Jokoak Iruritan irailaren 14an eta 15ean

Julio Sotok eta Uxue Alberdik girotutako herri-bazkaria izanen dute larunbatean

## TTIPI-TTAPA

Iruritako gazteek, Iruritako Herriak, Iruritako dantzariak, Laxoa elkarteak, Dorrea elkarteak eta Baztandarren biltzarrak antolatuta, Euskal Lore Jokoak izanen dituzte heldu den irailaren 14an eta 15ean Iruritan. Ortzirale iluntzetik hasita larunbatera bitarte mugimendua somatuko da herrian.

Pilota partidek emanen diete hasmenta Lore Jokoei, frontoian. Ondotik, 21:15ean, 'Emakume erraketistak' dokumentala izanen da ikusgai, Gizarte Bilgunean.

## Larunbatean ekitaldi gehiago

Biharamunean, hilaren 15ean, egun osoko egitaraua izanen dute. Hasteko, 11:00etan herriko dantzariak saioa eskainiko dute. Eguerdian, 12:00etan, laxolariak hartuko dute lekukoa, partida ederrak izanen dira ikusgai.

14:00etan herri-bazkaria izanen da, Julio Soto eta Uxue Alberdi bertsolariak girotua, Olari jatetxean. 17:00etan, bertsoen doinupean, Jauregiarte tabernara joanen dira. 20:00etan, berriz, DJaren musikari esker, dantzaldia izanen da.



ONDIKOL

## XLIII. Artzain Eguna Amaiurko bestetan

Gilles Etxegoienek irabazi zuen Amaiurko bestetan jokatu zen XLIII. Artzain Zakur Txapelketa. Ekitaldi berean, 40 urtez txapelketan parte hartu duen Felix Irigoien omendu zuten. Bertzalde, gazteluko lanetan laguntzeko zozketa egin zuten bestetan eta 1.783 eta 2.248 izan ziren zerbaki sarituak.

## Baztango ekonomiari buruzko mintegia irailaren 12an hasita

### TTIPI-TTAPA

Aurtengo ikasturterako ekonomiari buruzko mintegia antolatu du Hazitik Hozie elkarteak. Alejandro Arizkun ekonomilari eta NUPeko irakasleak gidaturik, Baztango ekonomiaren zenbait alderdi aztertu eta irakurketa kritikoak

eginen dituzte: jarduera horiekin biziraupena bermatzen da? Iraunkorra da?

Saioak hilaren 12an hasiko dira eta hilean behin bilduko dira, Elizondoko Amezti elkartearen, 20:00etan. Saio eta saio arteko tartean gogoetak egiteko tartea hartuko dute.



**Zurekin ikasturte honetan**  
**ZUREKOLORE**

- # Haur eta gazteendako Pedagogia Terapeutikoa
- # Gizarteratzeko, garapenerako eta ikasketetarako laguntza
- # Familiari orientatua
- # Haur eta helduendako sormen tailerrak: plastika, eskulanak, tapizak, puntua, joskintza, idazketa
- # ARKUPEAKeko bazkideendako %50eko deskontua

**ORDUTEGIA:** goizez eta arratsaldez  
**INFORMAZIOA lortzeko eta HARREMANETARAKO:** Celia Palacio  
Mendinueta karrika, 8 ELIZONDO  
zurekolorre@gmail.com Telefonoa: 646 483 706

## Margo erakusketa Arizkunenean, irailaren 6tik 30era

Irailaren 6an, ortzegunean, hasita, hilabete hondarrera arte, Francisco Escuderoren margo erakusketa gozatzeko aukera izanen dute artezaleek. Margolariaren lanak Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean jarriko dituzte lanak ikusgai.



# Aroztegiaren kontra, Lekarozko ermita defendatuko dute

Baztango Udalak auzibidean lekaroztarren defentsan aurkeztea erabaki du azken bilkuran

## TTIPI-TTAPA

Udalak abuztu hondarrean egindako osoko bilkuran Palacio de Arozteguiak bereganatutako Lekarozko San Martzial ermitaren jabetza auzibide zibilean defendatzeko erabakia hartu zuen. Erabakiak, EH Bildu, Ezkerra eta Baztan Auzolanean taldeen aldeko sei bozka izan zituen; Geroa Baiko bi ordezkariak aurka bozkatu zuten eta UPNko hiruak abstentziotzat jo zuten.



San Martzial ermita. ONDIKOL

## Herriaren eskariari erantzunez

San Martzial ermita Aroztegiako eremuan dago eta lekaroztarren harridurarako Aroztegiako Udalez gaindiko Plan Sektorialaren birziriketa planean baseliza Palacio de Arozteguiaren eskuetan zegoela ikusi zuten. Horregatik, otsailan, herriko alkatearen bidez auzibide zibilean ermitaren jabetza defendatzeko eskatu zion Lekarozko herriak Baztango Udalari.

Martxoko bilkuran, aferak lasterrago argitzeko, udalbatzak ikerketa espedientea abiatzea erabaki zuen eta es-

pediente abian zelarik, udan, Palacio de Arozteguiak gaia auzibide zibilerat eraman zuen. Horrela, Udalak, azken bilkuran, auzibidean lekaroztarren interesen defentsan aurkeztea erabaki zuen. Otondo alkateak «ordezkari politikoaren lehendabiziko ardura herriko ondasunak babestu eta zaintzea» dela erran zuen.

Ermitaren gaia ondare publikoaren ikuspegitik, Aroztegiako Udalez gaindiko Plan Sektorialak Batzar Nagusiaren oniritzirik gabe bereganatu dituen herri-lurren eztabaidari gehitu behar zaio.



NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

## Basaburua jaun eta jabe

Nafarroako Herriz Herri Txapelketan hiru jardunaldiak irabazi ditu Basaburuak. Bai 1. proba konbinatuan (lokotx biltzea, zaku lasterketa, aizkora, korrika eta arpana) bai eta 2. ean ere (txingak eta ingudea), 3 eta 3,5 puntuko aldea, hurrenez hurren, aterata Menditarrak taldeari.

## Udalak, etxeen zaharberritzea bultzatzeko, barne-eraberritzeko plana egingen du

### TTIPI-TTAPA

Herrigune historikoetako etxe tzarrak husten ari direnez, herri guneak biziarazi eta etxe horien birgaitzea bultzatzeko barne-eraberritzeko plan berezia egingen du Udalak. Erabakia abuztu hondarrean onartu zuen udalbatzak, ahobatez; EH Bilduren ekimenez.

Barne-eraberritzeko plan bereziak herrigune historikoen mugaketa eta identifikazioa egin beharko du; herrigune historikoen karakterizazioa eta gune hauen birgaitze osoa –fisikoa eta soziala– antolatu:

bizitegi-erabilera, hornikuntza eta zerbitzuak berreskuratzea, herri paisaia mantenduz eta ondarearen kontserbazio eta eraikuntzen inbariante tipologiaren bidez egin beharko da. Horretaz gain, ordenantzak eta araudiak proposatu beharko ditu, herrigune historikoen ezaugarri arkitektonikoak, urbanistikoak eta inguruneen erreperazioa sustatzeko. Barne-eraberritzeko planak Baztango hamabortz herriak bederen hartuko ditu eta Gobernuarekin zenbait auzo sartzeko ere aztertuko da.

**zergalan** | **asegi**  
asesores y consejeros de empresa  
empresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [zergalan@asegi.es](mailto:zergalan@asegi.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

## Baztango Eskola Ttikien Besta irailaren 30ean

Baztango Eskola Ttikien Besta Lekarozen izanen da aurten. Irailaren 30ean, hondarreko igandean, dute hitzordua. Anrolatzaileek ibilbideak, ikuskizunak, jokoak, dantzaldia... antolatu dituzte. Hurrengo zenbakian emanen da egitarau zehatzaren berri.



Larunbatean zikiro-jatea izanen dute. ARTXIBOKOA

## Txokotoko bestak izanen dituzte asteburuan

Baztan-zopak izanen dituzte ortziralean, zikiroa larunbatean eta txirrindulari gazteen lehendabiziko topaketa igandean

### TTIPI-TTAPA

Ortziralean lehertuko da beste hasiera emanen dien altxaferoa eta igandeko txirrindulari gazteen topaketarekin borobilduko dute asteburua.

### IRAILAK 7, ORTZIRALEA

19:00etako txupinazoaren ondoren 20:00etan Baztan-zopa jatea izanen dute. 23:30ean Azken Trena eta Dama taldeen kontzertuek giroa dute karrika.

### IRAILAK 8, LARUNBATA

11:00etan kalejiran bilduko dira eta, konpartsarekin ba-

tera, karrikaz karrika ibiliko dira. 14:00etan zikiro-jatea izanen dute. Haurrendako puzgarriak paratuko dituzte, 16:30ean. 21:00etan Mutildantzak dantzatuko dituzte eta aitzinetik eta ondoren Tiri & Tery Djaren eritmoan murgilduko dira.

### IRAILAK 9, IGANDEA

11:00etan kankailuak, txistulariak eta gaitariak ibiliko dira. Eguerdian Eusko Ikaskuntzaren sorrera eta Mutildantzarien inguruko saioa izanen dute eta 17:00etan txirrindulari gazteen topaketa.



Udaleko eta gobernuko ordezkariak eta proiektuaren sustatzaileak. JM ONDIKOL

## Zinema-platoak eraikitze lanetan hasi dira Lekarozen

Lanak bortz hilabete eskasen buruan akitzea aurreikusi dute eta Meliton Film Studios enpresari alokatuko diote

### TTIPI-TTAPA

Zinema-platoak eta ikus-entzunezko ekoizpena erraztuko duten instalazioak eraikitzen hasi dira Lekarozen. Nasuvin-sak 980.000 euroko inbertsioa egingen du eta bortz hilabete buruan, otsail aldera, lanak akituta edukitzea aurreikusi dute.

Nafarroako Gobernuko Politika Ekonomiko eta Enpresarialeko eta Laneko zuzendari nagusi Izaskun Goñi, proiektuaren sustatzaileak eta Baztango udal ordezkariak bildu ziren lanen garapena ikustera.

Bisitari, Izaskun Goñik instalazioen ekarpena nabarmendu nahi izan zuen: «Nafarroako portentzialtasun handia du zinemako lurralde gisa, eta gaur Lekarozen eraikitzen hasi garen azpiegitura hau tresna giltzarria izanen da filmaketak erakartzeko eta Nafarroan garatzen ari den sormenezko ikusentzunezko industriaren sektoreko profesionali laguntzeko».

Lanak akitzen dituztelarik, Meliton Film Studios enpresak, ikus-entzunezko enpresa nafarrak, errentan hartuko du, hogeitertarako.

## Lekarozen besta ederrak izan dituzte

Euskaraldiaren aldeko txupinazoa, kontzertu bereziak, herriko dantzariak, erraldoiak, gazte jokoak, herri-kirolak, mozzorro jaialdia, herri-bazkaria, bertso afaria... Herritik eta herriarentzat.



AINHOA ASTIZ





Pilota txapelketako bi argazki; eta zikiroko ontzi garbiketa ondoko berendua.

## Herritarren lanari esker, giro ederra izan dute bestetan

Besta ondotik musikak ez zuen etenik izan eta Mararen, portugaldar kantariaren, kontzertuak jendetza bildu zuen

### KORO IRAZOKI

Orokorrean eguraldia lagun izan bazuten ere, euriaren bisita ere izan zuten bestetan, eta horrek eragozpenen bat eragin zuen. Bertso poteoan, erraterako, karriketan kantatzea ez zen erraza izan eta erraldoiek, plazako itzulia eginda, etxeratu behar izan zuten. Halere, bestak giro ederean joan dira.

Andre Mari Pilota Txapelketan, gaztetxoaren artean, Joan eta Pablo izan ziren garaile; helduen artean, berriz, Maixterne eta Zenoz.

### Herritarren lana

Bestetan Joxe Jabierren hutsunea sumatu dute, eta hark egiten zituen lanak bertze herritar batzuek egin dituzte: gorritiekin Pello aritu zen eta soka-dantza gidatzeko ardura, taldetxo batek hartu zuen.

Lerro hauen bidez ekitaldi guztiak aitzinera ateratzeko herritar guztiek egindako lana eskertu nahi izan dute, bereziki: bezperan 100 lagunendako piperrada prestatzen aritu zirenean; eta 800 lagunendako zikiro-jatea antolatzeko aste osoa lan eta lan ibili zirenean (urritz makilak moztu eta zuritzen, bildotsa prestatzen, sukaldean, garbitzen...). Aurtengo berrikuntza nagusia zikiro-jatean izan zen, joan den urteko bloke eta tabloien ordez, 250 jarleku jarri baitzituzten.

### Kontzertu ikusgarria

Bestak larunbatean akituagatik, hurrengo ortzegunean, abuztuaren 23an, ere izan zuten gozamenik. Mara portugaldar kantariaren kontzertuak 250 lagun inguru bildu zituen.



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Neska-mutikoak Pirinioetan

Abuztuaren 6tik 10era Aisialdi zentroko hogeitau haur eta Xan, Martina eta Maialen arduradunak Pirinioetako Ossau haranean izan ziren. Bortz egunak Pont de Camps aterpetxean igaro zituzten, bizikidetzeta eta laguntasuna landuz. Heldu den urtean berriz joateko prest da taldetxoa.

## Besten atarian eta ondotik ere hainbat ekitaldi izanen dira

Gogo haundiz Besten Komiteak prestatu dituen bestak larunbat honetan, irailak 8, hasiko dira. Bortz egunez ez da ekitaldirik faltako eta horien inguruko xehetasunak hurrengo orrialdean irakur daitezke. Baina besten aitzinetik eta ondotik ere izanen da zer ikusia. Ortzirale honetan, udako ortzirale guziz bezala, ekoizleek eta artisauek merkatua egingen dute. 16:30etik 20:30era frontoian izanen dira. Sortzaileek eta artisauek astelehenetan izaten dute hitzordua baina bestak direla eta, bertan behe-gea geldituko da heldu den asteleheneko, irailak 10, hitzordua. Irailaren 17an eta irailaren 24an egingen dituzte azken azokak.

Bertzalde, irailaren 13an, Urtxintxak elkarteak antolatuta, Mendi Xola abesbatzak



Mendi Xola abesbatza.

kantaldia eskainiko du elizan, 21:00etan.

### Gau-jaiak Larunen

Larungo kaskoan, berriz, gau-jaiak antolatu dituzte iraileko ortzegun guziz. 65 euro ordainduta (4-12 urtekoek 45 euro), trenean joan eta etortzeko, Hats Berri abesbatzaren doinuak aditzeko eta jateko eta edateko aukera izanen da. Erreserbak aitzinetik egin behar dira ([www.rhune.com](http://www.rhune.com)).

## Irailaren 8tik 12ra ospatuko dituzte herriko bestak

Bortz egunez musika eta kirol eskaintza zabala prestatu dute, baita bertzelako ekitaldiak ere

### TTIPI-TTAPA

Ekitaldiz betetako bestak antolatu ditu aurten ere Besten Komiteak.

### IRAILAK 8, LARUNBATA

09:00etan Ball-Trap Plaxiden bordan eta Basurde Zaharren txapelketa errugbi zelaian. 10:30ean junior mailako errebotetako txapelketako finala igerilekuko errebotean. 15:30ean kadete mailako errebotetako txapelketako finala igerilekuko errebotean. 17:00etan Sarakorrika. 21:00etan Niarawa batukada. 22:30ean Itziarren Semeak. 00:00etan Willis Drummond. 01:30ean Ingo al deu?. Gaiteroak gau osoan.

### IRAILAK 9, IGANDEA

10:00etan Meza Nagusia Urriñarrak klikarekin. Itzulian itzuli Mariñelak Tanborrada eta gaiteroekin. 10:30ean Luzean erreboteko partidak. 16:00etan Erregetxopitak larrain-dantza taldea. 16:30ean desfilea plazan: gaiteroak, erraldoiak, joaldunak eta aha-te-jokoa. Herri-kirolak. 19:00etan aperitifa Sarako kantariekin. 20:30ean Pantxo Carrereren kantaldia. 22:30ean dantzaldia Tirri&Teryrekin. Gaez Los Incognitos taldea.

### IRAILAK 10, ASTELEHENA

Goizean gaiteroak eta txistulariak karrketan. 10:30ean errebotean, Kapito Harri, Gaia Cedims-en aurka eta bota luze trinketean. 13:30ean zikiro jatea kiroldegian. 16:30ean artzain zakur txapelketa. 17:00etan esku pilota partidak trinketean: Monce-Ducassou, Ospital-Bilbaoren aurka; Wal-

tary-Guichandut, Larralde-Iturberen aurka. 18:30ean euskal dantzak Zazpiak Bat taldearekin. 20:00etan aperitifa trikitilarietako eta Saranga taldeak animatua. 21:00etan Menditarrak taldearen kantaldia. 22:00etan Herri'tmo taldearekin dantzaldia. Gau guzian, Saranga txaranga.

### IRAILAK 11, ASTEARTEA

Goizean gaiteroak eta txistulariak karrketan. 10:00etan paxaka trinketean eta bota luze errebotean: Sara/SPUC. 10:30ean luzean errebotean, Noizbait/SPUC. 18:00etan errebotean, gazteen mailako joko garbi, Izarra pilota eta Iparraldeko selekzioa. 19:00etan joko garbi, helduen partida: Hardoytarrak/Zaharrer segi. 19:00etan mutxikoak Kuxkuxtu txarangarekin.

## LEHEN EGUNEAN SARAKORRIKA LASTERKETA EGINEN DUTE



Giro ederra izaten da bestetan eta argazkietan hori agerikoa da. BESTEN KOMITEA

20:00etan Hegoamerika gaua gaztetxean. 20:30ean aperitifa Zaldibik alaitua. 22:00etan dantzaldia Gora herriarekin. Gau guzian, Kuxkuxtu.

### IRAILAK 12, ASTEAZKENA

Goizean gaiteroak eta txistulariak karrketan. 09:00etan Sarako azienda lehiaketa trinketezko zabaldegian. 10:30ean pala txapelketaren errebantxa trinketean: Karrikaburu anaiak/Petrau-Landebat. 13:00etan

puzgarriak eta zaldi ibilaldiak plazan (euria bada kiroldegian). 18:00etan trinketean, esku pilota txapelketaren finala. Trinketean eta plazan bertsulariak: Aitor Servier, Maddi Sarasua, Maindi Murua. Gaiemailea: Julene Etxeberri Pacheco. 19:00etan zozketa. 19:30ean aperitifa Pauline eta Juliette-rekin. 21:30ean Burrunba elektrotxaranga. 23:00ean su artifizialak. 23:15ean Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

SARA

HERRIKO ETXEA



SARARI BALHOREAREN  
ETA LEYALTASUNAREN  
SARIA EMANA  
LUIS XIV-EK 1693-AN

Plazan  
elkar ikusiko dugulakban  
Herriko Kontseiluak  
besta onak opatzen dauzkitzue



# Herriko kirol elkarteak 50. urteburua ospatu du

Urteburua, bestaz gainerat, gogoetak pizteko parada izatea nahi dute. Kirol elkarteari izen euskalduna paratu nahi diote, eta horretarako proposamenak eginen dituztela jakinarazi dute

**PIERRE BASTRES**

Mende erdi baten ondotik, milaka dira atzo eta gaur herriko kirol elkarteko, SPUCeko, kideak izan direnak, zazpi sailatarik batean ala bertzean: errugbia, pilota, lasterka, kayak, eskubaloia, zangobaloia, piripita. Honenbertzez, neurri bereko besta nahi zuten antolatu. Pilota plazan oihal-etxe handia eman zuten antolatzailleek, zeinean iraganeko argazkiak eman baitzituzten. Sail guzietako haurren desfilearekin hasi zen besta. Ondotik, SPUCeko historia presentatu eta laburbildu zuten. Horrez gainerat, pantailetan ikusten eta aditzen ahal ziren oraingo eta orduko SPUCeko kideen lekukotasunak. Senpereko kantu taldeetako kideak ere etorri ziren beraien atxikimendua erakusteko: Artxe-roak, Hiru Soinu eta Koblakariak taldekoak hain zuzen.

Claude Leconte errugbi sailleko buruzagiaren arabera, «izigarri besta ederra izan da, herritar ainitzek parte hartu dute, abantzu 500 ginen afaltzeko oihal-etxepean eta ainitz gehiago zintzur bustitzean eta aitzineko aktibitateetan. Adin guzietakoak hor ziren elgarrekin, atsegin handia egin dau».

Bestarat hurbildu zirenen artean zen elkarteko sortzailea, Mixel Mendiburu. Oraingo senpenter guttik baldin bada-kite ere, bera zen errugbi sortzen hasi zena 1968an. Berak erran zuenez, «orduko garaia bertzelakoa zen, burua beheiti ginabiltzan hemen gaindi: baserriak eta herriak husten ziren, milaka ziren hemendik



Jende ainitz bildu zuen kirol elkartearen egunak . PHILIPPE BARDANOUVE

kanpo gaki zirenak, Pariserat nagusiki». Alta, alde on bat izan zuen huste horrek bere ustez: «ongi eskolatua eta diploma erdietsita, zonbait etxeratu ziren. Hemen janelo bazterrak inarosten hasiak ziren, herritarrek zerbait behar zutela egin herriarentzat. Itzultzen ziren horiek ere holako zerbait egiteko gogoia zaukaten». Gizarteko sail guzietan sortu ziren gauzak: «kooperatifikak, Ikastolak, irratiak, eta abar». Kirolean berdin: errugbia ezaguna zen, kolegioan gazteak hartzen ziren maiz eta senpenter zonbait aritzen ziren Donibaneko taldean.

Mendiburuk «arrasgustukoa» zuen, eta seminarioan izanki, eskutitza igorri ziren senpenter ainitzi, elkarte sortzeko asmoz. Ainitzek, baietz iharde-tsi zioten: «Hettoko Xan eta Martxel Noblia, Paxal eta Mixel Harotzarene, Ezkartegiko Jean Paul Giltzu eta bertze frango» adierazi zuen. Nahiz eta jende orok sortze hau ez zuten begi onez ikusten, «elkartasuna handia» zen: «Audeteko Leon Borthairek bere kamioneta prestatzen zaukun partidetar gateko, Luxitoneko Yves Arbixak lagundu gintuen ainitzetan, uztaria egina zaukun!» Egiako kirol zelairik ez baitzen, pentze batetan hartzen ziren.

Izenaren hautuaz, Mixel ohartzen da: «elkarte sortzeko bilkurak herriko mirikuaren etxean egiten genituen. Bera Bordeaux-ko taldean aritu izana bere ikasketetan, SBUCen (Section Bordeaux Union Club), SPUC (Saint Pée Union Club) izena hautatu eta eman zion taldeari, bere gaztetasuna orotarazten ziolakoan. Izen eskuladuna eman ordez, isilik egon ginen, miriku bati ihar-dokitzeko ez gai ez baikin. Orain gogoeta egin eta Senpereko kirol elkarteari izen eskulduna emaiteko garaia dela uste dute: «Hori erdiesteko, herritarrekin lanetan ari gara, proposamenak eginen ditugu» adierazi zuten.

## Futbola utziko duela iragarri du Ane Bergara beratarrak

31 urte ditu eta horietatik hamabortz egin ditu lehenbiziko mailan

### TTIPI-TTAPA BERA

15 urtez lehenbiziko mailan aritu ondotik, futbola utziko duela iragarri du Ane Bergara Artieda beratarrak. Liga eta Erreginaren Kopa irabazita eta Espainiako selekzioarekin Europako txapeldun izanda zintzilikatuko ditu botak.

### Ttikitatik futbolean

1987ko otsailaren 3an jaioa, ttikitatik erakutsi zuen futbolerako trebetasuna. Etxeko Gure Txokoa taldean hasi bazen ere, berehala hartu zuen Barañaingo Lagunak taldearen deia lehen mailan aritzeko. Hala, bere pasioa izan den futbolaz bizitzeko ametsa egia bihurtzea lortu zuen. Geroztik hainbat taldetan ibili da. Barzelonako Espanyol taldean eman zuen denbora gehien eta hainbat titulu eskuratu

zituena; Donostiako Real Sociedad bere betiko taldean ere aritu zen; FC Barcelonarekin Europan aritzeko aukera izan zuen eta azken urtean, Bilboko Athleticen ibili da. Espainiako selekzioan ere aritutakoa da beratarrak, Mundialean ere jokatu izan du eta Europako txapeldun izana da. Joan den urtean, herritarren omenaldi hunkigarria jaso zuen Matzadako futbol-zelai berrituaren inaugurazio ekitaldian.

### Ttikitatik futbolean

2019ko ekaina bitarteko kontratua zuen Athleticekin, baina azken hilabeteotan, bere egoeraz hausnartu eta izandako eskaintzak aztertu ondotik, futbola uztea erabaki du. «Nire etorkizuna eraikitzen hasi nahi dut eta orain zaila da futbolarekin uztartzea,



Ane Bergara beratarrak Athleticen elastikoa soinean.

konpromiso eta dedikazio handia eskatzen baititu», dio uztailaren 24an zabaldu zuen agurreko idatzian.

Halere, bertze maila batean bada ere, futbolekin jokatzen

segituko duela adierazi du. Bide batez, eskerrak eman dizkie bere futbol-talde guztiei, baina bide honetan lagun izan dituen guztiei ere, eta bereziki familiari eta gurasoei.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

## Maika Ariztegi laugarrenez txapeldun

2014an egin zen lehenbiziko aldiz Euskal Herriko Emakumezkoen Ingude-Jasotze Txapelketa eta hura eta geroztik jokatu diren guztiak irabazi ditu Maika Ariztegi iturendarrak. Aurtengo edizioan, 10 kiloko ingudearekin minutu eta erdian 93 altxaldi egin zituen.



NAFARROAKO HERRI-KIROL FEDERAZIOA

## Jacinto Etxekonanea mailaz igo da

Ezkurrako besten barne, Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketako finala jokatu zen abuztuaren 17an. Emilio Garcia Segoviarra izan zen garaile eta Beintza Labaiengo Jacinto Etxekonanea bigarren. Bi horiekin batera, Iker Gorritik mailaz igotzea lortu du.





Hamazazpigarren edizioan parte hartu zuten aizkolariak eta bertze kirolariak, sari banaketaren ondotik. ARGAZKIJABEA XXX

## Atutxa II.a eta Alberdi nagusitu dira XVII. Ramon Latasa Sarian

Beteranoen arteko lehia ikusgarrian Arrospeidek eta Arria II.ak irabazi egin zieten Mikel Mindegia eta Patxi Astibiari

### TTIPI-TTAPA SUNBILLA

Aitzol Atutxa II.a bizkaitarra eta Julen Alberdi Txikia II.a gipuzkoarra nagusitu ziren abuztuaren 11n Sunbillan,

Ramon Latasa zenaren omezez hamazazpigarren urtez antolatutako aizkora sarian. Irabazleek 28 minutu eta 42 segundo behar izan zituzten

hamar kanaerdikoak eta sei 60 ontzakoak mozteko. Larrañagak eta Mugertza gipuzkoarrek 30 minutu eta 32 segundo behar izan zituzten eta bigarren gelditu ziren; hirugarren, Iker Vicente eta Donato Larretxea aranztarra gelditu ziren (32:02) laugarren Joseba Otaegi eta Jon Rekon-do leiztarra izan ziren (33:10) eta bosgarren Xabier Orbego-zo Arria V eta Ruben Saralegi leiztarra.

### Beteranoak ikusgarri

Proba nagusia izanagatik, ez zen hau Sunbillako pilotalekua

lepo bete zutenek ikusi zuten apustu bakarra. Izan ere, 750 lagun sartu ziren frontoian, ia baino 221 gehiago. Ikusminik handiena, beharbada, garai bateko aizkolari beteranoek sei kanaerdikoetara eskainitako desafia izan zen. Alde batetik, Angel Arrospeide eta Arria II.a gipuzkoarrak, 62 eta 72 urtekoak; bertzetik, Ezkurako Mikel Mindegia eta Leiztako Patxi Astibia leiztarra, 69 eta 75 urterekin. Laurek lan ederra egin zuten, baina azkenean, gipuzkoarren "gaztetasuna" (134 urte bien artean, nafarrek berriz hamar gehiago) nagusitu zen. Gipuzkoarrek 12 minutu eta 33 segundo behar izan zituzten lana burutzeko eta nafarrek 13 minutu eta 54 segundo.

Txinga eramaten egindako marka ahaleginetan ez zen suerterik izan, frontoiko bero handiarengatik eta hezetasunarengatik ez baitzen erraza txingak ongi eustea. Xanta Sousa lesakarra 50 kiloko txingekin aritu zen eta bortz plaza eskas egin zituen. Ousmané Drame bizkaitarra, berriz, ehun kiloko txingekin aritu zen eta Munduko errekorretik 12 metro gelditu zen: 3 plaza eta 17,53 metro egin zituen.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Etxegarai Nafarroako txapeldun berriz ere

2014an irabazia zuen azken aldiz Nafarroako koxkor biltze txapelketa Fernando Etxegarai beratarrak. Bitxia baldin bada ere, azken hiru urteetan, Nafarroako azpitxapeldun izan ondotik Euskal Herriko txapeldun izatea lortu zuen. Aurten, Nafarroakoa berreskuratu du, sorterrian.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Nafarroa txapeldun zazpi herrialdekoan

Zazpi herrialdeko txapelketa hamargarren aldiz irabazi zuen Nafarroak uztailaren 28an Gasteizen. Lesakako Beti Gazteko sokatira talde mistoa eta Fernando Etxegarai koxkor biltzen txapeldun suertatu ziren, baita Iker Vicente aizkoran eta zaku lasterketako hirukote nafarra ere.



Jone Zelaieta eta Xabi Garmendia –eskuinean– beratarrak. ANGEL POMBAR



David Nesprias saratarra haurrez inguratua. ANGEL POMBAR

# Levoy eta Combarieu nagusitu dira Saran

Fernando Etxegarai beratarrak eta Iñaki Mihura arraioztarrak osatu dute 55. Sarako Kontrabandisten Lasterketako podiuma. Emakumezkoetan, berriz, Jone Zelaieta beratarra bigarren sailkatu da

## TTIPI-TTAPA SARA

Egun osoko ospakizunen barne, Kontrabandisten Lasterketaren 55. edizioa jokatu zen agorrilaren 26an Saran. Beti bezala, 36 lasterkarik parte hartu zuten eta Guillaume Levoy baionarra izan zen guztietan bizkorrena. 40 minutu eta 32 segundo behar izan

zituena 8,4 kilometroko ibilbidea osatzeko. Fernando Etxegarai beratarra bigarren helmugaratu zen, 41:58ko denbora egin ondotik. Podiuma eskualdeko bertze batek osatu zuen, Iñaki Mihura arraioztarrak, hain zuzen. Baztandarrak 42:09ko denbora behar izan zuen.

## Eskualdeko ordezkaritza zabala

Eskualdeko gehiagok ere osatu zuten Sarako lasterketa, parte hartu zuten 36tik hogeii inguru ingurukoak baitziren. Lehenbiziko hamarren gelditu zirenen artean, Dani Iparagirre eta Asier Apezetxea arantzarrak bosgarren eta

seigarren helmugaratu ziren, hurrenez hurren, 11 segundoko aldearekin. Michel Guicou senpertarra zortzigarren izan zen eta Pantxo Saint Martin saratarra hamargarren.

Emakumezkoetan Maud Combarieu urruñarra izan zen helmugaratzen lehenbizikoa. 49 minutu eta 34 segundotan osatu zuen lasterketa eta sailkapen nagusian, 22. postuan ailegatu zen. Jone Zelaieta beratarra bigarren ailegatu zen eta 52 minutu behar izan zituen. Iazko bere denbora 16 segundotan hobetu zuen.

Antolatzaileek ere kontent gelditu dira. Lasterka «biziki ongi» joan dela adierazi dute eta «jende ainitz hurbildu da» gaineratu dute.

## 4x4 autoen trial erakustaldia Arizkunen

Ordoki 4x4 taldeak antolatuta, 4x4 autoen trial erakustaldia egingen dute irailaren 15ean eta 16an Arizkongo Ordoki industrialdean. Erakustaldia zortzigarren edizioa izanen da aurtengoa eta izena eman nahi duenak bi telefono hautakotako batera deitu beharko du: 628 181802 edo 619 514048.

Larunbateko saioa 15:30ean hasiko da eta igandekoa, berriz, 10:00etan. Erakustaldia ikusteko bi euro ordaindu beharko da eta zozketak ere egingen dituzte hurbiltzen diren artean.

## Bortz aizkolari finalerako txartelaren bila

Bederatzi aizkolarik parte hartuko dute irailaren 23an Uharteko Toki-Alai pilotalekuan jokatu den Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketaren kanporaketan. Bederatzi horietatik bortz eskualdekoak izanen dira: Jon Rekondo, Ruben Saralegi eta Eneko Saralegi leitzarrak, Joxean Etxeberria zigarra eta Donato Larretxea arantzarra. Mieltxo Mindegia zubietarrak txapelketan ez aritzea erabaki du medikuaren agiria aurkeztuta. Lehenbiziko bortz sailkatuek finalerako txartela lortuko dute.



ZIHARKA SPORT

## 24 parte-hartzaile Lesakako I. Slalomean

Nafarroako Federazioaren egutegiaren baitan txertatutako proba puntuagarria ez izanagatik, 24 parte-hartzaile bildu ziren abuztuaren 11n egin zen Lesakako I. Slalomean. Autoetan Gaizka Zabala izan zen lehena eta monopozetan Hodei Ariztegi. Ikusgarrienaren saria Fermin Iriartek jaso zuen.



# Gorputza astintzeko garaia...

## Adin bakoitzak bere kirola

Kirolen bat egitea edo egunero ariketa pixka bat egitea beti da mesedegarri. Baina zein da bakoitzarentzat kirolik egokiena? Horretarako pertsona bakoitzaren ezaugarri fisikoak eduki beharko dira kontuan, bere bizitzeko estiloa eta, batez ere, bere adina.

Aunitz dira kirolaren mesedeak goraipatzen dituzten ikerketak, betiere hobby moduan hartzen denean eta ez medikuak agindu edo inposatuta. Gauza jakina da kirolak egonkortasun emozional handiagoa eskaintzen duela, eta gure bihotzaren osasuna hobetzen duela. Kirola egitea osasun fisiko eta psikiko hobea edukitzeko modua da eta, oro har, kirola egiten duten pertsonen adorea hobetu egiten da.

la dena positiboa da, gutti dira ariketa fisiko egitearen kontraindikazioak. Bihotzeko gaitzak edo lokomozio-aparatuko alterazioak baldin badaude soilik debekatzen da erabateki kirola egitea, eta kasu horietan ere, pertsona horiek espezialista baten begiradapean, ahalegin edo esfortzu gehiegi eskatzen ez duen ariketa-motaren bat egiteko moduan egonen dira.



**LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA**  
www.lesakakoudalkiroldegia.com



Komentu kalea, 2 · LESAKA · T. 948 637 400 · kiroldegia@lesaka.eus

Doneztebe 607744199

Ikasturte hasiera irailaren 10ean... Plaza mugatuak!  
Ez galdu aukera!

Ballet·Hip Hop·  
Danza Jazz·Pilates·  
Aerodance...

Maila eta adin guztiak —  
Taxi zerbitzua —  
Irakasle tituluak —



danzarebeca.com



2018-2019. urteko kirol jardueretan IZENA EMATEKO EPEA:

- Irailaren 17tik aurrera  
Baztanen erroldatuak
- Irailaren 19tik aurrera  
beste guztiak

Jardueren liburuxka etxera  
iritsiko zaizue!!

Informazioa: 948 452 301 | giltxaurdi@hotmail.com



**TOKI ONA**  
Berako  
Udal Kiroldegia

2018-2019  
Kirol Jardueren programa  
Apunta zaitez!  
Laster eskuorria zuen etxean!



Berako Toki-Ona kiroldegia @berakiroldegia  
INFORMAZIOA: 948 630 215 · bera@urdisl.com



**YOGA**

ANA TOVAR  
(Tel. 679 210 910)

**DONEZTEBE**  
Astelehenak:  
09:30-11:00  
14:45-16:15  
17:30-19:00  
Asteazkenak: Mindfulness meditazioa  
07:00-07:30



**ZUBIETA**  
Asteazkenak:  
18:30-20:00

**BERA**  
Ostiralak:  
18:30-20:00





Laxoa txapelketako lau talde onenak Oizen, antolatzaile eta laguntzaileekin, sariak banatu ondotik. ALICIA DEL CASTILLO

# Doneztebek irabazi du XXXIX. Laxoa txapelketa

Oizen abuztuaren 4an The Moment taldea 9-3 nagusitu zitzaion Aviari, herri bereko bi talderen arteko finalean

## TTIPI-TTAPA OIZ

Baztan-Errekako 39. Laxoa txapelketaren finala jokatu zen abuztuaren 4an Oizen eta doneztebarren arteko lehian, The Moment taldeak nagusitasunez irabazi zion Avia taldeari, 9-3. Lau urte zituzten doneztebarrek txapela lortu gabe.

Doneztebako The Moment taldean, Pascual Bertiz sakalaria, Julen San Miguel numeroa eta Jokin Arraztoa eta Javier Bertiz laurdenak aritu ziren; Azpitzapeladun izan zen Doneztebe Avia taldearekin Javier Almandoz sakalaria, Asier

Mutuberria numeroa, eta Jokin Apezetxea eta Juan Telletxea laurdenak.

Lehenbiziko jokoa txapel-dunek egin zuten, baina bana berdindu zuen Aviak. Hurrengo hiru jokoak segidan egin zituen The Moment taldeak (4-1), baina 4-3kora hurbildu zen Avia. Hori izan zen bere azken jokoa, ordea. Txapel-dunek, bertze bortz jokoak segidan egin zituzten, Donezteberentzat hogeigarren txapela lortzeko (15 aldiz txapel-dun orde izan da); Iruritik 12 txapel ditu eta bertze hainbertzetan txapel-dun orde izan da;

Oizek lau txapel ditu eta zazpi aldiz txapel-dun orde izan da eta Arraiozek hiru txapel eta lau aldiz bigarren izan da.

Alberto San Miguel oiztarra aritu zen marrazain, eta Doneztebako Eduardo Oizartabal eta Iban Santesteban eta Oizko Lander Mendiola epaile.

Sari banaketan, Dori Lopez, Nafarroako Gobernuako Kultura saileko zuzendari nagusia; Josu Janices, Kirol eta Gazteria Institutuko zuzendari ordea; Joxe Artetxe, Pilotarien Biltzar-rako presidentea eta Alberto San Miguel bera izan ziren.

## Hirugarren postua Iruritar

Larunbat goizean jokatu zen hirugarren posturako norgehiagokan Irurita Migelene taldeak (Xabi Barberena sakalaria, Gorka Urtasun numeroa, eta Egoitz Prim eta Jago-ba Ramos laurdenak) 9-8 irabazi zion Arraioz Sagardia taldeari (Mikel Mindegia, Xabier Mindegia, Jon Gamio eta Sergio Navarro).

## LAXOA TXAPELKETA

### TXAPELDUNAK

1980	IRURITA
1981	DONEZTEBE
1982	DONEZTEBE
1983	OIZ
1984	OIZ
1985	DONEZTEBE
1986	DONEZTEBE
1987	DONEZTEBE
1988	OIZ
1989	DONEZTEBE
1990	OIZ
1991	IRURITA
1992	DONEZTEBE
1993	IRURITA
1994	DONEZTEBE
1995	DONEZTEBE
1996	DONEZTEBE
1997	DONEZTEBE
1998	DONEZTEBE
1999	ARRAIOZ
2000	DONEZTEBE
2001	ARRAIOZ
2002	IRURITA
2003	DONEZTEBE
2004	IRURITA
2005	DONEZTEBE
2006	DONEZTEBE
2007	IRURITA
2008	DONEZTEBE
2009	ARRAIOZ
2010	IRURITA
2011	IRURITA
2012	IRURITA
2013	DONEZTEBE
2014	DONEZTEBE
2015	IRURITA
2016	IRURITA
2017	IRURITA
2018	DONEZTEBE

## GAZTETXOEN ETA GAZTEEN FINALAK IRAILAREN 8AN OIZEN IZANEN DIRA

## Laxoa Kultura Intereseko Ondasun Inmaterial aitortuko du Gobernuak

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirola eta Gazteria Departamentuak hasiera eman dio "Laxoa jokoa" Kultur Ondasun Inmaterial (KOI) aitortzeko espedienteari, Laxoa Elkartek proposatuta. Baztanen eta Malerrekan jokatzeko

da, eta baliteke euskal pilotan bizirik jarraitzen duen modalitate zaharrena izatea.

Horrela jasotzen da Kultura-Vianako Printzea Erakundeko zuzendari nagusiak, Dori Lopez Juriok, emandako eta uztailearen 31n, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu



Oizeko finalean, jokoa.

tutako ebazpenean. Ikuspegi inmaterialetik, laxoa jokoa Nafarroarentzat garrantzi berezia duen ondasun bezala hartzen da, duen berezitasunarengatik nahiz bizirik jarraitzeagatik. Alde batetik, pilota-jokoaren antzinako modalitatea da, soilik hemen bizirik iraun duena, eta, bertetik, jokoa praktikara transmisioaren adierazpen bizia, sustraitua eta partekatua da.



OROIGARRIA

## Xalbador GOIA ETXEBERRIA

Lesakan hil zen,  
2018ko abuztuaren 7an, 86 urte zituela

Argi bat itzali da hemen lurrean  
Berri bat biztu da han zeru ederrean  
Gure oroimenean izanen zara betiko  
Ez agurrik ez adiorik, gero arte baizik.



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

## Mañula IANTZI TELLETXEA

Lesakan, 2018ko uztailaren 20an, 94 urte zituela

Amatxi Mañula,  
gure ondotik joan zara  
baina beti  
gure bihotzean gordeko zaitugu  
Ez dugu zure umorea ahantziko,  
beti gurekin egonen zara.  
Aunitz matte zattugu.



ZURE BILOBAK

URTEURRENA

## Unai MUTUBERRIA OTERMIN

Saldiasen, 2017ko irailaren 4an  
I. urteurrena

Unai zu guretzat zenbat  
zinan aitortu ezinez  
aritu gara kontuan  
maitasunez, bihotz minez,  
lagun minen lagun min ta  
mutil leiala zinenez  
emandako guziagatik  
eskerrik asko bihotzez.

ZURE FAMILIA



URTEURRENA

## Alfonso SALDIAS AGESTA

Donezteben, 2014ko irailaren 10ean  
IV. urteurrena

Badira jada lau urte  
joan zinela gure artetik.  
Baina egunak joan eta egunak etorri  
zure irudia dugu buruan sarturik.  
Jakin ezazu denak gaudela  
zurekin ezin ahazturik.  
Maite zaitugu.

ZURE FAMILIA



**BEILATOKIAK ELIZONDON ETA BERAN**  
Zerbitzuak Baztan, Beran eta Bortzirietan

**URTE OSOAN 24 ORDUKO ZERBITZUA**

**T. 948 05 90 90**  
[izarratanatorio.com](http://izarratanatorio.com)

# IRACHE

tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)  
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)  
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKEKAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



BAZTAN:  
**ELIZONDO**n Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK:  
**BERAN** San Jose Beilatokian  
MALERREKA:  
**DONEZTEBEN** Aparan ind. 1-3

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDIKO ETXEEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU** | **948 48 95 50**  
**365 EGUN** | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)



web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)

*Betiko taldea zu laguntzeka*

**ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:**  
948 63 54 58 edo [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

► **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**

Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 € Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

**Ttipi-Ttapa: irakurriena Nafarroa garaiko mendialdean**

## MERKATU TTIKIA

## ETXEBIZITZAK

## SALGAI

**ETXALAR.** Borda bat salgai, bere lurrarekin. ☎661 121540.

**DONEZTEBE.** Rosa Seminario karrikako 4. zenbakian, 3. pisua salgai, 100 m<sup>2</sup>. Sukaldea, 2 logela, bainugela, egongela handia, balkoi eta terrazarekin. Hagitz argitsua da. Prezioa 85.000 (+ BEZ). ☎608 758793.

## ERRENTAN EMATEKO

**LESAKA.** Apartamentu mobleztatu errentan emateko, logela bakarrekoa. Garajeko marrarekin. ☎696 127601 / 639 509148.

**BERA.** Toki Ona Institutuaren parean, pisu konpartitu batean, logelak errentan emateko. ☎629 008081.

## ERRENTAN HARTZEKO

**ELIZONDO.** Bi logela dituen etxean errentan hartu nahi dute. Ez du axola hutsik badago. ☎620 454664.

Lanean ari garen bikote batek logela bat edo bi dauzkan pisu bat errentan hartu nahi du, Elizondo, Doneztebe, Elgorriaga... edo inguruan. ☎687 018716.

25 urteko neska pisu bila. Bederatzi hilabetetarako. Ez dio axola hutsik bada. ☎686 167746.

## GARAJEAK/LOKALAK

## SALGAI

**DONOSTIA.** Portuetxe auzoan, bi garaje marra salgai. ☎948 637862 / 678 855056.

## LANA

## ESKAINTZAK

**LESAKA.** Batzokian, lanean aritzeko norbait behar dute: sukaldean, ostatuan... aritzeko. ☎695 669831.

**LESAKA.** Iturbena kafetegian zerbitzaria behar da lanaldi osoan aritzeko. ☎620 700964 (Leire).

**BERA.** Idazkari/harreragilea behar dute osasun kontsulta batean. Bidali curriculumak: [eviviancd@hotmail.com](mailto:eviviancd@hotmail.com). Tratu atsegina eta irribarretsua eta jende aitzinean lan egiteko gogoa baloratuko dituzte.

**SENPERE.** Pagatxa oihangintza enpresan lagun bat behar dute lan egiteko: egurra botatzen, traktorearekin tiratzen, sekatzetan... ☎(0033) 676 626952.

**BERA.** Lantegi batean, lanaldi osoz aritzeko CNC fresadoran esperientzia duen langilea behar dute. ☎670 428143.

## IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58

[www.erran.eus](http://www.erran.eus)

744 48 43 61

[info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

**IBARDIN.** Beola Etxean langileak behar dituzte: jatetxean lan egiteko sukaldari buru bat eta asteburuetan frantsesa dakien langile bat saltzaile eta kutxazain bezala aritzeko. Bidali curriculumak: [beolaetxea@gmail.com](mailto:beolaetxea@gmail.com).

Berako enpresa batek Zugarramurdi inguruan lan egiteko elektrizistak behar ditu. ☎639 125046.

## ESKARIAK

Emakumezko bat lan bila (espainiarra). Adinekoak zaintzen orduka, goizez edo gauez ariko litzateke. Tituluduna da. Garbiketan orduka ere ariko litzateke. Kotxe propioarekin. ☎640 138930.

Emakumezkoa eskualdean lan bila. Adinekoak zaintzen interna bezala edo orduka, edota garbiketa lanetan

lan egiteko prest. Adinekoak zaintzen esperientziaduna. ☎722 237313.

Emakumea lan bila, adineko pertsonak edota haurrak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna moduan lan egiteko prest. ☎635 296717.

Emakumezkoa lan bila. Etxeko eta garbiketa lanak egiteko eta adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko interesatua. Adinekoak zaintzen hilabete batzuetako esperientzia. Disponibilitate osoa. ☎644 778212.

## MOTORRAK

## SALGAI

**Renault Megane Coupe 1.5 dci** autoa salgai, 110 cv. 2011koa. Hagitz egoera onean (57.000 km). ☎697 265618.



**Discovery 3** autoa salgai. Automatikoa. Engantxearekin. 130.000 km. ☎677 594892.


## DENETARIK

## SALEROSKETAK

Benelli markako **eskopeta** salgai, hagitz arina eta hagitz egoera onean. ☎677 592133.

Donusa markako **kaldera** salgai, gazezkoa. 1.500 litroko akumulatzailearekin. Berria. ☎696 127601 / 639 509148.

## OPARITZEKO



Zakurkumeak oparitzeko: **Border Collie mestizoak**. ☎622 774110.

**LEITZA.** Collie arrazako zakurkumeak oparitzeko, lau hilabete ingurukoak. ☎948 610689 / 636 022311.

**ITUREN.** Katakumeak oparitzeko. ☎607 269294 / 948 920936.

**Hiru katu** oparitzeko. ☎626 077751.

## GALDU-AURKITUAK

**GOIZUETA.** Giltzak, sakeleko telefonoa, kartera... aurkitu dituzte. Udaltxean daude. ☎948 514006.

## BASERRIA

## BEHI-AZIENDAK

## Aretze gizenak:

## Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,29
- 1.koa 4,07
- 2.koa 3,93

## Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,31
- 1.koa 4,17
- 2.koa 4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

## Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

## Aretze mestizoak

- Urruxak 168,00
- Idixkoak 250,00

## Aretze nabarrak

- Urruxak: 160,00
- Idixkoak 180,00

## ZALDI-AZIENDAK

## Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

## ARDI-AZIENDAK

## Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,50/9,20
- 8-10 kilokoak: 7,00/7,80

## ZERRI-AZIENDAK

**Zerrikumea** (19 kilo): 34 €

**Zerri gizona** 1,246 €

**Zerramak** 0,570€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (abuztuaren 17tik 24ra bitarteko prezioak)

erran.  
EUSERABILI ETA  
ZABALDU EDUKIAK



**Mendaur Motor**  
Leitzako bidea • DONEZTEBE  
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak  **SUZUKI**

**TOYOTA RAV 4 2.0** 2004 urtekoa  
100.000 km • 3 ate • 150 CV



**OPEL ASTRA J • 110 CV**  
2014 urtekoa • 40.000 km



**www.mendaurmotor.es**

**KATEA BIKE** **2. eskuko bizikletak**

**800€**



**1000€**



**1500€**



Kanttonberri, 1 | BERA  
T. 948 631 218  
joxemi@kateabike.com  
**www.kateabike.com**

**AVIA**  
**E.S. SANTESTEBAN**  
Leitzako errepidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679

**KOTXE GARBITEGI BERRIA!**  
**ShineTecs®**  
"KONPONTZE EFEKTUA" duen pintura babeslearekin

> "Acrylonic" formula patentatua. Argizaria baino hobea.  
> Kapa babeslea indartzen du garbiketa bakoitzean  
> Distirak denbora gehiago irauten duela bermatzen du

**FURGONETA GARBITEGI BERRIA!**  
 2,60 m

**2,60m bitarteko furgoneta edo kotxea garbitu gurean!**

**www.doneztebe.com**

**SORTZEAK**

- **Xabier Baraibar Inda**, Arraizkoa, uztailaren 15ean.
- **Kattina June Azarete**, Sarakoa, ekainaren 26an.
- **Oinatz Saldias Bereau**, Urrozkoa, uztailaren 17an.
- **Nahia Mindegia Ezkurra**, Doneztebekoa, abuztuaren 6an.
- **Eider Mindegia Ezkurra**, Doneztebekoa, abuztuaren 6an.
- **Adur Bertiz Ortega**, Doneztebekoa, abuztuaren 15ean.
- **Zuhaitz Goizueta Mutuberria**, Goizueta, uztailaren 9an.
- **Amets Narbarte Barriola**, Goizuetakoa, uztailaren 30ean.
- **Aaron Jimenez Etxeberria**, Lesakakoa, uztailaren 22an.
- **Olaia Rekondo Ojer**, Lesakakoa, abuztuaren 11n.
- **Noah Peña Gonzalez**, Igantzikoa, ekainaren 29an.
- **Martin Loiarte Banegas**, Igantzikoa, uztailaren 26an.
- **Yeremi Jimenez Etxeberri**, Sunbillakoa, abuztuaren 21ean.
- **Yassine Sow Altxu**, Iturengoa, abuztuaren 24an.

**SORTZEAK ETA EZKONTZAK**

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu edo [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) helbidera idatzi beharko du.

**HERIOTZAK**

- **Francisco Karrikaburu Larraia**, Arraiozkoa, uztailaren 19an, 70 urte zituela.
- **Manuela Iantzi Telletxea**, Lesakakoa, uztailaren 20an, 94 urte zituela.
- **Anna Gavurova**, Lesakakoa, uztailaren 20an, 71 urte zituela.
- **Juan Antonio Urtxegi Urtxegi**, Igantzikoa, uztailaren 22an, 88 urte zituela.
- **Francis Thorez**, Sarakoa, uztailaren 14an, 66 urte zituela.
- **Juana Josefa Cordoba**, Sarakoa, uztailaren 18an, 91 urte zituela.
- **Justo Arregi Lazkano**, Almandozkoa, uztailaren 25ean, 74 urte zituela.
- **Fernando Amorena Gartzia**, Elbetekoa, uztailaren 26an, 86 urte zituela.
- **Agustin Agirre Irazoki**, Berakoa, abuztuaren 1ean, 89 urte zituela.
- **Dionisia Ganboa Zubieta**, Sunbillakoa, abuztuaren 1ean.
- **Patxi Barandiaran Irigoien**, Lesakakoa, abuztuaren 6an, 93 urte zituela.
- **Salvador Goia Etxeberria**, Lesakakoa, abuztuaren 7an, 86 urte zituela.
- **Carmen Mendikoa Etxenike**, Elizondokoa, abuztuaren 7an, 80 urte zituela.
- **Adelaida Migeltorena Irigoien**, Sunbillakoa, abuztuaren 11n, 89 urte zituela.
- **Juana Alzuguren Mikelperizena**, Berakoa, abuztuaren 11n, 81 urte zituela.
- **Juana Gaztelumendi Tapia**, Lesakakoa, abuztuaren 12an, 87 urte zituela.
- **Migel Irigoien Irigoien**, Arraiozkoa, abuztuaren 13an, 78 urte zituela.
- **Angel Etxeberria Goñi**, Doneztebekoa, abuztuaren 15ean, 83 urte zituela.
- **Agueda Inda Goñi**, Lesakakoa, abuztuaren 20an, 88 urte zituela.
- **Vicente Maylin Telletxea**, Doneztebekoa, abuztuaren 21ean, 82 urte zituela.
- **Eugenio Arruti Mutuberria**, Oieregikoa, abuztuaren 22an, 58 urte zituela.
- **Jose Arozena Iribarren**, Urrozkoa, abuztuaren 22an, 89 urte zituela.
- **Miguel Zozaia Irigoien**, Elizondokoa, abuztuaren 25ean, 85 urte zituela.
- **Migel Joakin Noble Telletxea**, Ezkurrakoa, abuztuaren 27an, 83 urte zituela.
- **Ignacio Otegi Etxebeste**, Leitzakoa, abuztuaren 28an, 78 urte zituela.

**EZKONTZAK**

- **Unai Pikabea Agerre** eta **Itsaso Fagoaga Etxarte**, Baztangoa eta Lesakakoa, uztailaren 28an Lesakan.

# AGENDA

## IRAILAK 6 - 20

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

### IKASTAROAK

#### LESAKA

**Hizkuntza garapenaren alderdi soziolinguistikoak haurtzaroan**

Harriondoan, irailaren 28an eta 29an.

**Emakumeendako defentsa pertsonala**

Hilabetean behin, irailaren 8an hasita, 09:00etatik 11:00etara bitarte.

#### ELIZONDO

**Baztango ekonomiari buruzko mintegia**

Amezi elkartearen, hilean behin, irailaren 12an, 20:00etan hasita.

**Mutildantzak Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenean**

Elizondoko Foru plazan, irailaren 9an, 12:00etan.

#### LEKAROZ

**Sagardoaren patroiak, barietateak, txertoak, inausketa teknikak... langai**

Larraldea sagardotegian, irailaren 15ean, 09:30ean.

#### BERA

**Yoga ikastaroa**

Jesusen Bihotza ikastetxean, urrian hasita ostiralero, 18:30ean.

#### ZUBIETA

**Yoga ikastaroa**

Eskolan, urrian hasita, asteazkenero, 18:30etik 20:00etara.

#### DONEZTEBE

**Yoga ikastaroa heldu eta haurrendako**

Zazpigarutze, 3, urritik aitzinera: helduendako astelehenetan; haurrentzat asteartetan 18:30ean.



IXIAR BAZTERRIKA

### ITUREN Joaldunen Eguna

Antzerkiaren ondotik zikiro jatea izanen dute. Abuztuaren 5ean, igandean.

### IKUSKIZUNAK

#### LESAKA

**'Sube la música' antzezlan**

Harriondoan, irailaren 9an, 19:00etan (sarrera 5 euro).

### KIROLA

#### SUNBILLA

**BTT ibilaldia**

Irailaren 9an. Izen-ematea: 07:45etik 08:45era.

#### LEITZA

**Plazaola Maratoia**

Irailaren 16an.

#### OIZ

**Gazteen laxoa finalak**

Irailaren 8an.

#### ARIZKUN

**VIII. Team Trial Ordoki 4x4**

Irailaren 15ean eta 16an, 15:30ean eta 10:00etan, hurrenez hurren. Sarrera: 2 euro.

#### LESAKA

**Euskal preso politikoen alde mendi martxa eta bazkaria**

Lesakako plaza zaharretik abiatuta, irailaren 8an, 09:30ean (izen-ematea: Arranon).

#### BTT itzulia

Irailaren 16an.

### KONTZERTUAK

#### LEITZA

**Kepa Junkera**

Irailaren 7an.

#### SARA

**Mendi Xola abesbatza**

Elizan, irailaren 13an, 21:00etan.

**Saiberri abesbatza**

Elizan, irailaren 21ean, 21:00etan.

#### LESAKA

**Olatz Zugasti**

Harriondoan, irailaren 15ean, 19:30ean (sarrera 12 euro).

### BESTAK

#### SARA

**Herriko bestak**

Irailaren 8tik 12ra.

#### OIZ

**Herriko bestak**

Irailaren 7tik 9ra.

#### ERATSUN

**Herriko bestak**

Irailaren 6tik 9ra.

#### ARANTZA

**Eguzkialdeko bestak**

Irailaren 8an.

#### ELBETE

**Herriko bestak**

Irailaren 13tik 17ra.

#### BERA

**Illekuetako bestak**

Irailaren 15ean eta 16an.

#### ETXALAR

**Urritzokietako bestak**

Irailaren 14an, 16an eta 17an.

#### DONEZTEBE

**Besta tikiak**

Irailaren 21ean eta 22an.

### OSPAKIZUNAK

#### LEITZA

**Taloaren Eguna**

Irailaren 16an.

#### ITUREN

**Joaldunen Eguna**

Irailaren 22an.

#### IRURITA

**Lore Jokoak**

Irailaren 14an eta 15ean.

#### LEKAROZ

**Kolegio berriaren**

**50.urteurrena**

Irailaren 30ean.





ARTXIBOKO ARGAZKIA

**LEITZA Talo Eguna**

Egun osoko egitaraua: maratoia, azoka...  
Irailaren 16an, igandean.

**Eskola Ttikien Besta**

Irailaren 30ean.

**DONEZTEBE**

**Motorzaleen besta**

Irailaren 15ean eta 16an.

**BERTIZ**

**Ate irekien eguna**

Irailaren 16an.

**ETXALAR-SARA**

**Usategietako besta**

Irailaren 23an.

**BERTSOAK**

**BERA**

**Bertso jaialdia**

Untxalo, Artzallus, Zubeldia eta Martin.

Kultur Etxean, 19:30ean.

**AZOKAK**

**SARA**

**Artisauen azoka**

Herriko plazan, uztailaren 2tik

irailaren 10era bitarte,  
astelehenero, 09:00etan.

**Ekoiileen azoka**

Plazan, ortziraleroko, 16:30etik  
20:30era.

**SENPERE**

**Artisauen azoka**

Plazan, astearte goizero,  
08:00etatik aitzinera.

**Ekoiileen azoka**

Plazan, larunbatero, 08:00etatik  
aitzinerara.

**ELIZONDO**

**Piriniar behi-aziendaren**

**XXXI. lehiaketa**

Irailaren 22an eta 23an, goizez  
eta arratsaldez.

**ERAKUSKETAK**

**ELIZONDO**

**Francisco Escuderoren**

**margo erakusketa**

Arizkunenea Kultur Etxean,  
irailaren 7tik 30era bitarte.

**Nire aukera**

**«Ingurukoekin ongi egoteak egiten nau zorientsu»**

**JOHANNES MOLINUEVO** ELBETEKO GAZTEA

«Elbeten bizi den gaztea» da Johannes Molinuevo. Bereziki «lagunekin egotea» du zaletasun. Horregatik, egunak «famiarekin egonez eta momentu libreez ahal bezainbertze gozatuz» pasatzen saiatzen da. Udan lanean aritu bada ere, hartu du gozamenerako tarterik: «ahal izan dudanean ez dut egunerokoarekin hausteko aukerarik galdu» adierazi digu. Herriz herri eta plazaz



UTZITAKO ARGAZKIA

plaza bestetan ere ibili da Elbeteko gaztea: «ezin da bat ere pasatzen utzi» dio irri artean. Besta egiteko «lana egin beharra dagoela» argi du gazteak, baina bata ez dio bertzea galarazten. Biak uztartzeko «gogoak jartzea» omen da sekretua. Batean zein bertzean ibiliagatik, ez ditu bestarako indar guztiak akitu: «herrikoak falta dira oraindik eta horiek ere gogoz hartuko ditugu». Elbeteko

«ZIKIRO JATEAN HERRITAR GUZTIAK BESTA GIROAN BILTZEN GARA, GIRO EDERRA SORTUZ»

bestak herri ttiketako besten tankerakoak izateaz gainera, «udari amaiera borobila emateko aukera ona» dira bere ustez eta horrek ikasturteari hasiera eman eta martxan jartzeko ere laguntzen duela iruditzen zaio. Egunez egun «gozatzen» saiatzen bada ere, batez ere «zikiro jatea» du gustuko, «herritar guztiak batera eta besta giroan biltzen gara mahai-inguruan». Orokorrean herriko besta ederrak direla uste badu ere, «jende gehiago etortzea» eskertuko luke eta horretarako deia ere luzatu nahi izan du herritarrek: «animatu eta probatu, etortzen direnek ongi pasatzen dute eta». Besten ondotik, ikasturteari buru-belarri helduko dio. Aste egunetan ikasketetan pasatuz eta asteburuak «lagunekin planak eginez eta afari on batekin akituz» pasatzen saiatuko da. Hain zuzen, horrek egiten du zorientsu: «nire inguruekin ongi egotea eta beraiek ere nirekin hala daudela ikustea bezalakorik ez dago» adierazi digu. «Gauzak ahal den heinean, aurreikusiz» eta datorrena «datorren bezala hartuz», lagunekin batzuetan eta famiarekin bertzeetan, «munduari buelta ematea» du amets elbetear gazteak. Ea ametsa betetzeko aukerarik sortzen zaion!




# PLAZAN BAZAN





## ILARGIAN

Behéko sei marrazki-zati horietatik bakarra dago irudi nagusitik bertatik hartuta. Zein da?



Egilea: Garbine Ubeda (Aiturri)





### XAGU

**LIBURUDENDA**  
Tel. / Fax 948 638 232  
Koskontako bidea, 7  
(osasun-zentroaren parean)  
31770 LESAKA

- PAKETEA JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

## artesiaga

PAPERTEGIA ESKOLAK INFORMATIKA KOPISTEGIA BULEGOAK  
elizondo tel. 948 580 639 www.artesiaga.com



## MARGOTU

Margotu itzazu beheko marrazkiak, moztu eta zure istorioa sortu ezazu!



## sare akademía

LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

### Errefortzu klaseak:

- MATEMATIKA, FISIKA ETA KIMIKA
  - HIZKUNTZAK
  - BERTZE IKASGAIETAN LAGUNTZA OROKORRA
- Talde txikitan eta jarraipen pertsonalizatuarekin.

ERRESEBATU ZURE PLAZA ORAIN!

INFORMAZIO GEHIAGO:  
T. 615561458 (Nerea)

Emaila: akademiasare@gmail.com  
Web orria: sites.google.com/view/sareakademia  
Leitzako errepidea 29, 31740 Doneztebe

Irailako kuota %10eko  
deskontuarekin!

Elkarrekin ikasiko dugu!

## JOSEPHINE'S ENGLISH Bertako irakasleak

**KLASE PARTIKULARRAK:**  
Lehen hezkuntzako 4. mailatik goiti, DBH,  
Batxilergoa eta helduak

Josephine Etcheverry eta Christina Irigoyen  
948 453 453


**LOKAL BERRIA:**  
Santiago, 38 Elizondo



Cambridge English  
Exam Preparation Centre

Cambridge English  
Teacher

T. 626 908 076  
angieacademy@gmail.com  
Elizagibela, 7 behea  
31740 DONEZTEBE



8 urtetik aurrera. HAUR - GAZTE - HELDUAK  
Hasiera mailatik: A1 - A2 - B1 - B2 - C1 - C2

Cambridgerako azterketa ofizialak  
prestatzen ditugu hagitx emaitza onekin.  
Itzulpenak ere egiten ditugu.

2018-2019 kurtsorako **MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK**  
Plaza mugatuak | Ikasturte hasiera: **IRAILAK 17**

## Margotu, erlaxatu eta disfrutatu!

**M** Iciar Mikelperizena



**INSKRIPZIO EPEA ZABALIK - 0€ - Plaza mugatuak**

- 9 urtetik aurrera, gazte eta helduendako
- Arkupeko bazkideei %50 deskontua
- Ez da beharrezkoa esperientzia izatea

Zatoz margotzera!

BERA

DONEZTEBE

ELIZONDO

T. 661 010 416 | mikelperizena@gmail.com



# URTEBETETZEAK



Igantziko **Maialen** eta **Araitzek** 2 urte bete dituzte abuztuaren 3an eta 11n. Auniz urtez eta muso haundi bana bi sagutxoei etxekoan partetik!



Abuztuaren 19an eta 30ean urteak beteko dituzte **Maren** eta **Naroa** bi lehengusinek. Muxu handi bat Zubietako familia guztiaren partetik eta batez ere Janire, Aimar, Maddi, Nahia eta Enaitzen partetik.



**Izaro Etxeberria Irigoienek** bi urte bete ditu abuztuaren 10ean. Zorionak eta bi muxu haundi Doneztebeko ataubxi eta amatxiren partetik, printzesa.



**Aiur Garro Ordoki** lesakarrak 5 urte bete ditu abuztuaren 30ean. Auniz urtez kaskagorria bezain maitagarria den gure mutikoarentzat. Muaaaa!



Uztailaren 25ean **Nahiak** 7 urte bete ditu. Zorionak Zubietako familia guztiaren partetik eta bereziki Janire, Aimar, Maddi, Enaitz, Naroa eta Marenen partetik.



Uztailaren 12an eta 23an **June Mendiburu Andresena** eta **Arai Arteaga Andresenak** 5 urte bete zituzten. Milesker eman zeniguten berendu goxoarengatik. Muxuak eta besarkada potolo bana Legasako familiaren partetik.



Zorionak **Enaitz Aguirre Irureta** gure gixonari bere bosgarren urtebetzean! Muxu haundi bat atta, ama eta zure arreba tikiara iraiaren partetik.



Igantziko **Maren Petrikorena Huitzik** abuztuaren 28an 2 urte bete ditu. Muxu bat familiaren eta bereziki zure ahizpa Iraia, attatto eta amabixoren partetik.



Leitzako **June Urkiola Mariezkurenak** 6 urte bete ditu abuztuaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat Lide eta Izargiren partetik.



**Libe Tapia Mutuberria** lesakarrak 9 urte bete ditu abuztuaren 29an. Zorionak!!!



Zorionak **Hegoi** eta **Ainere!** Urte bat eta 8 urte beteko dituzte irailaren 5ean eta 10ean. Muxu potolo bana familia guztiaren partetik eta batez ere Udane eta Ioritzen partetik!




**Aitor Altugarai Altzuri** lesakarrak irailaren 2an 2 urte bete ditu. Auniz urtez Aurtizko zure lagunaren partetik.



**Lexuri Arotzena Portu** lesakarrak 12 urte beteko ditu irailaren 15ean. Auniz urtez Orti, Elorri eta Aiert anaien partetik. Ongi pasa eguna!



Doneztebeko **Oier Lopez Oteizak** irailaren 4an 5 urte bete ditu. Zorionak eta borts muxu haundi familiaren partetik eta bereziki zure anaia Irairen partetik.



Lesakako **Eneko Valverde Leizak** 7 urte bete ditu irailaren 2an. Zorionak eta auniz urtez familia guztiaren partetik. Muxu haundi bat, monono!



Anizko **Elorri** eta **Harrietek** 8 eta 6 urte beteko dituzte buruilean. Zorionak eta auniz urtez, urteak bezainbortze muxu biendako.



*Bezere bakoitzaren beharretara egokitutako web orrialdeak diseinatzen ditugu, Interneten beren negozioa sendotzen laguntzeko.*

- Ordenagailu, tablet eta mobiletara egokitua
- Hizkuntza ezberdinetan
- Argazki-galeria
- Kontaktatu formularioa
- Domeinuak eta ostatatzeak kudeatzen ditugu
- 10 korreo kontuak
- Google bussinesen kokatua

**Eskatu aurrekontu pertsonalizatua**

(0034) 948 63 54 58 | [www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)  
Koskontako bidea, 7-1. 31770 LESAKA (Nafarroa)





**Zu hemen zaude,  
AEK ere bai**  
**Tú estás aquí,  
AEK también**



**EUSKARA-IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA**

## **Baztango AEK Suinki euskaltegia**

**IKASI EUSKARA ORDUKO EURO 1ean!!  
¡¡APRENDE EUSKERA POR 1 EURO A LA HORA!!**

**Maila guztiak – Ordu-tegi guztiak · Todos los niveles y horarios**

**Talde presentzialak – Autoikaskuntza  
Grupos presenciales – Autoaprendizaje**

**EGA prestatzeko ikastaroa**

**Gurasoendako talde bereziak eskoletan  
Grupos especiales para madres y padres en las escuelas**

**Baztan Berri 7 · 948 45 24 71 · [baztan@aek.eus](mailto:baztan@aek.eus)**

**DIRU-LAGUNTZAK / BECAS**

**Udaleko dirulaguntzak jasotzeko aukera  
Posibilidad de optar a ayudas del ayuntamiento**



# Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSUTRUK  
-%80ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:  
TTIPI-TTAPA  
Koskontako bidea, 7 LESAKA  
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57  
info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

# 716

aleko irabazleak >



## ZOZKETAK

2 sarrera



**IRRISARRI LAND**  
[www.irrisarrieland.com](http://www.irrisarrieland.com)

2 sarrera



**ZUGARRAMURDIKO LEZEA**  
[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)

2 sarrera



**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**  
[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es)



2 sarrera helduentzat

**ONDDO TA PUNTO**  
[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



Kamiseta bat

**LA RHUNE**  
[www.rhune.com/eu](http://www.rhune.com/eu)



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

## ZOZKETA



2 sarrera  
**WOW PARK**  
<http://wowpark.fr>

## LI BU RU AK



- Hamaika galdera dinosauroei buruz
- Kopetilun
- Dinosauro handien liburu handia

TTARTTALO

[www.ttarttalo.eus](http://www.ttarttalo.eus)

## LA GUN TZAI LEAK



[www.maukamusik.com](http://www.maukamusik.com)



[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)